



# KARDABERAZ-6

## 1977

### *Nun zet:*

I.—KARDABERAZ KONDAL- RAKO ... ..	1-20
II.—OMENALDIAN IRAKURRI ZIRAN LANAK ... ..	21-43
III.—GIZALDIZ GIZALDI ... ..	45
Euskera batuaren bila, Akesolo'tar Lino A. ... ..	47-70
IV.—UMANDIREN BI LAN ... ..	71
Olabide, eredu yaukaia, Ufestarazu'tar Andoni ... ..	73-77
Euskeraren batasun eta bizirako asmoak, Ufesta- razu'tar Andoni ... ..	78-89



# KARDABERAZ LIBURUEN ZERREDA

## KARDABERAZ BILDUMA

	P.V.P.		P.V.P.
<b>KARDABERAZ AITARI OMENALDIA</b>		<b>18 TXIRULIRUKA-OLERKIAK</b>	
Zenbait idazle (1972) 198 of. ... ..	200	Leñdi'tar Paben (1977) 145 of. ... ..	300
<b>NEURRIZTIA</b>		<b>19 LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA, I (1977)</b>	
Luis Egia (1972) 323 of. ... ..	400	341 of. ... ..	1.000
<b>SUGE GORRI</b>		<b>20 LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA, II (1977)</b>	
François Mauriac - "Uxola" (1973)		323 of. ... ..	1.000
169 of. ... ..	200	<b>21 LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA, III (1977)</b>	
<b>EZPALAK</b>		396 of. ... ..	1.000
"Uxola" (1973) 191 of. ... ..	200	<b>IDAZ-LAN GUZTIAK</b>	
<b>AITONAREN IPUIAK</b>		Obras completas de Manuel Lekuona en 9 vols.	
Ramón Murua (1974) 140 of. ... ..	150	<b>22 1. Aozko Literatura</b>	
<b>ERREKA ZULOAN ETA...</b>		(1978) 624 of. ... ..	1.100
Anastasio Albisu Ayerdi (1974) 339 of.	300	<b>23 2. Eusko Etnografia</b>	
<b>SHAKESPEARE - KOMEDIAK, I</b>		<b>24 3. Kondaira (A)</b>	
Larrakoetxea'tar Bedita (1974) 322 of. ...	600	<b>25 4. Kondaira (B)</b>	
<b>LANDARE-JAKINTZA (Botánica)</b>		<b>26 5. Kultura</b>	En prensa
Larrañaga, Gillermo (1975) 183 of. ...	400	<b>27 6. Olerkiak</b>	
<b>GARTZI-XIMENO, ETA</b>		<b>34 7. Antzerkiak</b>	
Anastasio Albisu Ayerdi (1975) 258 of.	400	<b>35 8. Kritikak</b>	
<b>EUSKALERRIA ETA ERIOTZA</b>		<b>36 9. Apurrak</b>	
Anastasio Arrinda Albisu (1974) 290 of.	400	<b>28 EUZKAL-BETEKIZUNAK</b>	
<b>SHAKESPEARE - KOMEDIAK, II</b>		"Umandi" (1977) 222 of. ... ..	500
Larrakoetxea'tar Bedita (1975) 271 of.	600	<b>29/30 COMPLEMENTO GRAMATICA VASCA</b>	
<b>SHAKESPEARE - DRAMAK, I-II</b>		"Umandi" (1978) 584 of. (condiciones a la vuelta)	
Larrakoetxea'tar Bedita (1977) 468 of.	1.000	<b>31 LAS ETIMOLOGIAS VASCAS EN LA OBRA DE LUIS MICHELENA</b>	
<b>SHAKESPEARE - TRAJEDIAK, I</b>		Juan José Arbeldáiz (1978) 156 of. ...	480
Larrakoetxea'tar Bedita (1976) 358 of.	700	<b>32 ERROMA'KO ELEIZEAREN ARAUDIA</b>	
<b>SHAKESPEARE - TRAJEDIAK, II</b>		A. Ipolito Larrakoetxea (1978) 472 of.	1.000
Larrakoetxea'tar Bedita (1976) 293 of.	700	<b>33 IZTUETA'REN OLERKIAK</b>	
<b>GRAMATICA VASCA</b>		Juan Garmendia Arruebarrena (1978)	
"Umandi" (Dos vols.) (1976) 584 of. 208 of. ... ..	1.100	192 of. ... ..	500

1.

## Kardaberaz Kondairako

BATZAR NAGUSIRAKO deiarekin bukatzen genduan,  
KARDABERAZ 5'ean, gure BAZKUNAREN KON-  
DAIRAKO lana.

Jarrai dezaiozun, bada.

1976.

Abendua'ren 27, astelena zan, eta Loiola'n izan genduan Kardaberaz-  
tarrok gure BATZAR NAGUSIA.

Beti bezela On Manuel Lekuona'k esan zituan agur-itzak, eta Albisu'-  
tar Anastasio'k, idazkari bezela, ekin zion gero. Ta ona-emen, bere lenen-  
go itza :

Bijoakio lenengotik gure samin-agurra Garmendia'tar Juan Jose'ri, atzo  
cortzi bait-zioten, Lazkau'n, larogei-ta-amar urteko bere ama zaarra. G. B.

Eta bidebatez esan dezadan ere, Barandiaran'go On Joxemiel'ek atzo  
esan zidana : bere lagun baten omenaldia zuala gaur Gazteiz'en, eta an itz-  
egin bear zualako, etzala gaur onera etorriko.

Eta aipatu dezagun ere, Arizmendiarieta'tar Joxe Mari. Bera izan bait-  
genduan, guk, KARDABERAZ BAZKUNAREN BABESEAN, 1933-ga-  
rren urtean sortu genduan talde txoaren burua. Berak egindako marrazkiak  
apaintzen bait-zuten gure, orduko, KARDABERAZ aldizkari apala. Ta  
berak sortua ta egina bait-da, gaur ere gurea dan, KARDABERAZ BAZ-  
KUNAREN ikurra. Goian bego, bada, Arizmendi Arrieta'tar Joxe Mari  
apaiz jauna ere.

Bi agiri irakurri zian gero : igazko BATZAR NAGUSIAREN AGI-  
RIA bata, eta BATZORDE NAGUSIKOAK, Azaroa'ren 13,an, Loiola'n  
izan zuten billeraren agiria bestea.

Mañarikua jauna artean etorri etzalako, Elosegit'ar Jesus'ek artu zuan  
itza. Zeatz azaldu zituan onek, argitaratu, ta argitaratzeko zeuden liburuen  
kontuak : Umandi'ren Eliztia : Loidi'tar Paben'en Txiruliruka : On Ma-  
nuel'i, idazle askoen artean, eskeiniiko dizkioten omenaldi-liburuak : A.  
Justo Mokoroa'ren Euskal-Esakerak : Umandi jaunaren beste lan bat, eta  
abar. Etzitzaion Berrondo'tar Pedro'ren aipamenik, ere, aaztu. Ainbeste ur-  
teetan eta ain-egoki, DIARIO VASCO'ko "euskal-orria" zeraman gizonak,  
ondo merezi zuala txalo bero bat.



Liburuak biltzeko tokiarekin sartu zan gero Elosegia jauna. Ta bear-bearezkoa iruditzen zitzaioala biltoki egoki bat, bai Bazkunaren martxa onerako, eta baita liburuen zabalkuntza on baterako ere.

Joan-bearra zuala-ta, ETOR'eko Ayerbe'tar Enrike'k artu zuan gero itza, ta On Manuel Lekuona'ren omenaldirako liburueri-buruz mintzatu zan: ale marduletan argitaratu bear ziran ala ez: aldizka edo-ta danak batera, ta abar. Bidezkoa zanez, liburuen salmenta zeukan Ayerbe jaunak buruan, eta bide ortatik ari zan izketan ere.

Etzan gauza garbirik erabaki, baiñan On Manuel'ek esan zigunez, bost aleak-edo osatuko dute bere lan-guztien bilduma: 1/. Aozko literatura, 2/. Etnografi-buruzko gaiak, 3/. Ixtori gaiak, 4/. Idaz-lanak eta 5/. Olerkiak.

Mañarikua'tar Andres'ek itz-egin zigun gero. Deustu'ko Ikastetxe Nagusiko, Legeizti Ikasketako buru bezela, aurkeztu zuan idazkari jaunak, eta eman zuan itzaldiak, etzuan bere mailla ori gezurtu. Bizkaiko' Fueroa artu zuan gaitzat, eta bai ederki sakondu ere.

Zortzi galdera egin zizkioten gero entzunleak.

Ordu-laurden bateko atsedena artu genduan gero, ta Akesolo'tar Lino aitak eman zigun bigarren itzaldia: GIZALDIZ-GIZALDI EUSKERA BATUAREN BILLA.

Lenengoa bezein sakona ta ederra au ere, KARDABERAZ 6'ean oso-osorik azalduko dana.

Orduak aurrera, ta irurak ziran-ia bazkaltzen asi giñanean.

Baiñan gauzak merezi zuala-ta, Azkoiti'n biltzea erabaki genduan, ilbeltzaren 3'an, Arrinda'tar Anastasio'k, Garmendia'tar Juan Jose'k, Elosegia'tar Jesus'ek, Garmendia'tar Martin'ek eta nik.

Eta eskutitza au izan billera onen ondorio:

Azkoiti'tik Ilbeltzak 3.

1977.

Lekuona'tar On Manuel	Akesolo'tar Lino
Ortuzar'tar Martin	Ayerbe'tar Inozentzio
Tolosa'tar Felipe	Arrinda'tar Anastasio
Berrondo'tar Pedro	Garmendia'tar Juan Jose
Garmendia'tar Martin	Elosegia'tar Jesus.

AGUR: Ezin esango degu Loiola'ko AZKEN-BATZAR-NAGUSIA ederra izan etzanik. Bazkide asko alkartu bai-giñan, eta ederrak izan bai-ziran bertan etzundako itzaldiak ere.

Baiñan... (eta an, ere, azaldu izan zan zorioneko "baiñan" au), eta ondo dakigu, batzuek beintzat etzerala ain-pozik etxeratu, azken orduko diru-eske ura izan zala-ta.

Egia da..! Argitasun geiago merezi zuan diru-eskatze ark, baiñan da-

nok ondo dakizutenez, etzan ortarako astirik izan billera garaian, ta orrela joan zan gero gauza. Ez gu oartzeko ordea, ta antxen-bertan artu genduan, gaur Azkoiti'n, billera berri bat egiteko asmoa.

Eta ona-emen orain, billera onetan, gure artean, egin ditugun galderak:

- 1/. Zenbaiterañokoa izan bear du bazkide bakoitzaren urteko ordainketa...? 1.000 laurlekoa...?
- 2/. Zer ematen dio Bazkunak bazkideari ordainketa orren truke...? Aldizkaria...? Argitaratzen diran liburuetan nolabait parte-artzea...? Saldu-gabe gelditzen diran liburuetan nolabaiteko jabetasuna...? Eta inoiz zorpean eroriko ba'giña, zer...?
- 3/. Beartu al'dezakegu bazkide bat, Bazkunak argitaratzen dituan liburu guztiak, nai-ta-ez artzea...? Bai...? Ez...?
- 4/. Zer kondizioetan eman bear zaizkio bazkideari liburu oiek...? Kostatzen diran, (ez salgai dauden) prezio osoan...?
- 5/. Inork arpidedun izan naiko ba'lu, eta bazkide ez, beartua ote legoke liburu guztiak artzea...? Bai...? Ez...? Eta zer kondizioetan...? Dendaetan salgai dauden baiño % 25 gutxiago ordainduaz...?
- 6/. Urratu nai degun bide berri au, onuragarria ala kaltegarria izango ote da Bazkunarentzat...?
- 7/. Ez ote legoke auzi au zuritzeko beste biderik...? Adibidez: datozen liburuak dirala-ta, (On Manuel'en omenaldikoak, aita Justo Mokoroa'renak eta abar), ez ote ginduzke, liburu oiek argitaratzeko ta Bazkuna Indartzeko, diru-emaitza batzuek jasoko bai bazkideen artean, eta baita bazkide ez diran artean ere, irabazirikan-gabe itzultzekotan...?
- 8/. Ez ote degu, orain artean beintzat, gure liburuen zabalkundeaz auztu-xamar euki, bein irarkolako gastuak ordaindu ezker...? Ez ote genduke liburu-zabalkundeaz geiago arduratu bear...?
- 9/. Gure argitaldaria LIBRERIA TECNICA DE DIFUSION izenean dago gaur-gaurkoz, eta ez ote da Kardaberaz Bazkunaren izenean ipintzeko ordua eldu...?

Ona-emen erantzun-eske dauden zenbait galdera. Ez danak noski. Zue-ri ere sortuko bai-zaizkizue galdera bar edo beste.

Orregatik, BATZORDE NAGUSIKOENTZAT billera bat eratu degu Tolosa'n. Ilbelta'ren 17'rako, ta goizeko 10'etarako.

Garbi utzi nai lituzke Jesus Elosegia'k ere, ETOR eta Kardaberaz Bazkun-arte-ko artu-emanak, eta baita Tene ta Julene Azpeitia'ri buruz, zer-bait esan Arrinda jaunak.



Etortzetik ez ba'zenduke, bidali zaizkigutzu, arren, zure erantzunak, beste BILLERA NAGUSI BAT eratu naiko genduke-ta gai oni-buruz laister.

Eta agur beti bezela.

Eta onela zion BILLERA NAGUSI ortarako deiak :

Tolosa'n 1977'go Ilbeltzaren 20-ean.

BATZORDE NAGUSIAK BAZKIDE GUZTIERI DEI BEREZIA.

Agur, Kardaberazbazkide: Ilbeltzaren 17'an, KARDABERAZ BATZORDE NAGUSIAK, TOLOSA'n BILDURIK, Loiola'n egindako azken batzar nagusiaren osapen edo geigarritz bezela, urteeroko bazkide-sariaz, liburu banaketaz, argitalpen berriaz eta abar, zueri argibide batzuek emanaz batera, zuen iritziak eskatzera erabaki zuan.

Eta onetara eltzen zaizue gaurko dei berezi au.

Eskuartean ditugun argitaratze-lanak, (Lekuona jaunaren idazlan guztiak, Lekuona jaunari omenaldia, Loidi'tar Paben'en olerkiak, Justo M.<sup>a</sup> Mokoroa'ren esaera-bilduma nagusia, Umandi'ren lan etekintsua gaurko euskeraren eta Euskal-erriaren egoerari buruzkoa ta abar...), Kardaberaz Bazkunari dakarzkien buruauste sakonak ongi aztertu ta gai ortaz zerbait onurakor erabakitzeko Batzar Nagusi bat iragartzen dizutegu datorren Otsailla'ren 12'an Loiola'n egitekoa, an guztion aburuz eta bultzadaz, Kardaberaz Bazkunerako aro berri bat, onez onarritu ta tinkatu dezagun.

Guztion bearra degu oraintxe. Loiola'ra ezin etorri zeratenok, arren, bialdu aurretik zuen iritziak idatzirik Kardaberaz'era (Apdo 83. Tolosa). Guztion artean erabaki bear degun auzia da-ta oraingo au.

Guztiok dakiguna da, orain sei, zazpi urte, urteko milla Pta'kin egiten genduna, orain ezin dezakegula inñolaz ere egin; Españi'ko Pta. mirrintzen bait-dijoa bere auleriaren auleriz.

Ona zuei zeinbait galdera, erantzun zai, egiten zaizkitzuten:

- 1.—Urteko bazkide saria milla Pta. orain arte bezela...?
- 2.—Ortik aurrera, urtero argitaratzen diran ilburuak irarkolako prezioan (costo bruto de imprenta) bazkideeri eskeñi...? Geintsuen urteko beste milla edo bi milla pezta jo arte...?
- 3.—Bazkideak, argitaratzen diran liburu guztiak nai-ta-nai-ez artu bear al'ditu. Ala nai dituanak bakarrik...?
- 4.—Batzordearen ustez, Bazkunak, zenbait bazkide ta bazkide ez diran euskaltzalleen laguntza eskatuz, eta auen aurrerapenez (adelanto-préstamo) alako (fondo fianza publicaciones) zerbait osatu bear luke. Zer...?

5.—Onela, egiteko diran liburuak garaiz ordaintzeko almena izango luke. Eta gero zenbait saltzalleekin ziur jokatuaz, aurreratzailei zatika aurreratua itzultzeko gai izango litzake. Ontaz zer...?

6.—ETOR irarkolarekiko artu-emanetan, azaldu dizkiguten alkartu-naiak sakon aztertu ondoren, Batzorde onek, bazkunaren onez, ezezkoa ematea erabaki du. Zer derizkiotzute...?

7.—Emen agertu ez degun beste iritzirik badezute agertu mesedez.

8.—Loiola'ko batzar ontan azkenik, Dorronsoro'tar Joakin jaunak, II'n Batikano'ko itzulpenari buruz, zertan dagon adieraziko digu.

Besterik gabe Loiola'n Otsailla'ren 12'an goizeko amarretan asiko dan BATZAR NAGUSIA arte, agur.

*Batzorde Nagusiak*

Eta Loiola'n bildu giñan Otsailla'ren 12'an. Larunbata zan, eta ogei-ta-amaika bazkide giñan bertan. Arrinda'tar Anastasio'k bialdu zigun ezin etorria.

Luzaro egoteko astirik etzuala-ta, Dorronsoro'tar Joakin'ek eman zion asiera billerari. Txosten bat irakurri zigun; eta txosten ortan zionez, euskeratuta zeuzkan II BATIKANO'KO AGIRI GUZTIAK, oarpenak ezik. Bi laguntzaille aundi izan zituala bere lanean. Mokoroa'tar Justo aita, alegia, alde batetik. Eta Orbegozo'tar Inazio jauna bestetik. Iztegi motz bat erantsi nai ziola itzulpenari, eta "kukuak joko-zuanerako" amaitua eukiko zuala dan-dana. Ala ere, ta bere buruaren lasaitasunerako, beste norbaitek ikustea naiko lukeala bere lana, ta Zugazti'tar Anizeto'ren izena aipatu zuan On Manuel'ek, eta ontzat eman zuten beste danak ere.

Billerarako deia irakurri zuan gero Garmendia'tar Juan Jose'k. Bazkideen urteko ordain-sariak bait-ziran billera ontako ardatz.

Etorri etziran zenbaiten iritziak irakurri zituan aurrena Elosegit'ar Jesus'ek, eta bere iritzia eman gero.

Bertan zeuden bazkideak ere, etziran ixilik egon, eta eztabaida onuragarri bat sortu zan bereala. Eta au izan zan, azkenean, artu zan erabakia:

Bi erako bazkideak izango ditu KARDABERAZ BAZKUNAK: urtean BI MILLA PEZTA ordainduko dituzten bazkideak, eta urtean MILLA PEZTA ordainduko dituzten bazkideak. Ala ere, eskubide berdiñak izando dituzte bi eratako bazkide auek, Bazkun-barruan erabakiren-bat artu bear danean, eta KARDABERAZ aldizkaria ere, *utsean* jasoko dute bai batzuek eta bai besteak.

Urtean BI MILLA PEZTA ordainduko dituzten bazkideak ordea, MILLA PEZTAKO balioa artuko dute urtean, Bazkunak argitaratutako liburuetan; eta beste-ezer ordaindu-gabe artu ere. Eta liburu bakoitzari orta-



rako emango zaion balioa, irarkolako gastu-osoarena bakarrik izango da. Urtean MILLA PEZTA ordainduko dituzten bazkideak berriz, bere esku izango dute Bazkunak argitaratzen dituan liburuak artu ala ez, edo-ta danak edo batzuek artu. Auek ordea, ordaindu egin-bearko dituzte liburu oiek, baiñan etzaie sekula, irarkolako gastu-oso a baiño geiago ordain-eraziko.

GAMIZ jaunak artu zuan gero itza, ta urteko ordain-saria, urte oro aztertu-bearrekoa zala, esan zigun. Eta "baiezkoa" eman genion danok.

Gure liburu-biltokiarekin sartu zan gero Elosegitar Jesus, ta ondo legokeala, esan zigun, an gordetzen dirugun liburu guztien zerrenda bat egin, eta aien kostuaren-berri jasoko ba'genu alik-eta-zuzenen.

Onartua izan zan Elosegitar jaunak esana ere, baiñan Albisu jaunak zionez, liburuak etziran argitaratzen bildegi batean gordetzeko, errian zabalteko baizik.

Eta Garmendia'tar Juan Jose'k liburu-zabaltzailleekin izan zituan gora-bera guztiak azaldu zizkigun orduan, San Miguel'etik asi, ta Etor-arterañoakoak, alegia.

Galarraga'tar Luis Mari'k, eta bere iritzi bat bezela, au esan zigun orduan: liburu bat argitaratzerako, ikusi egin-bear gendukeala aurretik "nun" eta "nola" salduko zan liburu ura.

Elosegitar Jesus'entzat berriz, errietako euskaltzalle guztien izenak jasotzea, izango litzake zabalkunderako biderik egokienetako bat.

Aipatu zan ere, KARDABERAZ BAZKUNA legeko bazkun bat egi-tea: legepean sartzea, alegia. Nola ordea...? Jakintza-aldeko bazkun bat bezela...? Bazkun onuragarri bat bezela...?

Mesedegarria izango zitzaigula, esan zan. Etzan ordea, bide-jakiñik aukeratu ortarako. Ta alegiñak egitekotan gelditu giñan.

Aita Justo Mokoroa gertatzen ari zan ESAKERAK liburu ere aitatu zan. Garmendia'tar Juan Jose'k zionez, berak zeukan liburu ori argitaratzeko "eskubide bakarra", aita Mokoroa'rekin egiña zeukan itunaren indarrez. Ala ere, ondo legokeala itun ori berritzea, ta artu zezala ortarako Elosegitar Jesus lagun.

Bazkunaren-alde sortu nai zan "diru-laguntzari-buruz", au esan zigun azkenik GAMIZ jaunak: diru-laguntza ori, edonork eman zezakean ezkerro, (bazkideak ziranak eta etziranak, alegia) ondo legokeala ortarako txartelak, euskeraz eta gazteleraz idatziak egotea.

Epaila'ren lenengo egunean-edo, bazkide guztiei eskutitz bat bialdu nien, Loiola'n izandako Batzarraren-berri emanaz.

Apirillean irten zan eskutitz au Tolosa'tik, eta alperrikakoa iruditzen zait emen, berriro, ematea.

Garagarrillaren, Ekainaren 23'an BATZAR NAGUSIKOERI dei-egiten nien berriro:

Agur biotzez: Billerak urritu-neurrian, pillatzen zaizkigu gauzak ere, eta orrelako-zerbait gartatu zaigu Kardaberaz Bazkunean ere. Eta ittoko ez ba'gera, laguntza eskatu bear: baten-batzueri gure arazoan berri eman bear, eta BATZORDE NAGUSIKOERI batez ere...!

- 1.—On Manuel'en omenaldi-liburu bat edo beste ba'degu gure eskuetan. Nola aurkeztu ordea...? Ona, erantzun-bearreko galdera bat.
- 2.—KARDABERAZ 5 ere, argitaratua dago, zabaldu zai. Ta beste zenbait liburu ere, irarkolan daude... Baiñan, egia esan, gutako-iñork ez daki-ia liburu oiek zeintzuk diran. Eta oien ardura dutenak, ez dute "sator-lanik" egin nai, ta gu-guztion oniritzia bear dute ortarako.
- 3.—Filme batzuek euskeratzeko zoria ere, eskuetara etorri zaigula, dirudi; gero zine-aretoetan euskeraz emango diran filmeak noski... Eta artu ala utzi egin bear degu zori ori...?
- 4.—Elosegitar Jesus ere, jo-ta-ke ari zaigu lanean, eta Irura'n billatu digu, KARDABERAZ BAZKUNAK argitaratutako liburuak, bear-bezela gordeta-eukitzeko leku eder bat... Baiñan ez da ori bakarrik: Bazkunaren diru gora-bera guztiak gaurko erara ipintzen ari da argi ta garbi, edozein lantegietan oi danez... Eta oraindik geiago dana: millaka-batzuek txartel zabaldu naiko litzuke Euskal-erri osoan, Bazkunerako bazkide berriak sortu naiean. Eta dudarik ez, sortuko dituala ere... Baiñan Jesus'ek ere ez luke iñoren baimenikan-gabe ari-danik entzun nai, egunen batean, ta bere asmoak azaldu nai litzuke...!
- 5.—Eta oietaz gaiñera, or dago DEIA ere, ta laister azalduko da EGIN ere...! Eta ez ote digute izparringi oiek izketa-gairik emango...?

Ona, zergatik dei egiten dizugun Dagonilla'ren 4'ean, Tolosa'ko Iparragirre zine-aretoan, goizeko amarretan, izango degun billerara. Ez zaiguzu utsik egin, arren.

Ataka berezi batean arkitzen zaigu gaur gure Euskal-erria, ta ezin dezakegu guk, itxu egon...!

Tolosa'n izango zeralakoan, agur biotzez eta ordurate.

Nik-neronek ez nuan billera onetara joaterik izan, eta Sukia'tar Joxe Mari'k jaso zuan bertako agiria.

Onela dio Sukia'tar Joxe Mari'k:



## Tolosa'ko Iparragirre Liburutegian, 1977'ko Agoztua'ren 4'an, Kardaberaz'tar Bazkunak egin zuan biltzarraren agiria.

Tolosa'n, 1977'ko Agoztua'ren 4an, Batzorde Nagusian bildu giñan Kardaberaz'tarren izenak:

Lekuona'tar On Manuel	Oñatibia'tar Imanol
Arrinda'tar Anastasio	Otamendi'tar Joxe Mari
Garmendia'tar Juan Joxe	Dorronsoro'tar Jokiñ
Onaindia'tar Alberto	Labayen'tar Antonio Maria
Onaindia'tar Txomin	Murua'tar Erramun
Ayerbe'tar Inozenzio	Urrestarazu'tar Andoni (Umandi)
Latiegi'tar Bixente	Garmendia'tar Joxe
Olazar'tar Martiñ	Aizarna'tar Santiago
Garmendia'tar Martiñ	Toledo'tar Nekane
Elosegi'tar Jexux	Sukia'tar Joxe Mari

ta Albisu'tar Anastasio'ren eziñ-etorriaren aditzera, jaietaraturik zaigulako. Bereala, idazkari-ordezkatza Sukia'ren gaiñ utzi ta, eguneko jarrai-lerroari eman genion esku:

1.—Otoitz-agurraren ondoren, On Manuel'ek Agertu zion bere biotz-samurraren esker-ona Kardaberaz Bazkuna'ri, argitaratzen dizkion omenaldi-liburuengatik... Eta Jainkoa oso eskertu bearrean gerala adierazi ere bai, liburu oiek dirala ta ez dirala, agertu diran ainbat eta ainbat idazkariengatik...! Bestela, ez bait zuten, eunda sekulan, idatz biderik arkituko... Ori dala-ta, urarentzat erretena bezela, omenaldi au idatz-bide gertatu da asko ta askorentzat. On Manuel'en iritziz, bere lanen lenengo liburu "AOZKO EUSKAL LITERATURA" eta omenaldiko irurak batera aurkeztera izango litzakela onena.

Orrenbestez, Garmendia'tar Juan Joxe'k eldu zion jarrai-bideko ariari, goizeko amarretatik eguñardiko ordubaterañoako saioan.

*Bere asmok:* On Manuel'ek Euskera'ren alde egindako lanak izen berezi-berezi bat merezi duala ta aurkezmen-era jator bat eratu bearrean gaudela: Kardaberaztarren nortasuna azaltzeko garaietan gaudela: Gazteiz'ko Apaiztegia 1924'an, egindako azitxo!... Ainbeste urteen buruan, ia illean, laiotzpean biziari eutsi ta 1970'gn lur berritua, garatan zaigula!... Ta, orain, azitxo garatueratzalle ta zaindariaren omenez egin diran iru liburuaz gaiñera, bere-beraren lan-gaiez betetzen diranakin, Euskal-Erri osoari, On Manuel'en jator-bidean, Kardaberaz-Bazkunaren nortasuna azaltzeko garaia iritxirik degula, beraz... Burutik joandakontzat artzen gaituztenen aurrean, edo-ta Leffebre'ren morroitzat gauzkatenentzat, azalgai eske-

ñi gentzakela argi-bide ori: Jakin dezatela, Euskeraren euskera zaleak bizi dirala, oraindik, eta, gurasotzarik gabeko gurasotza azaldu nai dutenei, baita erakutsi ere, Euskera zaarrak ba dula euskerazko puja berririk, eldu ere ba zaiola garaia, bidez aldatu bearrik gabe, aurrera sasotuzteko.

Zein bideetatik erabili, ta eraman, aurkezmen oien ariak? Euskal-Erri nagusienetatik asi-ta, noski: Bilbao, Bayona, Gazteiz eta Iruña ta Donosti.

Nola ta noiz?... Zein ate joaz?: Izparringi, Aldizkari, Erri-Irrati, ta abar... Noiz? Aurtengo udazkenean: Urria'n?... Azaroa'n?... Lenengo azal-aldia Donostia'n izango litzakela.

Erabat ontzat eman zan amets-asmo au.

2.—Satorkeriak satorrentzat utzi ta, goitik beera, zearo asko, agertu zizkigun Juan Joxe'k liburuaren agerpen-bideak:

Kardaberaz 5'gna, Loidi'tar Paben'en TXIRULIRUKA, —agarretik-agarriera, ttattoka-ttattoka zuzendutakoa—, olerkidi goxo-goxoa... Txoria izan nunbait gure lagun zaar Paben!... Eta Txantxangorriaren antzera, kukuarentzat akbilari!... Aurrera, beti, ta Jainko-arnas orri eman ire birketako aize garbia, aspertzeke, Igeldo'ko kaiolatxo orretan!...

Lekuona'tar On Manuel'en omenezko idazki-bildumak iru liburu ale burutu dituztela. Esku artean, gozatutxo bat eman ere egin genizkien...

Eta bere lanen "AOZKO EUSKAL LITERATURA", lenengo ale bezela txapeldurik dagola, ta bidean aurrera dijoatzela beraren beste lau-bostak ere: Erriakintza, Ertia, edestia, Olerkiak, Irizkerak, t. a. ...

Arbelaitz'tar Juan Joxe'k On Manuel'i eskeñitako tesina: ETIMOLOGIA DE PALABRAS VASCAS EN KOLDO MITXELENA, —Iztegi antzera—, omenaldi liburuaren eraskin izango dala.

Berdiñ eta Garmendia Arruebarrena'tar Joxe'k On Manuel'i eskeñitako IZTUETA'REN OLERKIAK ere azken orrazkeran dabiltzala.

Umandi'ren "EUSKAL BETEKIZUNAK", bere Gramatica Vascaren osamena ere, loratu dala.

Orain ager-bidean zuzenduta daudenak, berriz: On Manuel'en beste lau-bost oiek.

Karmeldar Larrakoetxea'tar Aita Hipolito'ren ELEIZAREN LEGEDIA (Derecho Canónico), Akasolo'tar Lino'ren orrazipean txukuntzen dagoena. Praillediaren laguntzeskeintza ere bai omen du argita-bide zorren ordainketarako.

Eskolapio Mokoroa'tar Aita Justo'ren lan ederra ere ba dijoala bere bidean: Euskerazko Esaerak (au ere Iztegi-bidean eraturikoa izango zaigu).

Mokoroa jauna bildur omen dala bere zaartzaroak betarik ez ote dion emango lan osoa burutu arte... Ta laguntzalle eske-antz bat ere adierazten duala, bere artekatari bear ainbat giro-itzal ikusten edo nabaitzen ez dualako. Jarraitzalle leikenari, ziñlari itzalez, bideramen bat eskeintzera ondo ez ote legoken zalantz pixkaren azaldu-naia ere ikusten zaiola... Bere lan-



txoa lapurtuko ote zaien iruipentxoa?... Nai-giro aundiarentzat arnasatxoak indar gutxi?...

Ondoren, Juan Joxe'ren eskabidez, Umandi jaunak egin zigun bere NORA BIDE eta Cassette'n agermen bat: euskera ikasteko bide bat, alegia.

Ta era orri bideak urratzeko, nora-bideak eta ikaskaiak galartzu egin dituala: aundi ta txikietan. Ikaskai ta nora-bide oiek zortzi galartzu zinta) aunditan sartu dituala. Donosti'ko "Radio Guipuzcoa'n" bete dituala. Gero, zortzi oietatik, amalau galartzu txiki beteko dituala, ta oso laxter ala ere, Bilbao'ko etxe batean. Bidean dirala, beraz. Bere bi liburuen erakuts-gaiak 84 ikaskaletan sartu dituala.

Galartzu txiki bakoitzean sei ikaskai, —alde bakoitzeko iru—, 90 minutuetakoetan. Eta galartzu txikien ordain-saria 217 laurlekotara igotzen dala; aundiena berriz, 2.400'araño, bakoitza. Txiki bakoitzetik 40 egitera erabaki dutela: Beraz:  $14 \times 40 = 560$  guzira.

3.—Juan Joxe'k beste azalmen zoragarri bat ere egin zigun: Gazte-txuen Filme batzuek euskeratu ta euskeramenean betiko sartzeko aukeramen bide bat. Erbiusaiak zakurrari isatza bezin tente jarri zizkigun belearriak berri orrek. Amets aunditxoa ez ote?... Ez... ez... Egi-bide oso-oso zekarkigun, zalantzatan uzteko!...

JUVENITZA S. A.'k (Zine?pelikulak zabaltzeko elkarte-etxearen izena) emango liguken bide jator bat. Aukeramen-eskubidetasuna, munduan zear, umientzat-pelikula edo Filmek biltzeko berekin duena.

Filme oiek, euskerara biurtu ta euskeratzeko trebetasunaren jabe eza gutzen ba gera, Kardaberaztarren izena josirik luteke beren aurkezpen guztietarako. Era oberik nun, lanaren bitartez, izenaren izantasuna biziro agertzeko?

Filme oien idurizketa (agerneurria) 8,16 ta 32 milimetrokotara irudizkiñeratuak izango lirazke. Beraz, Erri Nagusi ta bitarteko aretoetan ezik, erririk txikienetan ere izango luteke almena; euskaldun guziak jabetu ditezen nundikakoak dituzten...

Orretarako, FIDES eskuratzailearen bitartez, ezeren eragozpenik gabe, ta zorbide ta ordainketa-buru-austeak bere alde dituala, Juan Joxe'k jarri ditzazkela gure eskuetan Filme oien gora-beerak...

Orrela izatekotan, Oñatibia'tar Imanol'ek bereala eskeñi zuen biurtzalle talde baten arrastoa euskeramenerako. Amabost egunen buruan, zuzendu ezinik etzeukala, naiz oraingo, Madrillen edo Barcelona'n gertatu bearrakoa izan biurketa. Gerorako, errezago-bideak saiatu bear dirala emen: Euskal-Erria'n bertan egiñ al izan ditezen biurketatze oiek.

Ta, oraindik geiago ere bai, dio Oñatibia'k: Beñ euskerara biurtu eskero Filme oiek, aurkeztu leizkeela, baita Urrut-Ikuskizñez (Televistaz) ere. Ba dagola baimena ori egiteko.

Eta, beñ orretaraño iritxi ezkeru, elkartasuntzak dituan ar-eman bide guziak urratu gantzakela: irriti saioak dirala t. abar...

Izan-bide berri onek oso usai gozoa astindu zuan batzarkidean artean; eskerrak, gozalten gogoz, eman ere bai gure Juan Joxe eta Oñatibia'tar Imanol jauneei.

Ara ba da or, norañoakoa leiken gure gaurko jokabidea Euskera eta Kardaberaztarrentzat! Ez dezagun aaztu, guzian eskuetan daukagun izate aundi au! Danona danez, danon laguntza ere bear-beerakoa...

Gure erantzun baiezkoak itxi zion atea.

4.—Eta, orrenbesterekin, Juan Joxe jaunak Elozegi'tar Jesus'i eskeñi zion itzbidea. Bere etengabeko lan saioan, ba dula-ta zer azaldurik onek ere. Onen lana ordainduko duan dirurik ez dala jai, zion Juan Joxe'k. Eta egi aundia, ala jaiñetan. Oietako lan batzuen izenak, Jesus'ek berak azaldu alan, ara emen:

—Kardaberaztarren pillatutako liburuen izen-zenbaketatzea egiñik duala.

—Liburu oien sal-neurrimena 1.600.000 laurlekotaraño irixten dala.

—Ba dago, beraz, esnea nun jetzia, liburu oiek saldu ezkeru!...

—Etxegintzalle lagun batek, Irura'n duan lantegi-tresna etxean, liburu ordaindu oientzat gorde-leku-eskeinketa bat ere ba duala.

—Baiñan, naiz aurrenetik utsean eskeñia izan gorde-leku ori, geroztik, lagunak idatzi bat bidali diola beste jokaera berri bat adieraziaz: Nunbait ere SAGARDOA izeneko liburuen bat egiñik izan eta argitaratzeko laguntza bearrean arkitzen!... Eta baten-batek jabetu ere, noski, On Manuel eta Jesus'ek Donosti'ko Aurrezki Kutxarekin duten artu-eman, ta bitartekotasun ori lortzeko maatilla jarri, alegia...

Baita, irakurri digun eskutitzez, bitartekotasun orri neurri garaia jarri ere: "SAGARDOA" argitaratzeko laguntza irixten ba dio, aurtengo Egurritarako, irulau bat urteetarako, anaiei izenean, idazkatuko diola esandako liburutegirako baimena.

Giza-usai kaxkarreko idatzia iruditu zitzaion batzarrari idatzi ori. Ta, berealaxe, baita Galarraga'tar Luis Mari'k, —baldin Gotzaiak eragozpenik jartzen ez ba zion—, eskeñi ere gela bat, gauza orretarako, betiko eta utsean gañera, bere Donosti'ko Loyola'ko Eliz-etxean. Eskerrak eman bear ko orrelako biotz duten gizonei.

Elozegi jauna, egun asko baiño len azalduko zitzaiola, begiz ikusi ta nolako eraketa egin leikean jabetzeko. Ta aurrera:

—Orduan, Jesus'ek beste gogo bat ere agertu zuan: Zartzarua artutakoen artean, batean bat izan ote leiken, bere laguntzalletzat, —lanaren truke—, o lanaren alde, baiñan, goora-beera auetan laguntzalle ditekene. Etzuan erantzunaren zai egon bearrik. Galarraga jaunak, lana Donosti'an gertatzekotan, olako gizona ere billatuko zion, ustea ba zeukala.— Berriz ere eskerrak eman egin bear, ba da Luis Mari'ri ta pozik ala ere...

—Jesus'ek beste amets baten egun-sentia ere azaldu zigun, amets lortacan, gañera: Donosti'ko Aurrezki Kutxaren laguntasunez argitaratu-ta



Kardaberaztarren izen-abizen eta oraiñ arte argitaratutako liburuen agiri edereder bat, On Manuel'en argazki dotorearekin itzalpetua. Ta ori zertarako? Bazkide berrien uxarketa astintzeko. Bideak zer bait urratu ere bai asmo oietan: Mugica'ren Iztegiko (Diccionario) arripdedunen zuzenbide ta Euskal-Eliz Barrutietakoakin osatu-ta, Bazkunaren baimenaren zai zabalkundetza asteko.

—Egintz orretarako giro-aldirik onena agorra'ren erditik atzerakoa jotzen zuela, —uda aldi onetan asko ta asko jaietan izaten bait dira—, bestela orri oien esan naiak surtan edo gal-soskian lotaratu bearko lutekela-ta.

Orrela eraturako lan jator ori, nola batzarrak ontzat ez artu?

Izen-zuzenbideak jarri besterik es dutela, apainduak daude txartel-ageretzalle oiek. Oso lan erreztua, beraz. Eta batzarkide berriak sumatu ta bazkideak ugaritzeko berealaxoxea. Aurrera, orduan.

Jesus'ek bukatu zuanean, Juan Joxe'k eldu zion, berriz ere, ariari... Ain izan degu izkille ta ametslari, gaurko onetan!... Diru bideak ditu oraingo ametsak:

—Oraiñ arteko zorrak bazkideen laguntzarekin ordainduak izan dirala.

—Aurtengo bazkide-liburuak: Kardaberaz 5" gna, Loidi'ren TXIRU-LIRUKA ta Shakespeare'n Drama ta Tragediak osatzen dutela.

—Ba dirala, ordea, bazkideak ordainketan atzeratuak, eta bear-bearrezkoa dala, danok jabetzea, laguntza oni errextasun apur bat geiago emateko, ta salmantan laguntza pixka-pizka bat egitea ere oso egoki ta bidezkoa litzakela gure Bazkunarentzat eta gure Euskera maitearentzat.

—Orain, esku artean dabilzkigun liburuen ordainketaz: On Manuel'en omenaldiko irurak, Kardaberaz 5' gna, Umandi'ren EUSKAL BETEKIZUNAK, On Manuel beraren lau-bostak 1.500.000 laurlekotara iritxiko dirala. Ta, oien inguruan, beste 600.000 leurreko, gertu-gertu, ibilliko dirala, Garmendia'tar Joxe'ren Iztuetaren Olerkiak, Larrakoetxearen Eliz Legedia ta Mokoroa'ren Euskerazko Esaerak ekarriko dutena. Guzira jo-ta milloi bi, ortxe-ortxe.

Gero, buruko miñak ta bezkak kentzeko, Juan Joxe'k dirutzara bide batzuek ere agertu zizkigun:

Kardaberaz Bazkunak, liburugintzan aurrera jotzeko, lezazkean ate ta maatillak, alegia:

—Elosegi'ren zabalkunde asmoak loratzeak, —lanaren-sari—, ordainketa bide bat sortu deigukela.

—Zeozerren eskabide, naiz ordaintzarik gabekotan (a fondo perdido), egiteko lañi izen ta nagusitasunakin arkitzen gerala.

—Baita, irabaz-sarian sartu gabeko, bazkideen arteko diru aurrerazte bat ere.

—Edota, Bazkunaren izenpean, iru-lau urteen buruan ordaintzekotan, % lau-bosteko irabaziarekin ere bai.

—Gañera, Euskadi'ko Diru Aurrezki Kutxak ere, beren Kutxaen izen-

-jantziari, Bazkunaren liburuetan amore emanaz, dira bidea irikiko ligitekela, —alegia, orretarano beartu ezker—.

—Azken bide oni buruz, Latiegi'tar Bixente'k Bitori'koen ateak joko zituan asmoa eman zigun.

Batzarrak nola ez onartu Joan Joxe'ri bere amets-bide ta argi-arrasto oiek, bide-zaill garajarako orrenbeste errezteko ateak erakutsi ta gero?

Zabalkundetzak saltzalleak ere eskatzen dituala, zion Oñatibia'tar Imanol'ek. Bear-bearrekoak diralako bizi-bide jator bat Kardaberaz Bazkunari osatzeko. Ta, orretarako, lege-bidean sartzea ere oso ongarri iruditzen zitzaiola:

Jakintz-Elkarte (Cooperativa cultural), naiz-ta beste olatsuko izenpe batean. Shakespeare'n izulpenak ere salbidetu leizkela munduko Unibersitatetara eskeñi ezker. Jakintz-etxe Nagusi oien zuzenbideak Deustu'koak emango liguzke tela.—Olazar'en eskuetan utzi zan zuzen-bide oien lortzea.

Baiñan, liburu oiek era orretara saltzeko, azalmen-txartelak izkuntz geiagotaratuak bearko ditugula, noski.

Azkenik, Joan Joxe'k esanik ere zigun onoko beste au: Gotzai On Jazinto'k, aurreko egunean, galde egin ziola Vaticano II'gn Batzar Nagusiaren idaztien euskeratzea, bere itur-buruaren esan-nai ta giroaz ondo jantzirik-koa dan. Biurto edo itzuli ta gero, Teologo ta beste maixu jakintsuen ustetan, ala zala esateko, agindu zitzaion.

Eta, dana osatzeko, Dorronsoro'tar Jokiñ'ek: Barandiaran'tar Joxe Migel'en Bizitz Agiri liburua ere euskeraturik dula, adierazi zigun.

5.—Orrenbesterekin, noizpait bear eta, iritxi giñan DEIA egunkariaren larrura. Berriz ere Joan Joxe: Kardaberaz Bazkunari, bizi giro obego bat emateko asmoetan, Ibarrondo'tar Edurne'rekin DEIA egunkariko atetaraño sartu zala. Kardaberatarrontzat orri-alde oso baten billa..., gure erri-euskeran izatekotan. Eta eman zion erantzunez, eragozpenik etzegoela edozeñi euskalkietan idazteko. Ugalde'tar Martiñ'en eskuetan dagola ori, ta berarekin zuzendu bearko giñuzela bide oiek. Baiñan, orri osoaren gertaketa orrek 50.000 laurlekoen ordaiketa sortuko zigula, noski.

Juan Joxe'ren agermen onek ezta-bai aundia sortu zuan batzarkideon artean. Azaldu ere bai DEIA'ko euskerakerea dala-ta dabilzan burrukak!... Ez zala, beraz, Ibarrondo'k uste duan beziñ errexa DEIA'ko euskera bidea.

Batzuek ziotenez, H ta Euskera Batuaren zale utsak dirala izparringi orretako euskallariak. H'rik gabe bialdutakoak ere Hz. jantzita atera dizkietela bati baiño geiagoeri ere. DEIA'ko arduradunen iritzia naiz bestaldekoa izan, DEIA Euskera Batuaren mendean bizi dana dala.

Arduraduten alderditarrak naiz gipuzkoera osotuan izango zala adierazi, DEIA'ren arnasa beste ostape batetik dabil.

Zubiria'n iritziz, Ugalde'ren berekoikotasunak, iñork uste baiño leenago, ekarri dezakela aldaketa bide bat.

Alkar-izketa luze-luze baten ondoren, erabaki onetara jo genduan: Ze-



ru'ko Argiakoak daukatela DEIA'ren zartagi kirtena, oraingoz, euskera kontuan, beintzat. Batzarkide batek: euskal idazlarien billa dabiltzala, zion, eta ifiorik ez laguntzea litzakela, baztartzeko, biderik motxena.

Dana-dala, dagoeneko, DEIA'ri, darabilen euskerak, irakurle asko oztu diola, ta, erabat baztarrera utzi dutenak ere ba dirala saill bat.

Dana entzun da gero, beste batzarkide batek: emen azaldu diran akats ta giza-bide kaxkar oien goora-beerak DEIA'ko Zuzendari Batzordeari aditzera ematera litzakeela onena. Eta, bere ustetan, —ezagunak zaizkiola zuzendari batzorde orretakoen gogo ta asmoak, euskera kontuan—, Euskeraren bide naastu orien garbiketa egingo ez dutenik ez dula uste.

Besterik gabe, baiñi eta berriz ere, esker-bide oso-osoan, ibilli ditugun lan eta asmoak onarturik, noizpaitean, ipiñi ere ipiñi genion bukaera, egun onetako Kardaberaztarron billerari.

Ziranak dirala, zin dio.

Sukia'tar Joxe Mari'k

Beste dei bat egin-bear izan nuan Azaroa'ren 26'rako. Ta onela dio billera onen agiriak:

Azaroa'ren 26'ean, kardaberaztar-batzuek bildu giñan, Tolosa'ko gure Idazkaritzan. Auek ziran deituak:

On Manuel Lekuona  
Akesolo'tar Lino  
Latiegi'tar Bixente  
Berrondo'tar Pedro  
Sukia'tar Jose Mari  
Elizondo'tar aita Mauri  
Tolosa'tar Felipe  
Elosegi'tar Jesus  
Garmendia'tar Martin  
Albisu'tar Anastasio

Olazar'tar Martin  
Ayerbe'tar Inozenzio  
Labayen'tar Antonio  
Garmendia'tar Juan Jose  
Onaindia'tar Alberto  
Onaindia'tar Xanti  
Arrinda'tar Anastasio  
Dorronsorotar Joakin  
Urkidi'tar Soledad.

Auek biala zuten ezin-etortria:

Ayerbe'tar Inozenzio'k  
Elosegi'tar Jesus'ek  
Arrinda'tar Anastasio'k

Elizondo'tar aita Mauro'k  
Urkidi'tar Soledad'ek.

Azken-Batzar nagusiko Agiria irakurri zigun lenengo Sukia'tar Jose Mari'k. Euskadi'tik-kanpora nenbillan ni, ta ez nuan orregatik, Batzar Nagusi ortara etortzerik izan.

LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA'ren iru aleak zabaldu zizkigun gero Garmendia'tar Juan Jose'k, eta jakingarri asko esan:

1/. Orain-arte argitaratutako liburu guztiak ordainduak zeudela, ta 271.000 pezta gelditzen zirala artean Bazkuna'ren diru-kutxan. Emen ez dirala sartzen noski, On Manuel'en omenaldirako argitaratu-bearreko liburua.

2/. Eta 30'tik-gora izango zirala, liburu ta liburuxka-artean, Bazkunak orain-artean argitaratu zituan aleak. Eta ba'zala zenbait, Bazkunak zera-mazkin 6 urtetarako.

3/. Auek izango zirala, aurtengo Batzar Nagusian, bazkide-artean banatuko ziran liburua: Umandi'ren EUSKAL-BETEKIZUNAK. Shakespea're'ren DRAMAK. Loidi'tar Paben'en TXIRULIRUKA. KARDABERAZ 5.

4/. Bederatziren-bat liburu izango zirala On Manuel'en omenaldi-koak. Idazleak eskeiñi zizkioten iru aleak, eta On Manuel'ek, berak, idatziak besteak. Eta oar au ere egin zuan Garmendia'tar Juan Jose'k: Argitaratu ere egin zirala, "separata" bezela, On Manuel'en LITERATURA ORAL VASCA ta EUSKAL AOZKO LITERATURA.

5/. Diru asko bearko zala, liburu guzti auek argitaratzeko. Irun-bat milloi Juan Jose'k, berak, zionez, baiñan zor ori ordaintzeko ere, asiak zirala bideak urratzen. Eta Latiegi'tar Bixente'ri eman zion itza.

Gazteiz'ko Alkate jaunari egin zion ikustaldia aipatu zigun lenengotik Latiegi'tar Bixente'k, eta Alkate jaunari esan zizkionak:

Gazteiz'en jaiok giñala kardaberaztarrak, eta gazteiztarra zala-ia On Manuel ere. Omenaldi bat egin nai geniokela oneri Euskal-erri osoan, eta bere idaz-lan guztiak argitaratu ortarako. Ta Gazteiz'ko Udal-batzak ezin zezakeela omenaldi onetan esku-artzeke gelditu, ta milloi baten diru-laguntza itxaroten genduala.

Eta galdera au egin ziola orduan alkateak: eta norik izenpetuko du eskabide ori...? Eta onela erantzun ziola berak: Barandiaran'go On Joxemi'ek. Ez al'da naiko...?

—Bai, bai...!

Eta Bazkunaren gora-berak galdetu zizkiola gero, ta arriturik gelditu zala, Shakespeare'ren lan guztiak euskerara-biurturik argitaratu genituela, entzun zuanean, eta baita filme batzuek euskeraz emateko asmoa genduala, jakin zuanean ere.

Ikustaldi berdiña egin ziola Araba'ko Aldundi'ko lendakariari ere, ta izketaldi berdiña izan zuala onekin ere... Onek, ordea, beste au ere esan ziola: eskabide berdiña egiteko Euskadi'ko beste Aldundieri ere: Gipuzko, Bizkai ta Naparro'koari, alegia.



Ari berari eldu zion orduan, Garmendia'tar Juan Jose'k, eta zera esan zigun: Bera ere egon zala Donosti'ko Aurrezki-kutxako Lasarte'tar Nikolas jaunarekin, eta On Manuel'i Donostia'n egingo zitzaion omenaldirako, areto eder bat eskatu ziola, eta baita bide batez, diru-laguntza bat ere... Eta erantzun au jaso zuala Lasarte jaunarengandik: Ez Donostikoak bakarrik, baita Donosti'tik-kanpora ditugun gure beste areto guztiak ere, zuen-esku izango dituzute non-nai, On Manuel'en omenaldirako.

Auetxek dirala bada, oraingoz beintzat, diru-laguntza-eske urratu nai dituzten bideak: Euskadi'ko Aldundi, ta Euskadi'ko Aurrezkikutxak, alegia.

Euskerazko zineari-buruz ere, jardun zuan Garmendia'tar Juan Jose'k ta katalandarrekin asiak zeuzkan artu-emanak adierazi zizkigun. Bear ba'da, ta lenengotik beintzat, Barzelona-bertara jo-bearko zala lan au egitera, ortarako bear diran tresnak emen ez ditugulako gaurkoz beintzat... Eta au ere esan zigun: euskerazko pelikula auetako batzuek beintzat, erderazko azalpen batzuek bearko dituztela nai-ta-ez.

Liburueri-buruz berriz: Irarkolan utzi zituala, azal-paltaz, Umandi'ren NORA BIDEAK izeneko bi liburuak... Eta eskuan zeuzkala Larrañaga'tar Eladi'k euskeratutako Lafontaine'ren alegi guztiak.

Beste zenbait-gauza ere aipatu ziran: Euskal-idazleen billa zebillela DEIA (Latiegi), ta ba'zirala, kardaberaztarren artean, omenaldi bat ondo merezia zuten gizon batzuek ere, ta zergatik etziran omenaldi oiek erazten...? (Garmendia).

Abendua'ren 28 aukeratu zan Batzar Nagusirako, ta Tolosa, Batzar Nagusi ori egiteko toki. Batzorde bat ere eratu zan Batzar Nagusi ori gertatzeko, ta auetxek izan ziran Batzorde ortarako aukeratuak: Arrinda'tar Anastasio, Garmendia'tar Juan Jose, Sukia'tar Jose Mari ta Albisu'tar Anastasio.

Abendua'ren 5'ean bildu giñan Azkoiti'n Batzordeko laurok, ta dei au zabaldu genduan bertatik:

Agur: Kardarez-Bazkunaren urrezko-etzaiak zirala-ta, orain iru urte asi giñan esaten, omenaldi aundi bat egin bear geniola gure On Manuel'i. Ta ez genduan ortarako, bere idaz-lan guztiak argitaratzea baiño gauza edarragorik ikusten.

Zerbait-geiago ere, nai genduan ordea. On Manuel'en idaz-lanak atari eder bat bear zuten. Eta atari ori, On Manuel maite zuten era-guztietako idazleak gertatuko ziguten ederkien. Eta alaxe gertatu digute ere. Ta or dauzkagu gaur, idazle oien lanekin osatutako iru liburu eder. Eta bereala izango ditugu On Manuel-berarenak ere...! Eldu da ba, Euskadi'k zor dion omenaldia egiteko ordua...!

Kardaberaztarrok zor diogu geienbat ordea, ta orregatik erabaki degu ere, kardaberaztarrok egin bear diogula lenengo omenaldia, gure sortzaille ta lendakaria bera degunez.

Orregatik eta gure aurtengo BATZAR NAGUSIA orixe izango da: kardaberaztarrok, kardaberaztar bezela, eskeintzen diogun omenaldia. Inñork ez dezala bada, uts egin...!

Eta ona, orain, emen, egun ortarako gertatu degun egitaraua:

- 1/. BAZUNAREN KONDAIRARI BURUZ esango digu zerbait idazkariak.
- 2/. ON MANUEL'I BURUZ Barandiaran'go On Joxemiel'ek.
- 3/. ON MANUEL EUSKALTZAIN izango da aita Lino Akesolo'ren lana.
- 4/. IDAZLE ESKOLA TA ON MANUEL Berrondo'tar Pedro'rena.
- 5/. ON MANUEL AOZKO LITERATURAREN ZUZPERTZAILE TA LITURGI EUSKERAZLEEN BURU BEZELA agertuko digu Gaztañaga'tar Jesus'ek.
- 6/. ERTI-LANEN ZELATARI BEZELA Agirrebaltzategi'tar Jose Mari'k.
- 7/. ETA ON MANUEL'EN OMENALDI-LIBURUEN GORA-BERAK emango dizkigu azkenean Elozegi'tar Jesus'ek.

Baiñan ez ikaratu, lagun. Izlari bakoitzari ez bait-zaio ordulaurden bat besterik emango.

Ondo dakigu, ez ditugula emen On Manuel'en duintasun guztiak ikutzen, baiñan ez degu aaztu-bear ere, lagun-arte omenaldi bat degula gaurko au, ta lagun-arte omenaldi legeak ez dirala ain-estuak izaten.

Tolosa'ko Iparragirre zine-aretoan ikusi nai zaitugu bada, il onen 28'an eta goizeko 11'tan. eta nola ez...? Egun ortan alkarrekin bazkalduko degu geienok, On Manuel mai-buru degularik.

Abendua'ren 28'rarte Jauna lagun.

Eta abendua'ren 28'an, eskeiñi genion gure omenaldia Lekuona'tar On Manuel'eri.

Omenaldi au, kardaberaztarrok eskeiñia zan, eta Tolosa'ko zine-aretoan eskeiñi genion ere.

200-dik-gora izango ziran bertan bildu ziranak.

Gure gotzai Argaya'tar Jazinto'k artu zuan mai-burua. On Manuel bera zeukan albo batean, eta Barandiaran'go On Joxemiel bestean. Eta aita Mauro'k, Akesolo'tar Lino'k, Gaztañaga'tar Jesus'ek, Agirrebaltzategi'tar Jose Mari'k, Berrondo'tar Pedro'k eta Albisu'tar Anastasio'k osatzen zuten maia.

Albisu'tar Anastasio, idazkari bezela, mintzatu zan lenengoz, Barandiaran'go On Joxemiel bigarrenegoz, Berrondo'tar Pedro irugarrenegoz, Ake-

solo'tar Lino aita laugarrenoz, Gaztañaga'tar Jesus bosgarrenoz, Agirrebaltzategi'tar Jose Mari seigarrenoz, eta Elozegi'tar Jesus zazpigarrenoz.

Argaya'tar Jazinto'k, Donosti'ko Gotzai Jaunak, artu zuan gero itza, ta "APAIZ BEZELA" aztertu zuan On Manuel.

Eta onek-berak eman zion ere, kardaberaztarrok On Manuel'eri eskeintzen genion zillarrezko oroigarria.

On Manuel'enak izan ziran, noski, azken itzak, eskerrak emanaz, alegia. Ta au esan zigun: etzala omenaldi-zale, baiñan atsegin zitzaiola benetan gure omenaldia, gezurrik-gabekoa zalako.

Eta Tolosa'ko jatetxe batean bildu giñan ia-danok berriro, eguardiko ordu-bietan.

Omenaldiko itzaldi batzuek KARDABERAZ onetan irakurri aal'izango dituzu, baiñan ez danak: buruz jardun bait-zuten batzuek.

Albisu'tar Anastasio'k  
Idazkariak.

## 2.

### Omenaldian irakurri ziran lanak



Jaun-andreak, ongi-etorriak kardaberaztarrok On Manuel'i eskeiñi nai diogun omenaldi onetara...!

Mundu onek, gauza-bitxi asko izan oi ditu, ta ona-emen oietako bat: Kardaberaz-Bazkuna sortu zanean, nik ez nituan 9 urte besterik, eta Lazkau'n bizi nintzan, nere bizitzak zer ekarriko zidan, ez nakiala. Ta emen naukazute gaur Kardaberaz-Bazkunaren kondaira azaldu naiean...

18 urte zeramazkin Bazkunak, gu kardaberaztar egin giñanean. 1932-garren urtea zan. Eta ipui bat asten dan bezelaxe, asi dezakegu guk ere, gure edestitxo au.

Ba'zan orduan, Gazteiz'ko Apaizgaitegi berrian, apaiz gazte bat, bere eskolak emateaz gaiñera, bertako disziplinaren ardura zuana. Zorrotza zan; alajaña!, iñor zorrotzik ba'zan. Eta bere itzala urruti-batean naikoa zan, apaizgairik biurriena, santurik aundienean biurtzeko une batzuetarako bederik. Etzion iñori ezer esango...! Zertarako...? Bere aurpegi artan irakurtzen baitgenduan danok, esan nai zigun guztia. Ta eskerrak orri zuan, irakasle ta ikasle-artean zeukan nortasuna. Ta bere nortasun orri zor dio, bear ba'da, Kardaberaz-Bazkunak ere, bere hizia, ez bait-zeukaten euskerak-eta geiegiko girorik apaizgaitegiko goi-aldeetan...

Baiñan gure gizon onek ba'zuan beste aurpegi bat ere. Ta irriparez artzen zuan gutako-bat bere gelan, eta irriparez eseritzen zan ere gure artean, oraintxe bezelaxe, kardaberaztarrok billeraren-bat genduanean...

Ezin ukatuko dezu, On Manuel, kardaberaztarrok izan giñela zure mai-teak apaizgaitegian...!

Astean-bein izan oi zan billera: igande-goizetan, zuzen esateko eta besteak jolasean ari ziran bitartean. Ez bait-zuan euskerak beste ordurik merezi...!

Bi lantxo irakurtzen ziran billera bakoitzean, eta zeazki aztertuak izaten ziran gero. Ta orduan ikasi genduan, (ikastekoa bait-zan), joskerak eta galde-gaiak euskeran zeukaten garrantzia...!

Urte bete egin genduan onela. Ta 1933-garren urtean amabosteko talde bat bildu giñan, On Manuel'en baimenarekin noski, zerbait-geiago egin naiean. Arizmendiarieta'tar Joxe Mari aukeratu genduan buru. Ta besteak beste, bi baldintza auek ere ipiñi genituen gure araudian: igandeko billeraetara joatekoa bata, ta nota onak ateratzekoa bestea gure irakasleak euskara-aitzakirik izan ez zezaten.

Orduan asi giñan euskerazko antzerki batzuek antzezten, ta KARDABERAZ aldizkaria argitaratzen ere. Gelatinan lenengotik, eta multikopian gero. Arizmendiarieta'k egiten zituan azal eta barruko marrazkiak, eta



berak egiña degu ere, gaur gure ikurtzat ibiltzen degun sellua ere... Eta ba'dakit aldizkariaren-ale oietako bat, On Manuel'i eskeiñia izan zala. Ta Mendizabal'dar Alejandro'k idatzi zuala eskeintza, ta onela bukatzen zuala ere: Zuri zor guk. Tori...!

Eta zillegi bekit emen, beste gizon aundi baten aipamena egitea ere. "Historia de las Religiones" erakusten zigun orduan Barandiaran'go On Joxemiel'ek. Ez genduan textorik, ta idatzi bear izaten genituen On Joxemiel'en azalpenak. Gure-artean itz egin, eta eskabide au egin genion Kardaberaz-taldekoak: ea uzten zigun, berak agintzen zizkigun lantxo aiek, euskeraz egiten...?

Zer-besterik nai ote zuan On Joxemiel'ek...!

Baiñan sortu zan zoritxarrez, 1936-garrengo gerratea, ta Bergara'ko apaizgaitegian bildu giñanean berriro, an etzan agertu On Manuel'ik ez-eta On Joxemiel'ik ere. Erbestetuak izan bait-ziran biak...! Eta au izan zan Bergara'ko guda-deadarra: Delenda est Cartago...! Eta barren-barrendik moztu zuten Kardaberaz-Bazkunak jasotako zugaitza...!

Ez alperrik...! Ondo errotuak eta bizi-bizirik gelditu bait-ziran gure biotzetan zugaitz arren sustraiak...!

Nik ez dakit, zenbait omenaldi izan dituan On Manuel'ek bere bizi-tzan. Ez noski, jaso dituan ostikada aifia...! Baiñan gogoan det bein Oiar-tzun'en egin zioten omenaldia.

Kardaberaztar-asko bildu giñan bertan. Eta bazkaria azkentzean galde-ra au egin nion On Manuel'i:

—Eta guk, berriro ere, ibillian ipiñiko ba'genduke Kardaberaz-Bazku-na, izango al'ziñake zu, leen-bezela, gure buru...?

—Bai, eta poz-pozik gaiñera, erantzun zidan berak.

\* \* \*

Eta Agustin Kardaberaz aita-berak piztu?eraziko zuan kimu berri bat, gure biotzetan ain-erroturik eta ain-bizirik irauten zuten sustrai aietan...!

1970-garren urtea zan. Aita Kardaberaz il-zaneko berreungarren urtea ain-zuzen. Eta aundikiro ospatu nai izan zan gertakizun au. Eta Donosti'ko Gotzaitetik billera artan, kardaberaztar bat, kardaberaztar bezela: Arrinda'tar Anastasio.

—Eta guk, zer-egin zeikiagu aita Kardaberaz'en omenez...?

—Guk...? Beste iñork egin-ezin dezakeana... Kardaberaz-Bazkuna ibi-llian ipiñi berriro...!

Eta Azaroa'ren 5'ean egin genduan, Deba'n, lenengo billera; Azaroa'ren 22'an, Donosti'n, bigarrena; eta 1971-garren urteko Otsailla'ren 18'an, Loiola'n, erakunde-eguna. Etzan Bazkun berri bat, leengoak bait-giñan an-bildu giñan geientsuenak...!

Izan ere, eta orain aitortu dezakegu ifungo zalantzariñ-gabe, Kar-

daberaz Bazkunak ez duala etenik-izan 1924-garren urtetik gaurko-eguna arteraño: sortu zan egunetik, orain-arteraño.

Eta esandakoak ez ba'lira ortarako naiko proba, or dituzute, agerbide-tzat ere, "klandestinidade luze ortan idatzitako" eta gure Bazkunak ain-mai-teki argitaratu dituan zenbait liburu.

Euskera, aberria bait-da euskaldunontzat, eta aberriari ezin lezaioke iñork uko egin.

Eta onekin bukatu nai nuke; geroztiko Kardaberaz-Bazkunaren bizi-tza oso-ezaguna bait-da zuen-guztiontzako:

\* \* \*

1976-garren urteko Garagarrilla'ren 21'ean, Azkoiti'n geunden bil-durik, eta galdera batzuek bialdu zizkiguten SIADECO'koak, gure erantzu-nak jaso-naiean.

Eta galdera auetako batek onela zion: eta zuek, kardaberaztarak, zer zerate, eskubitar, ezkertiar ala erdiko...!

Eta asko pentsatzeke, onela erantzun genien guk: gu, kardaberaztar-rok, ez gera abertzale baizik...!

Eta ori, zuri esker batez-ere On Manuel, eta baita zuri ere, On Joxe-miel.

Eta besterik-gabe, eman dezaiodan txanda, gorputzez ez ba'da ere, Euskadi'n degun gizonik-aundienari: Aurrera On Joxemial...

Albisu'tar Anastasio'k  
Kardaberaz-Bazkunaren Idazkariak

1977 - Abendua.

Kardaberaz'tar guztieri, lendakari ta bazkideeri, AGUR:

Ez dakit sinistuko didazuten, baiña alako miñ-zio bat artzen dut gai au ukitzen dudan bakoitzean. Bi sentimentu igotzen zaizkit biotzetik gora: miñezkoa bata, gure idazle-eskola dalakoa gogoratzean, eta pozezkoa bes-tea, gure Maisua ikustean. Orixen, miña ta poza, biziaren gazi-geza, mundu ontako gauze geienetan bezela.

Eta labur-labur esan dezadan nere esatekoa:

—Orain dala zazpi urte, udazken artan, jaio zan gure eskola. Izan zi-ran bizpauru gertaera sorrerazi zutenak:

a) Aita Kardaberaz'en eriotzaren berreungarren urte-muga. Omenal-diren bat egin nai, eta beste zenbait eskeintzaen artean... Kardaberaz Baz-kuna berpizteko asmoa artu.



b) Euskaltzaindiko gertaerak; gertaerak esan dut, eta bere ortan utzi dezadan esana, gaiak urrutiegi eramango gñuzke-ta noski. Au bakarrik aipatuko dut: Euskaltzain-talde berriak, zuzendaritza-edo zeramatenek... erabakiak zorrotzegi, eta erabaki-gabeak eta erabaki-naiekoak eta erabaki-ustekoak... beroegi eta zitalegi artzen eta ezartzen zituztela. Danetatik baitzan, izan ere. Eta gure biotzak lantoki goxoagoa amets, eta gure jatorrizko euskera maite.

c) Gure gizarteko, Euskalerriko, bizi-miñak gero-eta biziago eta miñago. Gertaizun bat bakarria aipatuko dut giro aren agergarri: Burgos'ko Epaia, alde zurretik zalantza bizian jendea euki zuana eta, azkenik, orain zazpi urte, abenduan burutu zana.

Giro artan sortu zan, edo-ta giro ark sorrerazi zuan Eskola. Aita Kardaberaz maisu ta gidari. Jatorrizko euskerari bere jatortasun egokian eutsi nai eta gure gizarteko berri-miñetan gure euskal-arnasa indartu.

Eta, jakina, ao batez, Don Manuel Maisu! Gerra-aurreko Bazkunak ala izan zualako, guraso ta maisu, eta berpiztuari ere alaxen zegokiolako, eta naiz gizarte-auzitarako eta naiz euskera-bidetarako aukeran aukerakoa zalako.

\* \* \*

—Jaio zan eskola. Jaiotza pozgarria noski. Alai ta gogotsu. Baiña laster ziran azi-eziñak eta auleriak. Ez da izan (izango ote?) jaio-aurreko eta jaio-berritako maite-amets aiek uste zuten bezain eder, lirain eta indartsu. Osasun eskasa geienean. Zergatik? Amaika aldiz egindako galdera. Erantzun osorik eziñ noski.

—Gureak ez bezelako kezka zirala jende-arteko kezka, eta kezka oietatik at gelditzen giñala gu.

—Zaar-kutsua zeriola gure taldeak, eta zaar-kutsurik ez zuala jendeak, gazte-jendeak nai.

—Guk (zeiñek ez baiña jakin) berri-miñik ez omen, aurrera-naierarik ezer gutxi noski, guk leenari eutsi-nai omen... eta era ontako esakerak dantzan eta dantzak bere ingurutxo... orra or gure eskola ingurutxo ortan kokildua ta lotsatua.

Urte batzuk ba dira, guk Don J. M. Barandiaran jaunari galde au egin geniola:

—Gaurko jende-auzitan, politik-gaietan t. a. sartu bear al dugu?

—Sartzea ala ez sartzea... ori ez dago gure esku, nai-ta nai-ez sartuak gaude, sartuak gauzka. Baiña gure lanbideak... beeko mailla ortatik goragoko mailla batean izan bear du.

—Galde auk baiña minkatzagorik ere egin izan diogu gure buruari, naiz-ta isilik gorde, iñori esateko beldurak:

—Gure euskerari zor diogun maitasunik ba al diogu?

—Gaur, biar, etzi edo etzidamu... bizi-izkuntza edo izkuntza bizia izango ote gure euskera?

—Bizi-bearrak bere eguneroko oraketan ez ote digu euskera baztertuko? eta baztertu-ta iltzen utziko?

Era ontako kezka eta zalantzak ez ote digute euskal-gogoia epeltzen, oztutzen eta... bere ortan uzten?

Gai auk eta antzekoak aipatu izan dizkiogu gure Don Manuel'i eta bein baiña geiagotan, irrifar egiñaz, bere irrifar ain berea egiñaz, isilik erantzun izan digu. Eta ezer ez esanagatik, bai aatikan guk erantzuna... irrifarrak zekarrena jasotzen: —Ez dakizute nondik-norako gogo-arnasetan zabilatzaten; ez dakizute... Olakoxea bait-da euskal-ekintza... zailla, leor-antzekoa, apar gutxi ateratzen duana, saririk gutxiago eta ikasle-zurrundillorik ain gutxi! Ez dakizute... baiña jarrai!

\* \* \*

Aipamen laburra egin dut. Aipa nezazkean, bai noski, Maisuaren irakatsaldiak, gai-emanak, ainbestek eta ain gogoz irakurri izan dituzten Don Manuel'en eman-aldiak, izkuntza-gaietan egindako eman-aldiak. Mamitsuak argiak, burura ezik biotzera ere ain garbi ta goxo sartzen diranak. Maisu jatorraren doaiak ageri nonbait: "Delectando docere" esan oi da, eta "docere delectando"... atsegiñ emanaz erakutsi alegia eta erakutsiaz atsegin eman".

Aipa nezazken doai auk. Baiña gure esker ona agertzeko ontan, beste doai zaillago ori bereizi naiago izan dut. Lan zaillaren eraman ona! Lana, eta lanak berekin du nekea, eta lan zailla, eguraldi txarretan maiz eta iñoren esker gutxiarekin beti. Lan zailla eta eraman onean egiña!

Gaurko ontan beifipein... Eskerrik asko Don Manuel!!

Berrondo

## Lekuona euskaltzain

Lekuona euskaltzainaren bizia euskaltzaindiaren biziarekin batera dabil.

Euskaltzaindia sortu zanetik arako euskaltzain degu.

Iñor gutxi da gaur antzekorik, Euskaltzaindiaren sortzaille eta aren leenbiziko egunen lekuko danik. Gizon zoriontsu otatik iruk, beintzat, omenaldia izan dute eta euskal-makilla bat ere bai atsegin-sari. Auen zo-



rionkide izan arren, euskaltzainburu ere izan dan arren, Lekuonak ez du izan, guk dakigula, olako omenaldirik eta ez du omenezko makillarik jaso. Bestelakorik jaso ez balu...!

#### LEKUONA, EUSKALTZAIN URGAZLE. SARI ETA ZIRI

Oiñatiko batzarraren ondoren eta aren ondorio bezela, bertatik asi zan Euskaltzaindia izango zan erakundea leenbiziko urratsak egiten. Urratsok jakiñak dira: Oiñatin izendatutako lau nagusiek (Azkue, Urkixo, Kanpion eta Eleizalde jaunek) beste zortziren laguntza artuko zuten laster; euskal-idazleen indarrak, Euskal-aldizkarien ordezkariak izendatuak ziran, Eusko-Ikaskuntzaren babesean.

Amabi euskaltzain osoen esku gelditu zan gero urrengo izendapenak edo autespenak egitea, amabien laguntzailleak billatzea. Zenbat? Euskaltzain osoentzat *numerus clausus* antzeko bat erabaki zala dirudi, amabitik gora ez ziran izango. Laguntzailleentzat, urgazleentzat ez degu zenbaki erabakirik ikusten. Euskalki guztietakoak izango ziran, ori bai; Gipuzkoatik, zortzi. Eta zortzi giputz auen artean, Manuel Lekuona gaztea izan zan izendatua, 1919-n, urriaren 26-n, euskaltzain nagusien irugarren batzarraldian, ain zuzen.

Azkue zaarrak, euskaltzainburu egin zutenean, ordurartean egiñak zeuzkan lanen saritzat artu zuen bere izendapena, eta aurrerantzean egitekoen ziritzat. Urgazleen izendapen-agerietarako izkuntza berdintsua asmatu zuten; artean egindako lanen sari izango zan izendapena eta andik aurrera egitekoen ziri eta kiñagarri.

Zer sariztatzen zioten Lekuona gazteari, euskaltzain urgazle egin zutenean? Ez zan, ez, lanik egin gabea euskal-alorrean. Argitaratua zeukan lan sakon samar bat, Gazteizko apaizgaitegiko ikastaroaren asierako itzaldia, euskal-bertsoen neurriak argi berritan aztertzen zituen. Ordurako sari bat baiño geiago irabazia ere bazan, gaiñera, euskal-idazleen sariketetan. Lekuona jaunaren esku-ikutua zekarren Gazteizko Eliz-barrutiko Kristau-Ikaskide berriak ere. Bera zan Gazteizko Apaizgaitegian euskal-irakasle eta onek ere nortasuna ematen zion. Bazan, bai, norbait eta ba zuen zer sariztatu Lekuona gazteak.

Gerorako ziririk? Ez zuen bear ziri berririk asia zeukan euskal-arloan aurrera jarraitzeko. Euskal-aldizkariak, Eliz-Barrutikoek, *Gure Mixiolariak*, ezagutuko dute ark egindako lanen fruturik, urtez urte. Eta Euskaltzaindian? Garai artan, Euskaltzaindiaren jokabidea ez zan gero ikusi degunaren antzekoa. Bi eguneko lanbillerak izaten zituzten illero; euskaltzain osoen billerak ziran, batez ere, eta nekez uts egingo zuten ortan. Urgazlerik oso gutxi joaten zan batzarretara. Baiña euskaltzain oso izan naiz urgazle izan, aurretiaz biali bear zuen bakoitzak batzarrean irakurri nai zuenaren

kopia, beste batzarrekoen artean banatzeko. Onela jakiñaren gaiñean zeuden guztiak eta nai zuenak bere iritzia edo erantzuna eman zezakean. Are geiago, Lafitte jaunak iñoiz esan duenez, urgazleek ere lantxoren bat irakurri bear zuten, sarrera bezela edo.

Ola egin zuela dirudi Lekuona Jaunak ere bein, 1924-n, batzar-ageri batek esaten digunez. Ormaetxea jaunak, beste urgazle batek, erantzun zion, eta irakurritako lana RIEV aldizkarian argitaratzea erabaki zuten.

Batzarretara agertzerik geienak Lekuonak udako edo Eguberrietako oporraldietan egiten zituen. Orrela 1936-g urterarte.

#### EZ SARI ETA EZ ZIRI

Urte ortan Euskaltzaindiaren eta euskaltzainen lanak eten luze gogorra izan bear zuen. Zorigaiztoko ixillaldi oso baten ondoren, gutxi batzuk asi ziran, noizbait burua jasotzen, Jupiterrek izututako igelak bezela. Oso gutxi ziran; Azkue ta Urkixo jaunen inguruan, lau edo bost euskaltzain, oso eta urgazle. Non billatuko zuten beste batzarkiderik? Eta nori saririk eskañi eta nori ziririk egin? Ez da aukera aundirik inguruan. Eta lau edo bost besterik biltzen ez diranean, ez dago araua betetzeko erarik ere. Nola osatu zazpi autarki?

Orrela, araudia alde batera utzita, or sortzen dira, oso edo laguntzaille, euskaltzain berriak: Joan Irigoien, Eladio Esparza, Federiko Krutwig, Seminario Rojas... Azkenengo onek ospetsu samar egin zuen bere sarrera Bizkaiko Diputazioan. Orduko batzar-lan asko illunpetan gelditu da. Baiña nondik atera du norbaitek Krutwig jaunak sartu zuela euskera Euskaltzaindian, an artean erdera zala aren batzarretan nagusi? Ori esan duenak jainko txipiak non-nañ ikusteko erreztasunik ba du, bear bada: baiña Euskaltzaindiaren batzar-ageriak ez ditu irakurri. Ain zuzen, Krutwig orrek erderaz idatzita biali zituen, urtetan barna, bere lan guztiak Euskaltzaindiaren batzarretara. Ogei urte leenago aren batzarretan ez zan erdera geiago erabilli Krutwig jaunaren egunetan baiña. Bakoitzari berea, ori da zuzenbidea.

#### LEKUONA, EUSKALTZAIN OSO

Ixil-garai artan, Lekuonari ere ixil-lana egokitu zitzaion. Baiña euskerrari ateari erdi zabaltzen asi zaizkionean, or agertzen zaigu sallerak kantari, 1948-n, *Jesus Aurraren Bizitza-rekin*, eta 1949-n, *Gerrateko nere amabi kanta*-ekin. Urrengo urtean, euskaltzain oso izendatzen dute. Bazekien berak euskaltzainen legeen berri (orduan edozeiñek bezela), eta laster, 1951'n, VI-n 23-n, sarrera egingo du. Iruña aukeratu zuen ortarako. Oiartzuar ja-



tor oni, euskeraren aldetik eta kondairaren aldetik, Iruñiara zijoazkion burua eta biotza.

Ogeitamar urte leenago, Euskaltzaindiaren jaio-berritan, euskaltzain urgazle egin zutena, orain ark bigarren jaiotzaldia bezelakoa duenean, euskaltzaindia bigarren bizialdi batean sartzen eta indar berriak artzen. Ez bakarrik illen utsuneak bete, euskaltzain berriak ere izendatzen dira, leengo amabiez gainera. Batzuk urgazle izatetik igoak dira, beste batzuk zuzen zuzenean artu dute gorengo mailla: Gorostiaga, Villasante, Mitxelena, Ormaetxea eta abar. Bear bada, batzuentzat sari izan da, beste batzuentzat ziri baizik ez.

Euskaltzainiak ugaritzearekin beste gertakaririk ere azalduko da, berri samarra: euskaltzain osoak geiago izan arren, ugaritze ori billeretan ez da ain argi ikusten. Leen urgazlerik gutxi batzarreratzen bazan, orain urgazleak osoak baiño geiago.

Emendik oker nabarmen au ere gertatzen da. Autarkitara zerbait erabaki bear danean, leengo legeak dirau oraindiño: zazpik osatzen dute geien-go. Leen, amabi euskaltzain oso ziranean, oso zuzenbidezko legea eta jokabidea zan ori; guztien erdia eta bat geiago gertatzen zan. Orain zazpik eskubide osoa dute beste amabosti edo geiagori beren uztarpea ezartzeko. Beste okerrik ere sortuko da, lege-joko berri bat asmatzen danean: *poderioz* boto ematea. Oker au lege-gizonek asmatua izan da, noski, ez akademi-gizonen asmakizuna. Akademiek beren barrukoei lege zorrotza jarri izan diete (euskaltzaindiak ere bai, asieratik): billeretara ez utsik egitea. Uts egiten duenak here eskubideak galtzen ditu, ogenaren arau. Orain Euskaltzaindiaren billeretara uts egiten duenak ez du ogenik, bai bulda, egun baterako, boto-egunerako. Orrela, karguak berritzean, itxuraz, euskaltzain oso guztiak gerta ditezke batzarrean; itxuraz, botoz, ez egiaz. Jokabide au ez da, ez, oso akademikoa. Eta barnean alderdikeriak sortu ezker, Euskaltzaindian sortu diran bezela, ez da errez asmatzen nolako istilluak etorri litezken.

#### LEKUONA, EUSKALTZAINBURU

Berriz ere, Euskaltzaindiaren egunik gogoangarrienetakoetan, Euskaltzaintzan urrengo urrats bat egiten du Oiarzungo seme jator azkar onek. Euskaltzaindiaren urrezko ezteiak, sortu zanetik berrogeita amargarren urtea urbil da eta Lekuona euskaltzainburu egiten dute. Ez zan, orraitio, dana jai-usaia inguruan, ez urbiltzekorik ere. Aurreko urteetatik asita, naiko zatarturik, gaizkiturik, dago giroa, barnetik eta kanpotik. Leengo alderdikeriak gainera, euskera *batua* dalakoaren auzia atera da erdira. Ostots-giroa dago.

Ba dira lau urte azken-epe estu bat jarri nai izan ziola norbaitek Euskaltzaindiari, batasuna egiteko. Onez ez bazan, indarrez edo egin bear zan

eskatzen zan batasun ori. Ortarako, noiz egokiera oberik, urrezko ezteiak baiño?

Auzi onen inguruan ez dago xeetasunik eman bearrik. Ez ziran urte gozoak izan, 1967-tik 1970-rakoak. Lekuona izan zuten buru urrezko ezteiaietako batzar nagusiek Iruñen, Gazteizen, Bilbon, Donostian eta Baionan. Lekuona buru zala egin zan Oiñatiko batasun-batzarra. Luzeegi joko genuke auzi eta istillu guzien berri eman bear ba genu. Zer esango, eta artaz Lekuona berari mintzaraztea erabaki det, berak eman zuen "Nere kontu ematea" emen aldatuz. Euskaltzaindiak ogen egin dio bere buru izan zue-nari, kontu emate ori bere aldizkarian ez argitaratzeaz. Arrera ohea merezi zuen. Mintza bekigu emen berriz Lekuona bera; mintza bekigu eta mintza bekie:

"Euskaltzainok: Iru urte dira, Euskaltzainburu naizela. Bitarte ortan zenbait gorabera izan degu euskeraren problematikan. Egoki izango da, gorabera oiei buruz, nik nere deskargutxo ematea, zuen aurrean.

Urte bi dira, Bilbaon egindako urtarrilleko batzarrean, Euskaltzaindiaren berrogeitamar urte betetzearen gogoangarri zerbait berezi egitea erabaki zala. Asmo bat, batez ere, artu genduan danok orduan: urtearen barruan euskeraren batasunari buruz zerbait eratztea.

Gauza garrantzitsua zala esan zan; baiñan baita kontuz egin bearrekoa ere, batasun-eratzte ori. Gogoan izango dezute noski guztiok batzar artan bertan Arrue jaunak esan zuana: Euskaldunok, olako gauzetan "anar-kixta xamarra" gerala. Batasuna, norbaitek proposatzen zuan bezela, *por decreto* egiten asten baginñan, orixe naikoa izango zala jendea kontra jarzete.

Xenpelar bertsolariak esan zuana:

"Gaitzak gerala umiltzen,  
eta pakean unitzen".

Neronek ere gauza bera esan nai izan nuan, Arantzazuko Batzarreko sarrera-itzaldian *Oñeztarren eta Ganboarren* arraixkoa aipatu nuanean.

Arao ontan arraixko ori bazartzea izan da nere ardurarik aundiena, ondotik onuzko urte t'erdi ontan. *Por decreto* eta diktadoreki gauzak egitea galerazi: orixe izan da nere ardura. Ez dakit logratu dedan.

Arantzazuko batzarrak bukatu bezain laister, batzuren batzuek izugarriko pozez asi ziran arago. Mitxelena jaunaren erakutsien konklusioak mundu guziari ezarri bearrez. Ezartze ori, eta batez ere presaka ezartzea, orixe da, ezer bada-ta, diktadura. Ori iñolaz ere galeazi bear zan. Nik ortara jo det, batez ere, nere alegin guztian. Presaka ez da ezer onik egiten auzi auetan. Mitxelena jaunaren iritziez gainera, beste iritzi geiago ere entzun bearra zegon. Ortarako beta artu bear da. Ponpeu Fabrak katalanaren batasuna egiteko, amar urteko epea eman zuan, erriari kontsulta egiteko, erriaren plebiszito praktikoa bat lortzeko.



Gure artean, esan det, alderdi batekoak bereala asi ziran beren aldeko lanean. Eta berak beren aldetik asiaz gainera, Euskaltzaindiak Arantzazuko konklusio aiek guztioi ezartzea, guztiok Euskaltzaindiak ortara heartzea nai zuten. Nere iritzia gai ontan bestelakoa izan da. Ponpeu Fabrak bezela itxedon, erriaren postura ikusi arte: diktadurak baztartu: utzi guztioi itz egiten.

Ni bildur nintzan bezela, Arantzazun bertan azaldu ziran bi alderdi: *Oñez* eta *Ganboa*. Etzan arritzeko, an gauzak planteatu ziran bezela. Gai garratzak erabilli ziran: garratzxoak, alderdirik ez sortzeko. Aditzaren arazoa baztartu egin zan, gai zailtxoa zala-ta; baiñan ori bezain zaila dan H-ren gaia ukitu zan, gai teoriaran errega Mitxelena baten eskuetarako, baiñan praktikan zailtasun aundiak dituana: gutxienez bi gizaldi —berreun urte— Bizkaian eta Gipuzkoan erabilli ez dan elementu bat, orain, bat-batean, gabetik goizera ezartzea... Gauza zaila benetan... Eta bereala etorri zan ni bildurtzen nindua: *Oñaz* eta *Ganboa*. Guztiok zerate testigu. An bertan. Eta gero, ondoren, zer esanik ez.

Orain galdera bat: Zer egin bear zuan Euskaltzaindiak arazo ta ereti ortan, bidagurutz ortan? Batzuen alde eta besteen kontra bere burua azaldu?

Nere iritzian, Euskaltzaindiak *neutral* izan bear du olako auzietan; eta ortara saiatu naiz ni alegin guztian: neutralidade oni eusten.

Euskaltzaindiaren egitekoa auzi ontan guztiontzako alkar-izketa giro paketsu bat. Auzi zalla dan ezker, utzi guztioi itz egiten, entzun guztiona.

Arantzazun alderdi baten itza entzun zan, batez ere. Beste alderdiarena ere entzun bearra zegon. Eta ortarako ekilibrio on bat izateko, bear dan beta artu. Luzatu bear bada, luzatu. Gauzak diktadoreki egin, ez. Ori izan da, diot berriz ere, ardura urte t'erdia ontan.

Batzuren Batzuek Euskaltzaindiak bereala, zirt-edo-zart, erabakitzea naiko zuten. Alde batetik eta bestetik, Ponpeu Fabrak, leen ere esan det eta, Katalunian amar urteko epea emen zuan. Eta amar urteren buruan balantze bat egin, erriak zertara jotzen duan.

Bide luzea dala? Sobra dakigu. Baiñan gauzak diran bezela artu bearra dago. Bereala eta *por decreto* gauzak egiten asteak ba dakigu zer dakarren, Xenpelarrena: "Gaitzak gerala umiltzen"...

Arrue jaunak esan zuan. Baiñan ez Arrue jaunak bakarrik; Mitxelena jaunak berak ere, bi edo iru aldiz, gauza bera esan zigun. Ez bera, ez Euskaltzaindia, ez dala nor, bere konklusioak iñori ezartzeko... Berak ere etzuan nai diktadurarik. Ezarri, ez. Arau batzuk eman, ori bai. A. Villasantek itz bitan esan zuana: Mitxelena jaunaren ikasgaiak *valor normativo* dutela, ez *valor preceptivo*rik. Gu ez gera nor gai ontan agintzeko. Euskeraren jaun da jabe erria da, ez gu. Guk ezin dezakegu agindu. Bide bat erakutsi, bai. Baiñan guk erakutsitako bide ori erriak jarraitu bear du. Eta jarraitzen duan ala ez, praktikan ikusten da.

Orain praktikari buruz zer? Urte t'erdiko praktikari buruz, zer?

Nere itzak ez dezala iñor ofendi. Baiñan esan bearra dago batasuna egin naiean asi gainan. Nik uste, ez genduala bide ona aukeratu. Ortografi-gaia ukitzean, H-ren auzia ipiñi genduan mai-gainean. Zoritxarrean. Batasuna sortu bearrean, batasuna sortu zaigu. Eta nolako batasuna! Bitasun psikologikoa, asarrea, burruka...

Urte t'erdiko esperientziak beste gauza bat ere erakutsi du: ez H-ren arraixkutásuna, H-ren zailtasuna.

Batasunak bi gauza eskatzen ditu batez ere: Oñarri zabala eta denbora, denbora luzea. Ponpeu Fabraren pazientzia ta egoarria.

Orra nere iritzia itz gutxitan.

Eta nere iru urte oietako deskargoa.

Kontu-emate au eman ondoren, urte erdi jarraitu zuen euskaltzainburu. Baiña azpi-lan zitala egin zioten eta ondorengo izendatu ziotenean, berriz izan zuen itz egin bearra batzar batean Arantzazuko erabakiei buruz, baikik-eta ez zutela agindu-zorrotzik ezartzen.

Kontu-emate onek naiko argi erakutsi du garai artako giroa. Baiña ontan Lekuonaren jokabidea egiazko akademikoarena izan zala esan bearra dago. Beste batzuk Oñez-Ganboatarren giroak ito zituen eta badaezpadako bideak artzera eramán eta beren bide ori besteei ezartzera.

Gauza asko aaztu ziran ordu artan: euskaltzaindiak aurretiaz jarritako arauak, eta Arantzazuko erabakiaren itzak berak ere bai. Euskaltzaindiak aurretiaz erabakita zeukan ez zala iñolaz ere arau edo norma estu zorrotzik artuko; gauza askotan, puntu askotan bi edo iru bide aukeran utziko zirala. Ori zan akademi-legea (olako lege aukera bi edo irukorik badu Madrillgo Akademiak ere, aren iztegian ikusi daitekenez). Aaztu egin zan bide ori.

Arantzazuko erabakien auzia, berriz, ez ote da aurkeri farragarri ia biurtu? Euskaltzaindiaren babespean, euskal-idazle guztiena izan zan batzar ura. An erabakitzeok batzorde baten esku utzi ziran. Aaztu zan batzorde onen egitekoa ere, eta gero an atera zan erabakia, beste baten aurrerapen zalakoa, gero Oñatiko batzar nagusian (egitekoa zan batzarrean), gauzak zeatzago aztertu ondoren ikusi bearrekoa zan, an azken-itza emateko. Baiña, au arrigarria, aurrerapena, aurre-itza, ez dakigu nola, azken-itza gertatu zan, eta "ongi ikusiko zuelako, gaizki ikusiko ez zuelako bat", arau eta agindu zorrotz. Eta azkenez, Arantzazuko erabaki ori, batzorde batena izan bear zuen ori, Euskaltzaindiaren beraren, batzar-erabaki izan zala "dogma" egin zuten. Nork izenpetu zuen, zenbat boto izan zituen? Ori ez da iñoiz esan ez argitu. Zortziren bat euskaltzain oso bazirala an? Baiña ez ortarako deituak. Zenbatek eman zuten baietza, edo zenbatek ezetza? Iñork ere ez, bear bada; Arantzazuko adierazpena benetatako erabakitza iñork artu ez zuelako, konponbidetzat baikik.

Geroago, Euskaltzaindiari auzi bera berriz *proposatu* zanean ere, berdin. Ez da agertuko ez nor zegoen alde ez nor aurka. Ez zan izan autar-



kirik ematerik, botaziorik. Ez da olakorik aipatzen. Batek itz egin, eta besteak: Amen, beude ixillik. (Ori bai, bear bada, ba ziran an zazpi euskaltzain nagusi). Gero baño gero gaizkiago ulertzen da askotan euskaltzain bidea.

Nere lantxo onek kondaira-lan izan bear zuen, Lekuona euskaltzain bezela aurkezteko; baiña eztabaida-lan ez ote da biurtzen ari? Ala ere gaiak berak ekarri du sugaia. Borroka-giroa, Oñaztar-Ganboatar giroa, noiz nai azaltzen da gai auen inguruan. Orregatik ez det amaitu nai salakuntza bat egin gabe.

Arantzazuko batzarrean zorrotz entzun zan Mitxelena jaunaren mintzoa: "Euskera batua, Liturgian ez! Liturgian, azken!".

Maixuaren eskolakoak dirala dioten batzuk ez dute istillurik gutxi atera, bada, Elizaren aurka euskera *batuaren* izenean, liturgiako euskera dala ta ezuala. "Atzerakoi eta erriaren etsai", itz gozoak dira auen aotan. Argia legoke gure erria, euskera *batu* orren soñuan dantzan egin bear balu, nonbaitzuen gogara! Kasu bat atera dezadan: Barandiaran jaunaren liburu bat euskera ortan argitaratu dute oraintsu. Gaur argitaratu bear balute, berriz aldatu bearko lukete, ikutu berriak egiñez.

Liturgiako euskeraren aurka entzuten dan zaunka ori ez ote da Lekuona jaunari dioten begi gaiztotik sortua? Galdera bat besterik ez det egiten, Lekuona baita Liturgi-euskeratzaillen buru.

Baiña, Liturgi-lanetan buru dan bezela, Euskaltzaindian buru jarraitu balu, bear bada, ez zan ez Euskaltzaindiaren kaltetan ez euskeraren kaltetan izango.

#### GEIGARRIA

Argitaratu berri dan liburu batek (*Koldo Mitxelena*, Ibarzabal idazleak idatzia, eta Ibarzabalek galde eta Mitxelenak erantzun, galde-erantzunez egiña) ari berria ematen dit gai oni geigarritxo au ezarteko.

Liburu ortatik nere gaiari urbillenik dagokiona jasoko det. Eta, leenik, Mitxelenak dioen auxa: "Alguien publicó un panfleto, atacando su figura (Lekuonarena), de una manera denigrante. Escribir aquello contra Don Manuel, que gozaba de una general simpatía en el País, fue, además de otras cosas, un desacuerdo político total". Urrengo lerro batean "libelo" esaten dio panfleto berari. Mitxelena jaunaren itz auen aurka ez daukat zet esanik.

Baiña itzok esan ondoren, beste batzuk ez ain egokiak, ez ain ongi atzekoak ez ain ederki esanak, atera dira Mitxelenaren agotik. Ona: "En el fondo del enfrentamiento con Don Manuel, había una "disputa subterránea", y que, por extraña razón, nunca ha salido a la luz. Yo la he sacado varias veces, pero, como suele ocurrir muchas veces a menudo, la "oposición", practica la retirada elástica, no hace caso y se deja pasar".

Eta zertan da "disputa subterránea" dalako ori? Labur esan dezagun: Lekuona jauna liturgibatzeraren buru izan zan, nonbait, Mitxelena jaunak uste duenez, eta talde edo batzorde orri iñork ez omen zion eman euskeraren batasuna egiteko arazorik, baiña berak artu artarako iñork eman gabeko eskubidea, eta bere batasuna euskaldun guziei ezarri nai izan omen zion. Lekuona jaunak ez omen du jakin istillu ortan sartu nai zutenei ezetz esaten, uko egiten: "El no podía renegar de ellos".

Itz auetan Lekuonaren eta beroren adiskideen aurka datorren salakuntza oiñarri gabekoa da eta Mitxelena beraren aurka biurtzen dala esan bearrean nago.

Mitxelena jaunaren oker-uste bat baiño geiago ageri dira or. Lenengo oker-ustea: Lekuona ez da izan iñongo Liturgia-batzorderen buru, Liturgi-euskeratzaileena baizik. Bata eta beste ez dira gauza bera. Bigarren oker-ustea: Liturgi-euskeratzaileen talde onek ez du euskeraren batasuna bere kontura egiteko arazorik ez eskubiderik artu. Irugarren oker-ustea: Mitxelenaren susmo txar eta salakuntza oiek ez ziran erantzunik gabe gelditu.

Ain zuzen, nerau izan nintzan erantzule. Bat, gutxienez. Badira gutxienez bost urtetik gora nere lantxo bat agertu zala, gai ori astinduz. Antxe erantzuten nien Mitxelenaren eta beronen antzekoen susmo eta salakuntzei. Berak irakurri ez balinbadu, ez dezaioke errurik egotzi beste iñori. Au ere aurretiaz esan nuen: "Ez daukat entzungo nautelako uste andirik. Leengo leloren bat berriz ere entzun eta irakurri bearko degu oraindik, eta nonbaitzuk Aita Santuaren esanak bezela artuko dituzte". Ara: igarle atera naiz, igarle erreza eta merkea, noski, gure arteko giro kaxkarra ikusten duenarentzat gauzarik errezena baita olako iragarpenik egin eta asmatzea.

Edozeiñek jakin dezake Liturgi-itzulpenetako batasunak ez daukala zer-ikusirik izkuntzen batasunarekin ez bitasunarekin. "Izkuntza bakoi-tzerako itzulpen bakarra egiteko agindua dago; baiña (ala esaten nuen) batez ere (*praesertim*) izkuntza zabalduenatarako emana dago (agindu ori), eta ez dauka izkuntzen batasun-auziarekin zer-ikusirik (Itzulpen ezberdiñak ugaritu ez ditezen agindu da ori, liburuen merketasunari eta duintasunari begiraturik, izkuntzarik batuenetan ere itzulpen ezberdiñak egin baititezke).

"Liturgi-euskeratzaileen taldeak Elizaren aginduei erantzun nai izan die, Vaticano'ko Ilgarren Kontzilioaren aginduei, alegia". Bugninik, mundu guztirako lan egiten zuen Liturgi-sailleko zuzendariak, euskeraren euskalkitan banandutako egoera ezagutu eta gogoan izanik, Iruñen euskaldunentzat esan zuenez, "eguneroko otoitzak eta erriaren erantzunak alik berdiñenak bear ziran egin, euskal-meza guztietan bateratsu erabiltzeko erakoak". Ortik aurrera, urtean bein edo esan bear diran irakurgaietarako, askatasun zabalagoa dago. Beude ortik kezkarik gabe, bai Mitxelena eta bai Aita Mokoroa" (Mitxelena, euskera batuaren auzirik or ez zegoelako, eta Mokoroa aita, au bildur baitzan, itzulpenak oso berdiñak egin ezik, Erroman ez ote zizkiguten onartuko on artu dizkigu).



Eta euskeratzaileen jokabideari zegokionez, auxe esaten nuen: "Egiña egiten da alik eta geien batasunera joten. Ori egoki da eta zuzen. Baiña batasun onek (ona irugarrenez gauza bera esan) ez du zer-ikusirik euskera batuaren auziarekin. Auzi au sortu baiña lenago (Arantzazuko bazarra baiña lau urte lenago) asia da Liturgialdea esan dan bidetik ibiltzen, eta ez dauka oraindik bide ori aldatu bearrik. Euskera batu ori sortzeko dago, gaiñera. Askok egiña balego bezela jokatu nai badute, beste konturik da ori, eta aien gain bego kontu ori garbitzea. Zer nai zuten? Beren aizea nora, besteak ara ibiltzea? Batasun ori dala-ta, ikusi ditugu zenbait atzera eta aurrera, urrats bat aurrera gaur eta biar beste bat atzera egiten. Beste guztiok ere dantza-saio ortan sartzea nai ote zuten?"

Eta beste salakuntza batzuei, Euskalzaindiarekin muturka zebiltzatelakoari eta erantzun ondoren, au gaiñeratzen nuen: "Baiña bada besterik ere. Mitxelena da euskera batua dalako orren maisu, tekniko eta gidari. Eta aaztu al dute maxiatzailleok jaun orrek, Arantzazun, euskera batuari buruz ari zala esana: "Liturgi-izkuntzan oraindik ez iñolaz ere (euskera batu ori). Azken-azkeneko, Liturgian".

"Liturgi-batzordeak ez dio, ez, arririk eman nai gure erriari. Ezer ematekotan, ogia emango dio, agora eramateko ogirik gozoena, egiñalean. Liturgian erriak ori bear du, ez arrotz eta gogor egingo zaionik ezer. Orretarako ez da Liturgian latiña utzi eta erri-izkuntza sartu. Liturgia ez da, atzeraka eta aurreraka, saioka ibiltzeko lekua. Leengoari, euskera biziri jarraituz, eta nolabaiteko batasunera joaz, aski du iraingoz Mitxelenak esana: Euskera batua Liturgian oraindik ez iñolaz ere".

Emen aldatu ditudan itzak eta beste argitasunik naiko, orain bospasei urte idatziak eta argitaratuak dira (Ikus "Jaunaren Deia", 41 (1972), 333-337 orr.). Mitxelena jaunak ez dezala esan jaramonik egin ez zaionik ez iñork erantzun ez dionik.

Lekuonaren aurkako azpi-giroak, amurruak edo *enfrentamiento* dalako orrek ez du zentzuzko oinarririk; ez-jakiñez edo, asmo gaiztoz edo, illunperen batean asmatutako bear-ezdankeria, besterik ez da izan. Eragiñago eta ziriñago, ziriñago eta atsituago gelditzen da asmatzaillearen edo asmatzaillearen gorotz ori. Asmatu dutenek garbitu bearko dute, ez Lekuonak, ez Liturgi-taldeak.

Gaur, askok, eta buru bero ez diran askok, Liturgiako batasuna edo dalakoa bestea baiña egokiagotzat baldin badaukate, eta beste batzuk legerik onenekotzat daukaten euskera batua euskeraren salbagarri baiña ilgarri lenago izango ez ete dan bildur badira, ori beste kontu bat, beste auzi bat da. Eta auzi au ere ez du Lekuonak ez Liturgi-taldeak garbitu bearrik.

Esanak esan ondoren, asierako lerroetan Krutwig jauna aipatu dedan ezkerro, ez det uste alperrikako gauza izango danik, gizon oni buruz Mitxelenak esanari, alderen batetik, argitasuntxoren bat ematea. Krutwig jaunak, Mitxelenaren iritziz, ez omen zuen atzertira iges egin bear izan Vi-

llasante Aitak Euskaltzaindian sartu zaneko itzaldiari eman zion erantzunagatik. Krutwig orren itzetan ez omen zegoen lege-zigorren bildurrik izateko gairik, baiña, "en el caso de que Krutwig fuera católico, quizá sí le hubiera para una excomuni6n". Azkenengo au xelebrekerizko ateralditzat baizik artu dezakegunik ez det uste. Praille baten sarrerako itzaldiari euskaltzain batek, akademiku batek, "eskumikua" merezitzeko gauzak esan? Ori Krutwig jaunarentzat ere, eta Aita Villasanteren lagun andia berau, geiegi dala uste det. Krutwig jaunaren itzaldiaren mamia nondik artua zan badakit. Neronek eman nion artarako M. Intzaurrondo apaizaren lana: "La Iglesia y el Euskera", Iruñako Apaizgaitegian bertako euskal-irakasle zanaren Ikastaro baten sarreran egindako itzaldia, iñoz iñongo eskumikurik merezi ez duena. Ez dago an Elizarentzat, ezin egon, "crítica feroz" esatekorik. Eta Ilario Bilbao jaunak Krutwig jaunaren itzaldiaren mamia ulertzea ere ez da bat ere arritzekoa, jaun orren itzaldia aleman, ingles, frantses nai edozein erderazko esaldiz beterik egoten baitziran. Eta euskera bera ulertu ezarren, nola ez ulertu beste erderakadak, beñik bein?

Eta lengo arira itzuliz, ona nere azken-itza. Mitxelenak Lekuonari buruz esandako itzak nik ongi-etorritz artzen ditut, aitorpen bezela bere buruaren eta beste batzuen aurkako aitorpen bezela. Auzi ontan ibilli dan joko, ez argi ez garbiegi dagoen joko salatzen dute. Euskaltzainek beren artean billatu bearko lukete eta garbitu, nor izan dan edo nortzuk izan diran "enfrentamiento" dalako orren, "libelo" eta "panfleto denigrante" dalako orren errudun. Ez dezatela ez On Manuelengan, ez Liturgi-taldean billatu. Eta era batera, On Manuelen erorikoa, Euskaltzain burutza uztea edo galtzea arau bat betebear utsak ez zuela ekarri, ez ote litzake argi aski geldituko? "Había un reglamento" otz-otzik eta errez esan du Mitxelenak, orrekin dana esan bailegoan. Arauek ez dute odolik, ez otzik ez berorik; gizonek; araua bete bear dutenek, bai, noski baiña noskiago. Mitxelenaren itzek ere ez dute orrenbeste gezurtatu ez ukatu, bai ageriago utzi.

L. Akesolo

### Lekuona'tar Manuel Jauna ta aozko literatura

Alor askotan ain "maixu" duguñ Lekuona'tar Manuel Jaunari ezer ez lezaioke erantsi ta geitu guk esan dezakegunak; ez dugu, beraz, ortara joko. Bakarbakarik, izendatu zaidan gai ontan —"Euskal Aozko Literatura" alegia— gure "Don Manuel"ek egin dituan azter-lanen laburpen bat eskeintzea izango da, gauza edo alderdirik bitxienetako batzuk nabarmendu-eraziz.

l'go: Literatura bitan bereizi izan digu: Idatzia ta aozkoa. Litera-



turaz ari geranean, eder-lanak artu izan ditugu "literatura"tzat, baiña idatzia. Gure bizitzan barna zerbait ikasteko edo ikasketa batzuk egiteko zoria izan dugunori, "literatura"z itzegin zaigunean, neurtitezkoa naiz itz lauzkoa, baiña idatzia goraipatu izan zaizkigu beti: landuak, irudimen-asmamenez ornituak, baiña idatziz emanak. Bestelako guztiak, aozkoak edo idatzi gabeak, guztiz bee-maillan ikus-erazi zaizkigu.

Eredu ipiñi oi zizkiguten guztiak ere idatziz landurik emanak ziran. Eta literatura idatzi ori, jakiña, idazlerik trebeenen egikeraz eta arauz neurtzen irakatsi zitzaigun. Eta irakaskintza orri ez diot oiñarririk desegin nai; izan ere, gaurko ainbesteri, idazten duten ainbeste ta ainbesteri, aspaldiko idazlerik yayoenen ezagupidea faltza bai-zaie. Eman eta irakatsi zitzaigunaz esker oneko agertu nai dut, baiña aipatzekoa da irakatsi etzitzaiguna ere: akats bat beraz: idatzi gabeko ipuin, olerki ta abestiak, gure erriak gaurdaioñ aoz-ao erabilliz gorde dituanak.

Eta auxe da Lekuona'ren idorokizun edo aurkikuntza bitxia: idatzitakoaz gaiñera, ba-dala bestelako literaturarik ere, aozkoa alegia.

Gasteiz'ko Apaizgaitegian ikastaro baten sarrera-itzaldia egin zuan eta ez oraintxe: 1918'gn urtean txantxetan ere ta ona emen orduan idatzi zituau itz batzuk: "...la poesía popular, la desdénada poesía de los koplaris o bertsolaris, tan injustamente despreciada de muchos de nuestros cultos...".

Aspaldi altxa zuan, beraz, erbia gure Lekuona'k, baiña ala ere erdal-liburuetan beintzat ez da aintzat artua aozko literatura erriko ta xumea, bere bertso ta olerki ta abestiz osotua. Guk geuk eta beste edozein euskaldunek, arauzko ikasketatik kanpora aurkitu bear izan dugu aozko literaturaz ikasi duguna, ta nagusienik Lekuona'ren idaz-lanetan oikarriturik.

Au dana, Lekuona berak onela adierazi zigun 1935'gn urtean: "El fenómeno de la improvisación es de tan lejano y distinto ambiente literario del actual de literatura escrita en que nos educamos, que nos obliga en no pocos puntos a reformar las normas de la misma crítica literaria al uso" (Lit. 0.25'gn).

2'gn: Zein dira izakera ta arau bereziak?

Idatzia, or gelditzen da larruan, arrian naiz-ta paperean ezarririk: ortan du iraupena, ez bai-da aldatzen eta galtzen. Aozkoa, ordea, ain zuzen ere aozkoa dalako, iñon eta ezertan ezarri gabea da. Nola irauñ-erazi, beraz? Aaztu ta galdu ez dedin, zeri lotu, non ezarri?

Galdu gabe irauñ-erazteko, ain zuzen ere, Lekuona'k aurkitu ta aztertu duanez, ba-dira bide berezi batzuk, teknika bitziak. Ona emen oroimnaren LAU laguntzailleak:

a.—Kantua, doiñua, melodia, beraren bidez aixago gogoan artu ta tinkoago irauñ-eraz.

b.—Ritmoa, itzeri beren barruan duten indar ezkutua aurkituz, itzak eta egokian zatitzea.

d.—Rima edo puntua, azken berdiña: au ere lagungarri egokia oroimnarentzat.

e.—Dantza, edo-ta gutxienaz ere gorputz-ibilkeria berezia.

Eta ontan, ain zuzen ere, umeak ipintzen dizkigu eredutzat, beren ikasi-bearrak buruan sartu eziñik ari diranean: Abestu ez ba'da ere, erdi-abestu egin oi dituzte beren sen bereziak eraginda. Bestetik, beren kantuari ritmoa eman izan diote, otoitzak ikastekoan bezala beste edozertan. Azkenik, gorputzari eragieñez ari izan dira.

3'gn: Ontan sar genitzake abestiak eta koplak zaarrak.

Nork esan zeñien aberats dugun sail au euskaldunok? Abestiak, kantak, eresiak, itz batean ERRI-KANTAK, era askotarikoak eta ugari ditugu, Azkue aundia ta A. Donosti ta A. Riezu ta gaiñerakoen bildumetan ageri diranez. Auetaz eta auen egikeraz ere ba-ditu Lekuona'k bere azterketak eta iritziak, baiña utz ditzagun.

Eta gain-begiratu soil bat gure KOPLA ZAARRERI. Zenbait jende ikasik uste izan du askotan, landu gabeak eta parregarriak dirala euskaldunen KOPLA zaarrak. Zergatik? Bere joskera ta egitura, beren jazkera, beren teknika ezagutzen etzutelako; eta, jakiña, ori dana ezagutu ezik, ezin iñola ere beren muiña bear bezala aurkitu, beren barruko zumu ta gozo berezirik ezin aoz-gozatu. Auxe da, noski, Lekuona'k bere azter-lanetan ematen digun erantzuna.

Kopla zaarrak bertsoak dira, beren puntu, neurri, ritmo, doiñu ta abarrez ornituak. Baiña ortaz gaiñera, beste alderdi berezi batzuk izendatzen ditu Lekuona'k: ETENA ta BARRUKO LOKERA.

Bertsoaren lenengo zatia, erdiraiñokoa, gauza bat izaten da, eta erdiz aurrerakoa beste zerbait. Adibide bat edo beste naiokak ditugu:

Au aizearen epela!

Aidean dabil orbela...

.....

Etxe ontako jende leialak,

gabon Jainkoak diela.

Astoak on dik oloa,

idiak arto-lastoa...

.....

Gabon jaietan edan dezagun,

Petiri, ekar ardoa.

Bi zati edo erdien artean ETENA, ezeren loturarik ez ba'lute bezala. Eta idazle "klasiko" deitzen arauetara oituentzat, ez dago oietan loturarik eta ageriko elkar-biderik, lojkarik eta arrazoi-biderik ez ba'lego bezalatsu. Baiña ba-dute barruko loturarik, bertsolariak eta erriaren senak ederkitxo artzen diena. Eta auxe argitzen digu luze ta zabal Lekuona'k bere idatzi ta itzaldietan.



Gauza bitxia beste oar au ere: bertsolariak ere leen, aspaldienean orrelaxe egiten zutela bapateko bertsoa. Zuberoa'ko LIGEX bertsolaria aipatzen digu Lekuona'k, an aietan oraintsu ere bertsoa orrela borobiltzen dutela esanez. Emen bertan, batzuek "bete-lana" dala esan ba'lezate ere, bada bertsolariak orren antzeko zerbait egiten dutenak, aldiz beintzat, gai-gaia azkenerako utziz.

Onela idatzi zuan berak 1935'ean: "Txoratzen nau, batez ere, koplazaar zenbaiten eten-iduriko ari, bide mako, ta andik onarako ibilli bixi urduriak. Eta, ain xuxen, ibilli onen bizi au, etorriaren ausi-antzeko ari auxe uste dut nik, batez ere, olerki baserritarren zerarik jatorren, berezien eta iñon gutxitan berdiñik gabekoen". (ARGIA egutegia, 1935).

4'gn: APAIN-OLERKIAK

Esan-nai berezirik, sakonik ez duan olerkiari esaten dio "apain-olerki" edo apain-ertiaren zati bat, "artes decorativas" diralakoen antzera. Eta esan-nai zerbait duten olerkien apaingarri dira "apain-olerkiak". Bi bereizgarri aurkitzen dizkie: Batetik, izkuntza estilizatua erabiltzen dutela olakoetan; bestetik, ots eta zarataren adierazgarri gertatzen dirala, zarat-itx edo "onomatopeya", alegia.

Ona adibide bakan batzuk:

Ttunku-runku, ttunku-ttunku,  
ttunku-runku, ttuna.

Tiriki, tauki, tauki...

Eta kriskitin-kaskitin, arrosa krabelin...

Onelako beste askoren barru-barruko edertasunak ederki ao-gozatu ta argiturik dizkigu Lekuona'k.

5'gn: BERTSOA TA BERTSOLARITZA.

Lekuona'k egindako azterketak jarraituz, gauza asko ta jakingarriak leudeke esan-gai, baiña gaur ez dezakegu labur-zurrean alderdirik nagusien batzuk aipatu besterik. Eta ontan bildu ditut bereizgarri batzuk:

a.—Abestua, kantatua izaten dala bertsoa. Nork ez daki ori? Doiñu bati lotua.

b.—Esan bearrik ez, neurtua ta puntutan egiña, azken-berdiñez dolostatua.

c.—Jakiña, bi alderdi oiek, doiñuari lotu ta puntutan egiña, ageriko aurpegia da, edozein arrotzek ikus ditzaken alderdiak dira. Ba-da izkutua-gorik.

d.—Bapatasuna, esaten du Lekuona'k: bat-batean, galdetu ala, gaia eman aifnean, aurrez pentsatzen egon gabe, ustekabean oifneko beatzak zapaldu edo-ta itximur egiten digutenean, AI! esaten dugun bezain bapatean eta barrutik ateratzen dute bertsolariak beren erantzuna, beren bertsoa. Arrigarria!

e.—Eta beste gauza bitxia: atzekoz aurrera jokatzeko dutela. Azken

esatekoa, aurrena pentsatu, azken-bertsoa lenengo sortu beren baitan eta ari dagokionez lotu gairako guztia. Bertsoak idatziz egin bai, baiña bertsolari ez geranok geienetan lortu ezin izaten dugun zerbait bitxia. Baiña bertsolari onari bereala igertzen zaion doaia.

f.—Labur eta bizi, jauzika edo saltoka, gauza batetik bestera joan-etorrian, liburu-arteko zenbaitek ulertu eziñeko lotura izkutuz saltoka, baiña erriaren senak aixa artzen duan barru-lotura izaten du bertsoak. Itz-erdika mintzatzea, eztabaidan eta elkar-zirika zorrotasun aundiz.

Luzeegi ari geranez, Lekuona beraren itzez emango diogu azkena gure jarduntxoari

"Koplari baserritarra! Bertsolari gizagajoa! Txoria bezalaxe zera zu. Txoriak ba-daki kantari, baiña ez daki nola kantatzen duan. Zuk ere ba-dakizu koplak botatzen. Baiña koplak oien muiña, bertsu oien guna ta ezta zertan dagon, bai al dakizu? Aoa zabalik eta irria ezpafietan zuri entzuten egoten dan erri orrek berak ere, somatu bai, somatzen du zure koplak an barru-barruan egiten dion axkura goxoa; baiñan uste al dezu, axkura-garri ori zertan dagon ba-dakianik? Beren buruak erri baiño zerbait aundiagotzat dauzkaten eskoladunak, berriz, ez da zer esanik ere...

"Neronek ere al dakidan?, diozu. Olerki baserritarren ezti ori zertan dagon bai al dakidan? Obe bai neronek ere ba'neki!... Egunero dagiot Jaungoikoari eskerrik asko, baserritar egin nindualako; eskerrik asko bai, beste zenbaiti ez bezela, neri, koplak erriko baten jario garratxa murtxatzeke eman didan ao-gozaoren alde. Baiña neronek ere —ibilli asko egin ondoren, neronek ere— ez al dakit noski ezertxo garbirik gai txoragarri onetaz". (ARGIA egutegian, 1935'gn urtean idatziak, eta A. Onaindia'k bere "GURE BERTSOLARIAK" liburuan dakarrenez).

Gai ontan ain maixu danak ori baldin ba'dio, zer diokegu beste gairako askok eta askok?

6'gn: Lekuona'ren azter-lan bitxi oiek izan dute oiartzunik Euskal-errian. Bi esango ditut, baiña aipatu besterik ez:

a.—Bertsolaritzak gaur edo azken-urteotan artu duan gorakada, bertsolaritza jasokuntza, ortan BASARRI bera ere jasotzaille ona izan dalarik, eta Xalbador ere bai noski.

b.—Beste euskal idazle askorengan, olerkariengan bereziki, baiña daren gairik, bear ba'da, Mitxelena'tar Xalbatore olerkari ospetsuarengan izan du Lekuona'k oiartzun bikaiña. Lekuona'ren idazlanak eta berarekiko artu-emanak izan ez ba'litu, auskalo zer-nolako bidetan barrena ibilliko zan Xalbatore!

Eta beste gabe, Lekuona'k alor.ontan aurkitu ta landu dituan altxor aberatsak agortzeko usterik gabe, ontan esango dut nere AMEN eta kito.

Gaztaniaga



## HOMENAJE A DON MANUEL DE LECUONA

Nere adixkide eta lagun Don Manuel eta emen arkitzen zeraten guztiok. Oso pozik etorri naiz gaur onera, Aita Kardaberaz'en Lagundia osatzen dezutenok, gure lagun Don Manuel'i eskeintzen diozuten omenaldi ontara. Eta nik ere, besterik ez bada ere, bi itz esan nai ninduzke.

Guztiok ezagutzen dezute nor dan D. Manuel. Lendabizi eta beste gauz guztiak baño lenago, apaiza da D. Manuel. Eta orrela jokatu du, apaiz bezela, bere bizitza guztian. Bere maitasunik sakonena Elizarentzako izanda: Aita Santu, gotzai, bere lagun apaiz eta eliztarrentzat. Eta nola maite izan dituan, baita ere, elizako gauzak, guztiok dakigu. Euskalerriko eliz guztiak ikustaruko zituan. Eta ez bakarrik elizak, baita ermitak ere. Zenbat aldare, imagifi, pintura eta beste gauz asko ez dira galdu, Don Manuel'i eskerrak!

Baita ere, San Pranziskoren antzera, askotan goratu ditu gure Euskalerriko mendi, ibai, arkaitz eta jendeak. Baño batez ere gure izkuntza goxoa, euskera. Gutxi bezela ezagutzen duan gure izkuntza.

Bere jaiotz-errian, Oyartzun'en, bizi da azkeneko urte auetan. Baña ez bakardadean. Oso gertu ikusten bai ditu bere lagun geran guztiok eta batez ere ain maite dituan Euskalerriko kultura-liburuak.

Gutxi bezela ulertuko ditu, gure Don Manuel'ek, San Bernardo'k esandako itz aiek: O beata solitudo, o sola beatitudo.

Zori-onak ba-da Don Manuel, biotz biotzez.

*Jazinto'k*

Donosti'ko Gotzaiak

## KARDABERAZTARRAK - TOLOSA'KO BATZARRA

(1977'gn Inozente)

Kardaberaztarrok:

Leen ere esan izan dizuet iñoiz —eta bein baño geiagotan, bear bada— omenaldiak ez didatela onik egiten; tormentu bat, sufrikari bat dirala neretzat.

Bañan oraingo ontan "esti atzera" egin bearrean arkitzen naiz. Gaurko au bezelako omenaldiak, bai, atsegin zaizkit. Atsegin etzaizkidanak, itzezko omenaldiak dira: aurrez-aurre intzentsua —"tori ta tati" egiñaz— okotzera botatzeko diranak. Olako itzezko omenaldiak, neretzat sufrikari dira.

Bañan itzezkoak ez baño "obrazkoak" diranean, ezin esan dezaket

orrelakorik. Eta, gaur egiten didazuten au, "obrazkoa" da. Eta koplazarrak dion bezela,

Ai! ura nolako!!  
("Nik ba dut maiteño bat;  
ai! ura nolako!").

Nere Kardaberaztar maiteok, liburuzko Omenaldi bat egiten didazute. Eta, egia esan, liburuak maite ditut.

Eta ez maite "niketz", nere partetik; liburuen bitartez gure Kulturari egiten zaion mesede ta bentajagatik baizik. Iru tomozarretan eun-da piko lan eskeintzen dizkidazute. Oientzat ere esan bait liteke

Ai! aiek nolako!!

punteren-punterengoak, asko ta asko bizkaitarrak esan oi duten bezela...

Bañan, niketz, nere partetik berriz ere, lan ortan neri eman didazuten parte, benetan ixtimatzen dizuet —ixtimatzekoa ere bada-ta—. Bestela iñoiz idatziko etzenituzten lan asko, gaur "nigatik" idatzi dituzute. Nigatik; neri aitormen bat egiteagatik, neri esku-agiri bat ekartzeagatik; "Ni naizela *medio*", guk Oyartzun'en esaten degun bezela. Eskerrik asko nere izenean; bañan eskerrik asko, batez ere, Euskal-Kulturaren izenean... bañan baita gure Apaizgoaren izenean ere. Zuek nere aitzakitan egin dezuten lana, gure Apaizgoaren aintzarik aundienerako da garbi-garbi. Apaizak berriz ere, Euskal-Kulturaren aitzindari... Leen bezela, orain arte bezela; beti bezela. "Duana duanari aitortu bear zaio". Apaizak berriz ere.

\* \* \*

Ori da, gaur ni pozez betetzen nauana. Eta ez noa ezer geiago esatera. *Eskerrik asko, Euskeraren eta Euskal-Kulturaren izenean! Gure apaizgoaren izen Santuan!!*

*On Manuel*



3.

Gizaldiz gizaldi



## EUSKERA BATUAREN BILLA

(Ernani'n 1970-n emandako itzaldia)

Ernani'ko euskaldun eta euskalzale jatorrak: agur, agur r'erdi.

Aspaldiko euskal-agur jakin onekin azaltzen naiz zuen aurrera nere gaurko jardun oni asiera ematerakoan. Eta gaiari ekin baiño leen, aitorpen garbia egin bear dizuet: alegia, zeuok, Ernani'ko semeok, zeuon senari zintzo ta leial eusten diozutela. Zeuon senari eta leenari. Garbi esateko, zeuon euskalduntasunari. Erririk gutxi du Euskalerrriak zuen erriak aña langille erakutsi ditzakenik euskal-literaturaren alorrean. Nolako langilleak, gero! Kardaberaz, Iturriaga eta Gregorio Arrue bezelako idazlerik ez da noiznai ez non-nai azaldu Euskalerrrian joandako gizaldietan. Aien senari eutsi nai diozute zeuok, noski; aien enborreko ezpal izan nai dezute. Egunotan antolatatu dituzuten itzaldi auek ori salatzen dute. Zuen jatorria ez dezute ukatu izan nai. Zeuok zeuon buruaz, zeuon euskalduntasunaz lotsa ez zaretan bezela, zuen arbasoak, eta aipatutako iru Ernani'tar aiek, Kardaberaz, Iturriaga eta Arrue ere, ez dira gaur zeuokin lotsa. Ez al dituzute maixu aundi aiek bein ere aaztuko. Gaurko egun au ere aiekin dituzuten lokarriak estuago egiteko izango al da!

\* \* \*

Nere itzaldiaren gaia zeuok jarria da, euskeraren batasunari buruzkoa. Gizaldiz gizaldi nolako pausuak eman diran batasunaren billa, nola azaldu dan kezka au, nola ikusi zuten gorabeera au antziñako gure klasikoek, eta oraintsuagoko aldietan auzi au nola erabaki nai izan dan, ori guzti ori jakin eta ikusi nai dezute. Nere alegintxoak egingo det zuoi ontan atsegin ematen. Aurretik (ala eskatzen dizuet), nere utsengatik izango al det zuen barkamena!

Itzaldi onek bi zati izango ditu, bi zati nagusi: euskeraren batasuna antziñako euskal-idazleetan, leenbiziko zatia; eta batasun ori, orainagoko ekiñaldietan, bigarren zatia. Azkenengo zati ontan, bi batasun aztertuko ditugu, alegia, euskal-ortografiaren batasuna, eta euskera idatziarena.



Gai ontan sartzean, berau aipatuaz batera, galdera bat edo beste etorriko zaio askori burura: Baiñan euskera batuaren auzi eta kezka au ez al da, bada, oraintsukoa, gure egunotakoa? Gure klasikoek ez ote zuten, bada, idatzi, iñolako kezkarik gabe, berez berez? Ez ote zerien aiei, txoriari bere txinta bezela, beren euskera jatorrizkoa, tokian tokikoa? Galdera auei ezezko erantzuna eman bearrean gaude.

Euskaldunak berandu asi ziran euskera idatzia erabiltzen, eta artara jarri ziraneko, beren kezka eta ardurak izan zituzten nola idatziko. Bertatik oartu ziran ez zala Euskalerrri osoan euskera berdiña egiten, ez urbiltzekorik ere; ha-zala aldea euskeran errialde batetik bestera. Au ikusteak gogoetaka jartzen zituen zein bide artuko, nolako euskera erabilliko, euskaldunik geiagok ulertzeko eran nola idatziko.

Au ikusteko, gure literatura zaarrari gain-begiratu bat ematea aski degu.

Asi gaitezen gure idazle zaarrenetako bategandik, Leizarraga gandik. Beskoitzeko seme au, Testamentu Berriaren euskeratzaille au, amaseigarren mendekoa degu. Datorren urtean izango dira laureun urte Testamentu Berri ori eta beste lan batzuk argitara zituela. Apaiza izana zan eta gero Protestante egiña. Protestanteen aginduz ekin zion bere lanari, beste euskaldun batzuek lagundurik.

Nola idatzi, nolako euskera erabilli? Orra asieratik izan zuen kezka. Gogoz eldu zion lanari, baiña bere borondate ona gorabeera, bein baiño geiagotan izan da dana bertan beera uzteko zorian, eta beldur da ez ote duen asitako lana bukatuko. Batetik antzu eta landu gabea ikusten du euskera. "Oraino, traslationetan behintzat, usatu gabea". Orrez gainera, gure izkuntza ainbat zatitan puskatua dago. "Bat-bederak daki Eskuel-Herrian kasi etxe batetik berzera ere mintzatzeko maneran zer diferentia eta diversitate den".

Au ikusirik, zein bide artzen du Leizarragak? "Ahalik gehiena guziei adierazteari iarreiki izan gaitzaitza, eta ez xoil edozein leku iakineko lengoaje bereziri".

Itz auetan naiko argi ikusten degu nola ezagutzen zuen Leizarragak euskeraren egoera eta nola jo duen banatasun artatik nolabaiteko batasunera. Leizarraga onen euskera ez da izango ez angoa ez emengoa, iñongo leku jakifiekoa; alik eta geienek ulertzekoa erabiltzera saiatuko da.

Lapurtarra zan bera, baiña aalik eta geienentzat idaztearren, gogoan izango du Zuberota ere, eta Zuberotarren euskera. Eta auentzat iztegi labur bat ere jarri zuen azkenean, Lapurdiko itz batzuei Zuberoko ordaiñak aurrean jarrita.

Urrengo gizaldian, beste idazle batek ez du jokabide berdiña artuko, ain zuzen. *Materra* euskaldun berria da, gaur esango genukenez. Kanpotik etorria da Euskalerrira, Sara aldera, eta Sarako euskera ikasi du, ez bes-

terik. Ba-daki onek ere ez dala Euskalerrri guztian berdin mintzaten, baiña ez berari dakiena besterik eskatu. Ala aitortzen du berak: "Badakit Euskal-Herrian anhitz moldez mintzaten direla, eta nori bere herriko euskara zaikala hoberenik eta ederrenik. Eta handik gogora emaiten deraut ene eskribatzeko molde haur etzaiela guztiei ongi idurituko. Baina nahi dut iakin dezaten halakoek nik hizkuntza hunetan dakidana Saran ikasia dudala eta hango euskara ongi erabiltzen badut, ez naizela gaitz erraiteko, eta ez arbulatzeko, zeren ezpaitakit nik hangoa baizen. Ordea ea Sarako euskara denz Euskal-Herriko hobereña eta garbiena, ez naiz ni hartan sartzen; bat bederak emanen du bere iduririk. Eta Sarako eskuara hunetzaz kontent eztenak ezkiriba beza bertze eskuara hobeago batez eta hobekiago; ez naiz ni hargatik bekaiztuko eta ez inbidioz izanen".

Asistarraren seme zintzoa Aita Materre au, eta ala pakezalea auzi ontan ere. Baiña or degu idazle onen aitortpena gure euskeraren banatasunari buruz.

Gizaldj berean, eta Saran bertan dugu gure klasikoetan klasikoenaren ospea duen idazlea: Axular aundia. Gure banatasunaren lekuko au ere, eta batasunaren nolabaiteko eragille. Banatasun orrek kezka jartzen du. Ezin dezake idatzi euskaldun guztiek ulertzeko eran. Ala aitortzen du berak: "Badakit... ezin heda naitekeiela euskarazko mintzatzeko molde guztietara. Zeren anhitz moldez eta differentki mintzaten baitira Nafarroa Garaian, Zuberota, Lappurdin, Bizkaian, Ipuzkoan, Alaba-herrian eta bertze anhitz lekutan... Batek erraiten du *behatzea*, bertzeak, *so egitea*; batek *aserretzea*, bertzeak *samurtzea*; batek *ilkebitzea*, bertzeak *jalgitea*; batek *athea*, bertzeak *bortha*; batek *erraita*, bertzeak *esatea*; batek *liskartzea*, bertzeak *ahakartzea*; batek *hauzoa*, bertzeak *barridea*; batek *aitonen semea*, bertzeak *zalduna*. Finean, bat-bederak bere gisara, antzera eta moldera; ez dituzte euskaldun guztiek legeak eta azturak bat, eta ez eskuarazko mintzatzeko ere, zeren erresumak baitituzte different".

Nondik norako bidea artuko du Axularrek olako banakuntza ori nolabait berdintzeko eta aalik eta geieni atsegin emateko? Bat, Lafitte jaunak aipatu eta argitan jarri duena: itz eta esaera berdintsu asko, sinonimo asko erabiltzea, era batera eta elkarren gaina. Orixe egin omen zuten antxiñako frantzes-idazle askok ere, esaterako, Rabelais ospetsuak. Iñoiz, euskerak bi itz dituenan elkarren atzekoak edo bi eratara erabiltzen diranak, biak jartzen ditu Axularrek; eta batera liburuaren barruan, eta beste era-bazter batean, aldamenean, "bat-bederak kontentamendu duen amoreak-gatik".

Beraz, Axularren euskera geien batez Saran erabiltzen zana izan arren, badu beste euskalkietako kutsu bat baiño geiago, nola edo alako batasunaren bila saiatuz.

Mende bera, XVI garrenekoa, bukatu baiño leenago, or degu beste idazle bat kezka eta joera berdintsuarekin, Tartas, *Onsa hiltzeko Bidia* idatzi zuena. Leizarraga eta Axular, biak euskeraren aldetik, Lapurditarrek



ditugu. Tartas Zuberotarra da. Zuberon bizi zan gaiñera, Aruen; ¿baiña ez du Zuberoko euskerara oso-osoan jotzen. Zergatik? Batasunaren kezka, irakurle geiagoren billa. Irakurle geiago izatearren, Zuberokoa baiña euskera zabalago batez idatzi nai du. Eta orren jakitun jarri nai izan du irakurlea.

Olena dio: "Ene euskara eta lengoajia eztaikit aprobatia izanen denez, bai ala ez. Badu orotarik zerbait; Zuberoak, Baxenabarrek eta Lapurdik eman drauko zerbait, baina ez oro. Aruen egin dut neure pieza pobria; hanko lengoajia ezpada aski eder, hanko euskarak du ogena, eta ez euskaldunak". Benetan aitorten apala auxe. Geienok, nik uste, bakoitzak geure erriko euskara joren degu onenetakotzat.

Bidasoaz andiko idazleekin jarraituz, urrengo mendean, amazortzigarrenekoan, beste idazle aundi bat degu: Joanes Etxeberri. Bestaldekoa izan arren, emendikoen artean eman zuen bizirik erdia: Beran, Ondarrabin, Azkoitin. Axularren goresle porrokatua degu bera. Urdazubitarra omen degu euskal-idazleetan maixurik aundiena, eta euskerarik ederrena, Sarakoa. Baiña beste euskera-molderik baztertu gabe. Gure euskera molde eta era askotakoa bada ere, gure artean ez da ontan gertatzen beste izkuntza askorekin gertatzen ez danik. Euskera-mota asko omen degu, baiña euskera bat bakarra omen da.

Etxeberri bestea aurrekoek baiña sakonago eta luzeago jorratzen du gai au. Entzun zer dion: "Diferentzia molde hau kausitzen da zernahi bertze hizkuntzetan ere, bereziki italiano, erdera eta frantzesean". Izkuntza auek "bere ethorkia dutelarik latinetik, guztiarekin ere diferentziatzen dira elkarren artean; batak latinetik hartu tu hitz batzuek, eta bertzeak bertze batzuek; batak signifikantza batetan, bertzeak bertzean; batzuek letrak kenduz, bertzeak berretuz; bertze batzuek letrak aldatuz, edo kanbiantuz eta trukatur; batek labur zena egin du luze, eta bertzeak kontrara luze zena laburtu du... Eta halatan, guztietan ageri da apur bat gora behera batean gehiago, bertzean gutiago, nonik duten bere ethorkia; eta oraino hautan ere kausitzen da, izan arren hizkuntza eta erresuma berekoak, diferentzia badela herritik herrira hitzetan eta mintzatzeko maneretan. Batzuek delikatu, bertzeak moldegaizki; batzuek mintzoari emaiten diote bertzetarik mintzaira diferentia; ordea, hargatik hekien hizkuntza mueta bat da, hala nola eskuararik bat bai ez baita". (Eskuararen Hatsapenak, 54).

Onela itz egin zigun bere liburu batean, Eskuararen hatsapenetan. Eta Lapurdiri zuzendutako Gomendiozko Karta edo Gutunean dioena are argiagoa eta gogorragoa da:

"Euskalherriatik ilkhitzen garen bezain laster, hizkuntza arrotzen premian jartzen garela. Eta oraino, bertzalde, geure herritik ilkhi gabe Euskalherrian berean barrena, geure artean dugu pena eta nekhe ondikozko hau: zeren geure hizkuntza propiala baitarabilau hain nahasia eta trukatur, non eskualdunok gerok pena eta nekhe baitugu elkharren aditzeko.

"Ezperen bat bedi Nafarroa Beherearra edo Zuberotarra Bizkaitarrekin, edo Alabesarekin, eta Otxagabiarra edo Eronkeleza Baztandarrekin eta Lapurtarrekin, edo zein-nahi Eskual-herriko aldebatekoa bertze alderdikoarekin, eta ikhusiko duzu elkhar ezin adi dezaketela; aitzitik, elkharri irudituko zaizkio Eskualdunak direlarik, ezirela hizkuntza bereoak" (318).

Au irudipen utsa dala esan digu leentxeago. Euskerarik, izan, bat bakarraitu au? Jakinarri dala uste det Etxeberri ortaz dioena: "Hau heldu da, Eskualdunek bere hizkuntza propiala ez estimutan idukiz, eta munduko bertze gainerako jendaki guztiek bere hizkuntzan izkiribatzen duten bezala, Eskuaraz izkiribatu faltaz. Baldin bertze hizkuntzetan bezala, izan bailira lehenagotik liburuak eskuaraz izkiribatua, hetan begiratuak eta altxatuak egonen ziren gauzen izenak, eta mintzatzeko hitz eta manera eskuarazkoak; eta gisa hunetan baliatu ginakeen hetaz mintzatzeko. Baina nola izan baitira hain apurak eta gutiak ezkuaraz argitarat ilkhi diren liburuak; hargatik aldebatekoak ezin jakin zetzaken bertze alderdiko hitz guztiak eta gauzen izenak. Eta hala denborarekin edozein lekhan joan izan dira hitzak eta gauzen izenak, apur bana emeki emeki bertze gauza guztiak bezala, trukatur, eroriz eta ahantziz" (319).

Emen eman digun iritzia ez al da gogotan artzekoa? Gure artean euskeraz idazteko oitura zabalduagoa izan bagenu, batzuen eta besteen euskera ezagutzeko aukera ohea izango genuen. Orrela, bazter bateko itzak bestera zabalduko ziran, eta ez ziran besteentzat ain arrotz eta bitxi izango. Orrela euskaldun guztiok elkar aberastuko genuen, eta aberatsago eta ugariago egingo geure euskera.

Baiña beste ezberri ere izan degu euskaldunok eta ez du etxeberririk salatu gabe uzten: "Lehenago Espaiña guztian eta Frantziako anhitz herritan Eskuaraz bertze mintzori etzelarikan; egun dakusagu zein herri gutitan mintzo garen eskuaraz; eta oraino mintzo garenoi ere eskas zaizkigu hain hitz eta izen lehenagokoetatik. Zeren hekien lekhan hartu baititugu bertze batzuek hizkuntza arrotzetarik; eta hek ere ez gisa berekoak guztiak; zeren batek hartu baitu hizkuntza batetik, eta bertzeak bertetik".

Ez ote dago argi asko? Gure izkuntzak ainbar adar ezberdin izateak baiditu bi iturri, Etxeberriren iritziz: batetik, gure literatura urria eta elkharrekin artu-eman gutxikoa izateaz, antxiñako euskeraren ondasun asko galdu egin ditugu, eta lekuren batean bizirik iraun duten itzak ere ez dira beste lekuetara zabaldu. Bestetik, galera ori naiko ez dala, inguruko erderetara jo dogu itz berri eske, galduen utsunea betetzeko. Eta inguruko erderak bitik gora diran ezker, ezberdintasuna geitu eta aunditu bertetik ez degu egin, eta gure arteko zuloa, aditu eziña, aundiago bihurtu.

Orra, euskeraren zorigaitza, egoera negargarria. Orra zergatik idazleak ainbesteko kontua erabilili bear duen, artamuka, zoritxar ori irakurlearen onetan nola garaituko.



*Mendiburu eta Kardaberaz.*

Kontu eta ardura ori ez zan izan Bidasoaz andiko idazleena bakarrik. Emendikoenaren ere izango da, emendikoak literaturarako beranduago esnatu baginaren ere.

Amazortzigarren mendean asi ginan aspaldietako lozorroa astintzen. Larramendi aundiaren iritzi eta bultzadarekin batera. Ba-ditugu orduko bi idazle ugari eta bikain: Mendiburu eta Kardaberaz jesuitak. Bigarrena, zuen erritarra, Ernaniko semea.

Biok ikusi zuten euskera puskatan zatiturik. Biak jakinien daude zatiketa orrek nolako kalte eta okerrak ekartzen dituen eusal-idazlearentzat.

Mendiburu mugaz andiko Etxeberriren iritzi berdintsukoa da. Euskerazko libururik gabez, euskerak anitz itz galdu ditu, eta nonbaiten bizirik gelditutako asko euskaldun guztiak ez dituzte aditzen. "Badira Nafarroan, euskarazkoak izanagatik, Probintzian geienak aditzen ez dituzten izketak edo itz egiteak, baita Probintzian ere Nafartarrentzat berriak diruditenak; eta Probintziako bazter batzuetan aditzen dira beste askotan aditzen ez diran zenbait itz egite".

Beraz, Mendiburuk zer egingo du? "Non-nai aditu ditezkeanak billatu ditut, aleginien artzen ditudala orretarako, euskerazkoak utzirik, beste zenbait itz". (Jesusen Bihotzaren Debozioa).

Orrela esaten dio Jesusen Bihotzaren Debozioa-liburuaren sarreran irakurleari. Liburu oni Larramendik jarri zion beste itzaurre bat. Edo, zeatzago esateko, liburu orrek itzaurre bezela, Larramendik Mendibururi egindako karta dakar, orduko euskaldun gaizki-esale berritsuentzat batere leuntasunik gabeko karta, benetan. Gogor erasoten die Larramendik or euskera gutxi esten duten euskaldun eroei. "Gogaikarriena da, txarlari oiek ikustea ta aditzea nola dauden ixekaz ta muxinka euskera ederki dakitenean jolasari, bein Nafarroako *mintzoa* dala, gero Bizkaiko *berbeta dongea*, batean *ausez ere* Goierriko izketa dezula: bestean, *noaskiro*, Beterrikoa; atxurlarien eta nekazarien hitzera dala hura, baserritarra dirudizula, eta milla onelako astakeria. Ez dute izen oberik merezi".

Mendibururi, herriz, esaten dio ongi egin duela bateko eta besteko euskera naaste erabilliz. "Ongi egin dezun Nafarroa'ko hitzen batzuek ekartzeari, egokiak diranean, eta besterik ezteanean. Zeren lanbizian eta bat-batean aditzen ezpadira, aurki adituko dira eta geienak dagoaneko editzen ere badira; eta ala euskera bide batez edertzen eta ugaritzen da. Etzaitzate tontotzarren erausiak ozpindu eta ikaratu... Zer degu, astoren batek edo bestek esanagatik ezta onelako hitza emengoa, edo ezteuela aditzen? Nafarroan *irri*, Bizkaian *barre*, Probintzian *farra* egiten zaiela onelako ta alako hitzen batzuei? Suertez ere neurri ederra genduke hizketarako, besterik ezpagendu. Gizon zuhur, zintzo, menak eta jakintsuak gure alde ditugunean, ezteiegu jendalla oriei jaramon bear, ez eta aien esamesanaz ajolarik artu".

Urrengo liburuetan ere bide berdinetik joko zuen Mendiburu zentzuz-

koak. "Liburua bazter guzietarako egin da, ta itz guziak ez dituzte era batean bukatzen euskaldun guziak... Liburu onetako euskera len egin nuenarena baño errezagoa da; ta angoa ere aditzen dute, dagoen bezala... Eta bein edo herriz zerbait galduagatik, laster oituko dira aditzen dituzten itzertara; eta beste bear ez diranak utzirik, artuko dituzte beren hizkuntzertarako itz euskaldun garbi leunak".

Zer esan nai du onek? Euskaldunok bata bestearen bearrean gaudela, noski, elkarenganik ikasi bearra degula, euskera osoago ete bateago egiteko. Ez gaitezkelak bakoitza bere euskalkian sartuta gelditu, euskalkien gaineko euskera batera jo bear degula. Ortarako, gutxi ba zan ere, egin zuen zerbait Mendiburuk. Zuur jokatu nai izan zuen, bear bada zuurregi. Itzik zabalena eta adituenak erabiltzearen, orrela, gure ondasun asko lurpean utzi zituen, erraztasunari begiratu. Euskalerrri osoan ezagutzen ez ziran itzen batzuk erabilliz bazituen ere, ez asko. Batasunaren billa dabillenenak maiz egin dezake oker au.

Delako oker au Kardaberaz'ek ere ezagutu zuen, eta nolabait osatzen saiatu zan. Mendiburu Nafarroan bezela, Kardaberaz batik bat Bizkaian eta Gipuzkoan zear ibilli da Jaunaren itza zabaltzen. Gipuzkoa'ko eta Bizkaia'ko euskera egiten badaki eta bietan idatzi du. Eta beti euskerarik jakinienean, au da, batasunera jotzen duela. Gipuzkoako euskera utsa egitea ere ez zitzaion Bizkairako eragozpen; geienek atseginez entzuten zuten an gipuzkera. Baiña an ere ez omen zuten urrutiagorik ongi aditzen. Eta bertakoa gogoago entzuten zieten, noski. Orregatik, Kardaberaz'ek nai luke, Mendiburuk Nafarroarako egin duena beste norbaitzuk Gipuzkoara'ko eta Bizkairako egitea: kristau-erakutsizko liburuak bietan atera. Gipuzkoak eta Bizkaiak ez dute Nafarroak baño gutxiago merezi, eta premia andiagoga dute.

Ala zion berak: "Aita Mendibururen zelo andiak Nafarroako erara liburu eder probetxuzko asko atera dituen bezela, Jainkoaren ontasunari eskatzen diot, Bizkaiko biotz nobleren bati ango era ta dialektoan zeruko dotriña ta ejemploen liburuak ateratzeko, arren, argi zeloz ta gogoz bete bat eman diozla... Arimeen onerako Bizkaiko, Nafarroako eta Gipuzkoako iru dialektoetan eskribitzea guztiz premiazkoa eta gauza bearra da. Gure izkera bien erdiko bezala, Nafarroan eta baita Bizkaian ere aditzen da. Baiña ez Nafarrak Bizkaikoa, ta ez bizkaitarrak nafarrena aditzen dute; ta bata besteagandik urruti eta bakoitza bere bidetik dabil. Jainkoak zuzendu ditzala bere gloriarako".

Kardaberaz ez dago, orraitio, lan ortarako beste inoren zai, eta berak ekingo dio lanari. Baiña nola idatzi? "Eman usatzen dan izkerarik jakinienean", Bizkaiko ta Gipuzkoako jakintsu askorekin itz eginda gero. Bizkaieraz ere bai. Eta Bizkaitarrentzako liburu batean, lege zentzuzko eta egokiak ematen ditu, Bizkaiko euskeraz jatorrago eta garbiago idazteko.



Mogel

Sail au bukatzeko, Bizkaitik datorkigun iritzi bat jaso dezagun. Mogel zaarrenaren liburu bikaiñean, *Peru Abarkan*, arkitzen degu, bostgarren jardunean. Peruk eta Maisu Joanek elkarrekin darabilkiten jardun ortan, azken batean, beste bi sartzen dira izketa-lagun, bata giputza, eta bestea Bidasoaz andiko euskalduna, "prantzes". Peruren adiskideak dira biak, eta bakoitzak bere euskeraz diardu. Ez dute irurak elkar aditu eziñik, bakoitzak bere euskera erabilliarren. Maixu Joanek ez dio ain ondo ulertzen prantesari. Arriturik dago, entzuten duen izketa euskarazkoa danik siñestu ezinik. Ortik sortzen da onoko eztabaida au:

"Peruk: Ez dakit onen euskeriaa aituko dozun.

M. Joanek: Zer, euskeria izan ta nik aitua ez?

Peruk: Ni eginda nago onei entzutera, ta zuri baizen ondo aituten deutset".

Peruk pranzesarekin jardunalditxo bat eginda gero, ea ulertu dien galderzen dio Maixu Joani, eta onek erantzun:

"Berba banaka bat bai, ezer ez geiago. Orren arin esatea, jijaka berbak aitautia ez da neretzat". Eta ez du siñestu nai euskera danik ere entzun duena, bai adarra jotzearren asmatutako izketaren bat. Eta Peruri berri galderzen dio:

"Peru, ta zuk aituren dituzula berba-saltsa ta gatx orrek?"

Peruk: "Bai nire emazte ta umiak bere".

M. Joanek: "Zelan ori, itoaren itoz eta arin esan biarrez ta arnasatsots batzuen artean badiño guztia?"

Peruk: "Alan uste dozu zuk; baiña egingo baziña soinu onetara ta aitua berbak, etzenduke orrelangorik esango. Neuk bere lenengoz etorri zanian, ez neutsan zeuk baiño geiago entzuten; baiña orain txit ederto derizt".

Panzasak berak aitorten berdintsua, antzerakoa, egiten du:

"Neri ere Bizkaira ethorri nintzen lenbiziko egunetan, zuri bezala gosta zitzaitan emengo euskera aditzen. Orain berriz nerea bezela aditzen dut".

Peru Abarkan ikusten degun prantzes au ez da, noski, Mogelek asmatua. Prantziako matxinada inguruan, mugaz andiko euskaldun eta erdaldun bat baiño geiago, askotxo, etorri zan onuntz, eta Markiñan ere gelditu zan bat edo beste. Arrezkeroko abizenik ere bada gaur Markiñan, bat Duralde beñik bein. Eta olako orri gertatuak argi berria ematen digula esan genezake, gure euskeraren banatasuna eta batasuna ikusteko. Euskera, zatitan banandua egon arren, bat dala adierazten digu. Etxeberri Sarakoak zioena. Eta elkarrekin jarduteak, artu-emanak izateak asko laguntzen duela esaten digu besteen euskerara belarria oitzeko, eta batasunera bidean jartzeko.

Emen bukatzen det itzaldi onen leenengo sailla. Iru edo lau irakaspen atera ditzakegula uste det esan degunetik. Gure klasikoeak erakutsi digute,

leenbizi, gure izkuntza banandurik, zatiturik, dagoela, euskera ez dala euskaldun guztiengan berdiña.

Gero, idasle batzuek erakutsi nai izan digute zerk egiten duen, nondik datorren euskera ain banandua eta zatitua egote ori. Elkarrekin artueman gutxi izatetik omen dator geien batez, elkar gutxi ezagutzetik, literatura urria eta ezberdiña izan eta bera ere ez irakurtzetik. Gero, idazleak geienetan beldurrez bezela ibilli dira, irakurleak ulertuko ez ote dituzten. Orrela euskera murriztera egin dute; leku bateko euskera bestekoarekin aberastu bearrean, uzkur ibilli dira, beldur izan dira bakoitzak bere aberastunak besteei eskaintzen. Eta ez da or gelditu gure okerra. Txarrena izan da erderara jo degula, guk uzkurtasunez eta beldurrez galtzen utzitako itzen utsuneak betetzera. Ortik ere banakuntza-iturri berri bat sortu zaigu, bakoitzak urbillen izan duen erderara jo duelako, emengoak Gaztelakora, eta angoak Prantzia eta Biarnokera.

Euskera zatitu ori ikustean, zer egin dute gure idazleek geienetan? Aalik eta euskera batuena, jakiñena eta zabalduena egiten saiatu. Neurri urrian baizik ez dute egin Larramendik Mendibururi esaten zioena: nozik bein beste euskalkien bateko edo beste erriren bateko itzak erabiltzea. Mendiburuk egin zuen, bai, noiz edo bein, eta ori euskerarentzat aberasgarri izan da. Geienak beldur ziran, erreztasunera, ulerterrazago izatera jotzearren. Mogelek esan digunetik atera genezake ez zutela orrenbesteko beldurrik izan bear. Badirudi Mogel ez datorrela guztiz bat Kardaberazek eta Etxeberri esan zutenarekin: alegia, Bizkaiko euskaldunak ez duela Naparren euskerarik aditzen. Artara oitza, ori da guztia, or dago kakoa. Peruk eta Prantzesak leenbizikotan ez zuten elkar aditzen; gero, berriz, ederki. Elkar entzutera oitzeak dakar aldaketa ori.

Gaurko egunetan ere, orixe litzake askoren iritzian, batetasunerako biderik garbiena.

## II

Baiña oraingo joerak beste bide batetik dabilta, noski. Leenagoko idazleek, klasikotzat dauzkagunek, nolabaiteko batasuna egin-naia ba-zuten, bai, bakoitzak bere euskalkian bederen. Orain gorago jo nai da: euskalkien arteko edo gaiñetiko batasuna lortu nai da, euskera idatzian beintzat. Beste izkuntza landuetan bezala, euskaldun guztientzat euskera bat jarri nai da eredu nagusi, eta ori goitik bera ezarrita.

Joan dan mendean, emeretzigarrenean, asita gabiltza asmo auetan. Eta leen leenik, ortografiako batasuna egiterako joera izan genuen.

Nortzuk izan ziran aurrelari? Nortzuk eman zituzten leenengoko uratsak, pausoak, emen, ortografiaren sail ontan? Saia gaitezen erantzuten, ea askoren iritzi okerrak zuzentzeko aña argi egiten degun.





Askok uste izan dute, eta uste dute oraindik, ortografiatzko auziak gure artean Bidasoaz onutzeko euskaldunok sortuak ditugula. Eta ez asmorik garbienaz sortuak, gainera, erdaldunenganik bereiztearren, edo gure buruak nabarmentzearren edo olako arrazoiren bategatik. ez da ola, ez ala. Oso bestela baizik.

Gai ontan bide berririk urratzen ez gihan emen asi, Bidasoaz andiko aldean baizik. Nondik asi bear zuen? Literatura asi zutenen aldetik asi bear. Berezkoa da. Esaterako, Leizarraga bera asi zan K erabiltzen: bekatu, ukan, ekarri eta ola, geroagoko beste batzuen kh-ren ordezkoa. Toki berean Etxeparek beccatu jartzen zuen, h-rik gabe, bi letrekin, baten orde. Jakiñak dira, edo jakintzat ematen ditugu Oihenarte-ren alegiñak, H letratzat ez on artzeko. Au ere neurri batean Leizarragaren askolakoa zan: baiña ura baiño aurrerago zijoan: bake, adiskide, uken, bekaiz, eki, eta ola idazten zuen, eta beste tarteko H-en ordezkotxo bat erabilten zuen: *be'e*, ez *bethe*.

Baiña antziñakoen ezbai eta joerak utzita, goazen oraintsuagoko batzuetara, XIX'garren mendeko saio berrietara.

Aipatzekoak dira bi bide-urratzaile: 1838-n, *Andre Dena Mariaren Ihabethea* argitaratu zuena, eta Luis Luziano Bonaparte. Nor zan leenengo ori? Badirudi gero ere idazten jarraitu zuen apaiz bat zala: Jaureche apaiza.

Nola nai ere, 1838'ko liburuaren egilleak bide berri bat urratu nai izan zuela ukatzerik ez dago. Argi eta garbi esango zuen euskerak bere idatz-legeak, bere ortografia izan bear zituela eta berak ortarako arau batzuk ematen zituen.

Onen urrengo, Bonaparte Printze jauna izan zan bide ortan pausu berririk emango zituena. Ez zan bera euskalduna. Ala ere, Euskalerriko euskera berezi guztiak aztertzen ari baitzen, beste iñork baiño argiago ikusi zuen ortografia berri baten bearra, eta euskerarentzat egokiena zeritzana asmatuko zuen.

Bi auen ondoren, eta berauen bidetik datoz gero Bidasoaz onuzko saioak. Bonaparteri jarraituko zion Manterolak gure artean, eta Jaureche eta Bonaparteren ildotik ekin zion Aizkibelek bere Iztegi aundian. Geroago sortu ziran Azkue eta Arana Goiri, bide berriei azken eskualdia edo ikutua ematen.

Baiña goazen poliki eta astiro, eta ikusi dezagun nondik nora zebillen *Mariaren Ihabethearen* egilea 1838-n.

Aurrenik, gure ortografiaren anarkia erakusten zigun, gure arteko legerik eza, araurik eza.

Euskal-idazleek erdal-ortografiari jarraitu omen diote geien batez. Baiña argi omen dago euskerak bere soinu eta otsak ba-dituela eta ortaz bere ortografia bear duela. Ez bedi aipatu oraiñarteko usadio edo oiturarik. "Ez bedi ekhar, dio berak, oraiartinoko usaia; usaia klarki gehientzat kaltekor denean, utzi behar da gehientzat ona denaren hartzeko". Onekin ez du besterik eskatzen euskerak beretzat on dituen letrak artu bear dituela bai-

zik, eta on ez dituenak utzi. Idazle onek ez du nai bere burua ortografi berri baten asmatzaille azaldu. Gai ontan jakintsu diranen irakatsietatik euskeraz idazteko legeak atera, besterik ez du egin nai.

Iru dira Jaureche dalako onentzat legeak: leenbizikoa, izkuntza bakoitzerako ez degu artu bear izkuntz ortan ez dan soinu edo boza dakarkeen letrarik: bigarrena, soinu edo boz bakoitzarentzat ez da bear letra bat bera besterik; irugarren legea, oraino gutxiago erabili bear da letra bat bera soinu bi edo geiagorekin.

Iru arauok gogoan dituela, idazle onek letra batzuk kendu egingo ditū euskal-alfabetotik: *q*, *v* eta *y*; *g*-k beti soinu berdiña izango du; berdin nai du *c* letrarentzat, edo kendu eta aren ordezk *k* erabili; *x* biguñaren ordezkoa danean, beti *zeta* idatzi. Orrela euskal-ortografia ia gaurko legean gelditzen da. Bakarrik, *x* eta *tx* idazteko ez du ezer berririk asmatu eta leenean utzi ditu, bata frantzes erdaldunen *ch* utsa, eta bestea, berriz, *ch* ori bera, *t* aurretik duela.

Jaurechek eman gabeko pausuak geroxeago Bonapartek emango zituen. Eta or daukagu, azken batez, Aizkibelek eta Manterolak Gipuzkoan eta Luis Iza Agirrek 1881-garren urtean Bizkaian sartu zuten ortografia.

Orduan asi ziran Bidasoaz emendik xeetasun geiago eskatzen eta laster agertzen dira Azkuek eta Arana Gorik zabaldu zituzten legeak.

Bi auen inguruan sortu ziran eztabaidarik gogorrenak, beti elkarrekin aditu eziñik, batzuek eta besteak elkarri amor emateko gogo gutxi erakusten zutela.

Eztabaida auek mugaz emendiko aldean gertatzen dira. Baiña, azkenez, ango eta emengo, guztiak elkar artu eta ulertu naia erakutsi zuten. Ortarako batzorde bat jarri ere bai, Adema Zaldubi idazlea buru. Utsean gelditu zan dana. Batzordeak porrot egin zuen. Eskola guztietakoak, joera guztietakoak ziran tartean, Arana Goitarren aldekoak ere bai. Batzarrak uts egin zuen. Noren erruz? Bototara erabaki bear ziran eztabaidak, eta Aranatarren beste guztiak baiño batzarkide geiago ziran batzarrean, beren artean gai artan iritzia emateko eskolarik naiko ez zuten ere bai, besteak ziotenez, eta orrela besteok ez zuten jarraitu nai izan. Orrela aurrera egi-terik ez zegoela-ta, etorri zan bidetik itzuli zan bakoitza etxera, ezer erabaki gabe. Ez dago beste itzuli emen. Eta ortografiari buruzkoa zan auzi guzia, ez euskera batuarena. Ez da ere egia (oker dabiltza bestela diotenak) ango eta emengo artean orduan alkar aditu eziña sortu zala. Ain zuzen orduan edo ordutik aurrera artu zuen indarra ango eta emengo arteko elkarte batek, *Euskalzaleen Biltzarrak*.

Urrengo alegiñak ortografi-batasunerako, Euskaltzaindia sortu zanezkoak dira. Ia ogei urte geroago. Euskaltzaindiaren eskuetan jarri zan auzia, eta onek eman zuen bere erabakia 1920-ko urtarrillaren 8-n, Aranatarren arau batzuk ontzat emanez eta on artuz: *erre* gogorra ere, gainean puntu batekin, ontzat eman zuten, eta *d*, *t* eta *l* bustiak ere bai, gainean marratxo



batekin, eta *x* eta *ix*, bata prantzesen *cb* eta bestea gaztelarrena idazteko. Azkenengo letra auetan zeukaten aldea Azkue'k eta Aranak, ain zuzen, eta Euskaltzaindiak Aranaren aldera erabaki zuten.

Urte batzuk geroago, 1939-n bukatutako gerratearen ondoren, Euskaltzaindiak erdi ixilpean ziarduela, letra marradun edo txapeldun aien ordez, letra bikoitzak erabili zitezkeala erabaki zuten: *erre* bikotza, alegia, eta *d*, *t* eta *l* bikoitzak. Ortan dago gaur ortografi-batasuna. Batasun onek nolako erantzuna izan zuen euskal-idazleen artean? Bidasoaz emendik, geien batez, aintzat artu zutela esan bearrean gaude. Bidasoaz andik ez zuen erantzun ain biribillik artu. Eta gaur ere ortan gaude.

Auzi ontan, norbaitek esan dezake ez degula H-ren aipamen aundirik egin. Gauzak gaurko begiz ikusita, emen utsune bat dagoela esan lezake norbaitek. Ex da olakorik. Zergatik egin bear genuen letra orren aipamenik, ortaz ez baitzan izan eztabaidarik ez auzirik, ez aurka ez alde. Bai; gaurko giroan sartuta dauden batek bear bada ezetz uste arren, ala da. Leenago ez zan izan oraingo borrokarik: H bai, ala H ez. Emengoek ez ziran leiatu angoei H kentzen, eta angoek ere ez zioten emengoei letra ori sartzekorik eskatu. Ortografi-utsezko eztabaidak ziran ordukoak, zein soñuri edo zein otsi zein letra egokiago zitzaion erabakitzekoak. Ori zan guztia. Eta H orri buruz, ain zuzen auzia erabakitzat eman zitekean: letra erabili bear zan, letra orrek berea zuen arnas-otsa adierazteko. Oihenarte andiaren iritzia edo joera, H ori letratzat ez onartzekoa, euslerik gabe gelditu zan eta aazturik zegoen. Eta H-a or gelditu zan bizirik bere soñua erabiltzean duten euskalkientzat, baiña andik kanpora iñork ez zuen ezer jokatu letra orren alde. Ez orren, ez Zuberotarren i-ren alde.

Oraingo joera urte gutxiz onuzkoa da. Batez ere, Baionako batzarretik onuzkoa. Emengoen artean iñork leenago erabili badu, ez da izan letra orri gure euskalkietan leku eman eta sartzearren, batasunerako euskeratzat Lapurtarren euskera edo antzekoa artzearren baizik.

Gai ontaz ez det luzaroago jardun nai. Esana aski bedi.

### III

Ortografi-batasuna egin ondoren, euskera berdintzeko alegin eta saioak datoz urrengo. Au ere, Euskaltzaindiaren ardurapean, Euskaltzaindi sortu-berria bide-erakusle dala.

Urrats au urrats berria, pausu berria degu. Artean lau euskalki nagusi genituen, laurak nolabait berdinduak eta geiago edo gutxiago landuak, bakoitza bere literaturarekin. Emendik aurrera, aiei guztiz agur egin gabe, baiña aien gaiñetik, euskera bat lortu nai da, euskaldun guztientzat eredu jartzeko bezelakoa. Ortara iritxi nai liteke, beintzat euskeraren literatur-mailla baterako.

Euskaltzaindia sortu zaneko azaldu zan asmo eta ames ori. Gure izkuntza bat egitea, edo batasunera bidean jartzea, ori izan zan Euskaltzaindiak aurrean jarri zituen elburuetatik bat, eta ez garrantzirik gutxienetakoa. Oraindik ez du iritxi. Gauza zailla izan, noski, ez berez berezko lana. Baiña alegiñik egin da bide ortatik, leen eta orañiago.

Leen eta orañiago esan det. Au esanaz, bi aldi berezi nai ditut batasunaren billa egin diran saio eta ekiñaldietan. Biei gain-begiratu bat egiten saiatuko naiz.

Leendabiziko aldia, Euskaltzaindia sortu-berritakoa.

Egia esan, batasun-nai au ez zuen Euskaltzaindiak berak sortu. Ikusi degunez, ez ziran egon euskaldunak leendik ere beren gaitzaz konturatu gabe. Eta gaitz ori sendatzeko alegiñik egin gabe ere ez. Baiña zenbat eta elkar ezagutuago, zenbat eta euskal-gogoak sustrai sendoagoak bota, geiago nabaritzen zan euskaldun guztiek euskara bat izan bearra. Eta gureak berez esnatu ez balira, or zeuden atzerritarrak gogoratzeko. Laster dira, ain zuzen, eun urte, atzerriko izkuntzalari batek (Hovelacque) onako zerbait esan zuela: "Izkuntzarik geienek, tokian tokiko izkeraz gaiñera, beste zabalduago bat ba-dute, alkar artuz bezela sortua, eskolan edo nonbait ikasia, eta literaturak erabiltzen duenaren antzekoa, edo aren urbillekoa. Euskalerrian ez da olakorik gertatzen; idazle bakoitzak bere euskera du".

Izan ere, ala da guk lau host euskera ba-ditugu. Euskaldun guztiek elkar errez ulertzeko euskerarik ez da gure artean sortu. Odazleek pausu txiki batzuk eman dituztela aurrerago joateko, baiña bakoitzak bere euskalkiaren barruan, euskaldun guztiek elkar aditezko erarik lortu gabe.

Idazleek banaka lortu ez zutena, norik edo zerk lortu zezakean? Geienak Akademia baten begira zeuden. Iñork ezer lortzekotan, Akademiak lortu bear zuen. Akademiak ezarri bear zuen batasuna ortografian, idazkeran, eta berak urratu bear zituen euskera batu baten bideak ere. Iritzi ortakoak ziran okerra zuzendu nai zuten geienak. Eta orra ortako ordua iritxi, orain dala berrogeitamar urte.

Ordu orren begira, lentreago asiak ziran, bai, saiaketa bat edo beste, esaterako, Azkuek bere *Promptuario de la Lengua Vasca* liburuan egiña, Gipuzkera osotuari bidea iriki naiez.

Baiña egia da gero Euskaltzaindiak artu zuela bere gain egiteko au. Iru elburu izango zituen Akademia sortu-berri orrek, onela zion lenbiziko urtean zabaldu zuen orritxo batek. Iru elburu: leenbizikoa, euskeraren ortografia bat egin; bigarrena, iztegia garbitu eta osotu; eta irugarrena, euskera literario bat, euskaldun guztientzat balio zezakena lortzen lagundu. Irugarren elburu au gero Euskaltzaindiaren arauetara eraman zuten. Eta bertatik ekin zioten lanari.

Zer egin zuten, egin? Leenbizi, ortarako zer giro zan ikusi, iritziak eskatu. Batasunik bai ala ez, eta nola egin.



Leenbiziko galderak baiezkoa artu zuen geienen aldetik. Zaillena gelditzen zan: batasuna nola egin?

Bi euskaltzainek, Kanpion eta Broussain jaunek, eman zuten aurretiaz beren iritzia. Bi bide arkitzen zituzten egokienak batasunerako: leengo euskalki landuenetako bat artu literariotzat euskera idatzirako; edo beste euskalki bat, bederatzigarrena, sortu, leengoetako bat oiñarri arturik.

Euskalki zaarretan, zaarrez eta landuago, Lapurdiera ikusten zuten landuena eta egokiena ortarako. Baiña Lapurdiera zaarra orain illa degu. Lapurtarrek ere ez dute erabiltzen. Naiko aldatua daukate. Beraz, bide obertzat zeukaten gaurko egunetako euskalki biziren bat autatzea: gipuzkera, edo gipuzkeraren urbillekoren bat. Batez ere, gipuzkera, guztien erdian dagoelako, eta euskaldun geienentzat ulerterrazena dalako. Baiña ez gipuzkera utsa ere. Nola galtzen utzi beste euskalkietan gorde diran ainbat ondasun? Beraz, gipuzkoarren euskera -besteen ondasunez osatu egin bear zan.

Euskalerriaren iritzia jakiteko, lau batzar antolatu ziran bereala: Bilbon, Donostian, Lekarotzen eta Hazparnen. Idazle batzuek, berak beretara ere, oiali zuten beren esatekoa.

Iritzi-emailla guztiak ez zetozen bat. Batzuek zioten ez zala, beintzat, euskalkirik ito bear; ori euskeraren eriotzea izango zala. Euskalki bakoi-tzean batasuna egin, bai; besterik ez zuten nai, euskera biziaren kaltegarri edo ilgarri izan ez zedin. Inor beartu gabe jokatu bearko zan, nola nai ere. Beste batzuentzat, euskeraren bizia, euskeraren etorkizuna, euskera batuan zegoen. Eta iñongo euskalkirik artu bear bazan oiñarri, botorik geienak Giputzen alde zeuden.

Aldi artan erdaldun izkuntzalari batek (Ramón Menéndez Pidal'ek) itzaldi bat eman bear zuen Bilbon, eta egun aietako gai oni buruz oar batzuk egiten zizkion Euskaltzaindi sortu-berriari, Euskal-Akademiari, Kanpion eta Broussain jaunen ageria irakurri ondoren.

Bera ez zan jaun oien iritzikoa. Menéndez Pidal-entzat Euskera batuak erriarena izan bear zuen. Baiña gipuzkera batu ori, Kanpionek eta Broussain jaunak azaltzen zuten ori, izan zitekean erriarena? Ezezkotan dago erdaldun izkuntzalari. Orregatik, beste bide bat erakusten du batasunera irixteko. Gogoan du, leenbizi, izkuntza ez dala gramatika-bidez sortutako ezer, bai gizarteak, erriak sortutako zerbait. Munduak ez dauka, ez, izkuntza berri bat sortu ezinik; baiña ez omen da ortara iritxiko, izkuntza beririk asmatuz, volapuk edo esperantoak sortuz, edo beste izkuntza batzuk naastekatuz.

Menéndez Pidal orren eritziz, euskaldunek euskera bat izan ezinik ez daukate; baiña ez dute beingoan edo bat-batean zortuko. Lapurdiera naiz gipuzkera neurri egoki batean naasturik, gaiñera beste euskalkietako ondasun batzuk ari ezarrira, ez litzake gauza izango orrelako euskera batean liburuak ateratzea ere; baiña, aren iritziz, ori ez da sekula erriarena izango.

Orrela euskeraren bizia etenda geldituko litzateke. Olako euskerak leengo mendeetako euskerarekin lokarri gutxiegi izango luke. Euskaldunek ez al dute beren euskera orrela ilko, ez Bizkaikoa, ez beste iñongoa.

Ala ere, euskaldunek euskera literario bat bear dutela eta nai dutela dirudi. Ezingo al dute ori iritxi, artifizialkeriarik gabe? Baietz uste du Menéndez Pidal-ek. Artifiziala, itxura utsezkoa izango da landarea, alanbrezko adarrez eta paperezko ostoz ornitzen badegu; baiña ez da olakoa izango, azia erein eta lanaren lanez erneazi eta azten laguntzen baldin badiogu. Orrelakoak izan bearko du euskera batuak ere, baldin errian sustraiak artuko baditu, eskolatu gutxi batzuek erabiltzeko tresna izango ez bada. Zer egin dezake, beraz, Euskaltzaindiak? Esaterako, indarrrik geien erakusten duen euskalkiari aurrera egiten eta zabaltzen lagundu lezaioke. Euskalki bakoitzak erakutsi dezala bere gaitasuna, zeieñek daukan zabaltzeko edo edatzeko bizitasunik eta kemenik geien, eta beste euskalkien ondasunak beretzeko indarrrik geien. Olako euskalkiak berez artuko du indarra idazleen lumetan. Eta idazleek lagunduko diote beste guztien artean nabarmentzen eta gaiña artzen. Orrela sortuko dira idazleen lumetatik itz berriak ere. Eta itz berriok ere, berak nausituko dira, piskaka, ia igarri gabe.

Egiteko ontan euskaldunak ez zuten urduriegi ez lasterregi jokatu bear. Ez eta aginduz, goitik bera, legez ezer ezarri.

Euskaltzaindiak ez zuen aldi artan jokatu izkuntzalari erdaldun onek erakutsitako bidetik oso urrutiturik. Ez zan legez ezer erabaki, ez agindu. Beste bide batzuk edo egiteko batzuk zeuden ordukoz beñagoak: Euskera sakonago aztertu eta ezagutu, gramatika osoago eta jakite-argiz ornituago bat atera, iztegia ugaritu, euskalki guztien ondasunak bildu. Bide ortatik joaz sortuak dira Azkue-ren Morfologia, errietan egindako azterketa edo Erikkizundia, itzen eta aditzen formarik erabillienak jakiteko; ortara zi-joazten Iztegi alik osoena egiteko lanak. Ortarako izan ziran, esaterako, Aita Oyeregiren itzik zabalduenezko iztegia. Azkue jauna, gaiñera, berak leenago eta gero geienen gogoko gertatu zan bideari ekiñez, Gipuzkeraren inguruan saiatu zan euskera batua moldatzen eta ala bere Gipuzkera Osotua dalakoa eman zigun, literatur-euskeratako oiñarri edo enbortzat Gipuzkoakoa arturik.

Azkuek berak jokatu zuen Gipuzkera Osotu orren alde beste iñork baiño su ta gar andiagoz. Onela zion, Euskaltzaindi sortu aurretik, Gipuzkoako Diputazioari eskiñi zion liburu batean: "Gure euskera zar oni, antziñako izkera guztiai bezela, umetsua izateak beronen bizia erruz erkitzen dio. Bakarra izan balitz, euskaldun geienok ezkenduke adiskideen artean erderara jo bear izango. Ezin bakartu dezakegu, batu bai... Oso ta nun-nai zabaltzeko indardun izango litzake bat egitea eskuratu (lortu) ezkerero. Gipuzkoako izkelkia (euskera) dugu onetarako gaiena; beronen gainean izkera batu liteke; bazterretako izkelkien gainean ez, erraz beintzat. Jaunak Euskalerriaren erdi-erdian Gipuzkoa eta izkelki guztien muntzat



berarena jarri duen ezkerotzik, Gipuzkoak ar beza, beste Aldundiak baiño ere gogozago, izkera bati bizibidea emateko ardura eta arloa”.

Gipuzkera osotu ortan egin nai izan zuen Azkue bere nobela *Ardi Galdua*. Eta onen itzaurrean berriz ekiten dio bere leloari: “Euskera ilgo ezpada, orazekoa, nai ta nai ezkoa degu izkelki bati, dialeko bati euskaldun guztioek errazen ulertzen degun izkelkiari, Urumea-bazterrekoari indarra eta kemena ematea”.

Eta geroago, Gipuzkera osotua atera eta gero, batasun-billa Bilbon, Donostian, Lekarotzen eta Hazparnen egindako batzarrak aipatu ondoren, bere egiten ditu beste Bizkaitar baten itzak, Biktor Garitaonaindiarenak: “Nire aburuz, Gipuzkoako izkelgia autetsi bear da, beste izkelgiak baiño obari geiago dituelako bere alde. Errazago da, bai zabaltzeko eta bai ulertzeko. Beste guztien erdian arkitzen da; eta errazago da erdikoa bere inguru edo alboetara zabaltzen ertzak bat egiten baiño. Bizkaitarrak ulertzen dabe Gipuzkoarren izkera, Gipuzkoarrak ez Bizkaitarrena. Zuberotar edo Lapurtarren artean ori bera jazoten da (gertatzen da). Idazle guztien euskera ori ez da izango gaur egunean itz egiten edo idazten dan Gipuzkoera, baizik osotua, apaingua. Artu, bai Bizkaiko eta bai Zuberoko eta bai Napar eta Lapurdiko izkelgi edo euskerak dituzten edertasun eta obekuntza bereziak eta Gipuzkoako izkelgiari ezarri”.

Orra Gipuzkera osotua nai zutenen elburua. Eta bide ortatik egin ziran alegiñak eta saioak, ogeitamaseko gerratea etorri zan arte. Orduan bai Euskaltzaindiaren lanak, eta bai euskerazko lan guztiak, etena izan zuten zati baterako, Euskalerra indarrak menderatu zuen ezkeru.

Eta berriz euskerak eta Euskaltzaindiak burua jasotzen asi ziranean, beste joera bat dator. Nola? Nortzuk dakarte joera berria?

Bi izen aipatu nai ditut emen: Krutwig jaunarena, eta Lafitte apezarenena. Bata, aita alemanaren semea, Bizkaian jaioa; mugaz andikoa bestea. Batez ere, Kurtwig jauna izan dala uste det nik oraingo bide berrien aita. Ez zuen berak euskera amaren altzoan ikasi, bai liburuetan eta anorko erritar batzuekiko elkar-izketaldietan. Jaun onek erdiz erdi artu nai izan zuen Lapurdiera zaarra batasunerako oiñarri bakartzat. Gazterik zabaldu zizkion Azkue jaunak Euskaltzaindiko ateak. Eta andik, barrutik ekin zion bere lanari.

Idazle zaarretan billatu bear omen zuen euskerak batasunerako bidea eta iturria. Gure idazle zaarretan ospetsuenak, landuenak, ongien idatzi zutenak, Lapurtar zaarrak artu bear omen genituzke eredu, eta ez iñondik iñora ere oraingo lapurdiera, Manex-kutsua darioena.

Krutwig jaunarentzat, gaiñera, Lapurdi dago, ez Gipuzkoa, Euskalerraren erdian. Eta mapa buruz bera jarrita, alegiñak egiten zituen ori ala zala erakusten, egiztatzen.

Aren iritiz, lapurdiera zaarra artu, eta eginda daukagu batasuna. Ori, bai; edozein idazleri antz emango zaio nontzukoa dan, bakoitzari geldituko omen zaio bere kera eta antza, beste izkuntzetako idazle askori

gertatzen zaion bezela. Baiña bide zuzena eta bakarra or degu, eta ez beste iñon. Ortan jaun onek ez zuen zalantzarik.

Krutwig jaunak bere eskolara ekarri zuen aita Villasante. Bere eskolara, eta Euskaltzaindira. Eta orixe izan zan ain zuzen Aita Villasantek Euskaltzaindian sartzerakoan artuko zuen itzaldi-gaia. Giro ortan du sustaia beste Billboko idazle baten joerak ere, Aresti jaunarenak, alegia. Eta onen ildotik dabiltzan beste oraingoko batzuen joerak ere, bai.

Euskera iltzat leen baztertu zana, Lapurdiera zaarra, orixe jarri nai digute euskera idatzi eta literarioarentzat eredu eta lege.

Joera orrekin aurrez aur, bekoz beko, daukagu Lafitte apez zentzuzkoarena. Onek ere batasuna maite du, eta batasuna nai luke, mugaz andiko idazleentzat beñik bein. Lapurdiera zaarra iltzat dauka, eta oraingo lapurdiera eta Nafarroa Behereko euskera ein batean naasturik egin du andiko aldeko guztientzat lege nai luken euskara eta euskal-gramatika.

Lafittek uste du Euskaltzaindiak ariñegi, lasterregi jokatu zuela Gipuzkerari begira jarri zanean. Gipuzkera nekez on artuko dute beste aldean. Eta arako beintzat euskera batu bat nai du: ez Lapurdiera garria, ez Naparrera, bai bien artekoa, Zuberoko euskera-tanta batzuekin naaste. Euskera ori nausitu omen da ango idazle eta sermolaririk geienen artean, Zuberotarren artean izan ezik. Geiena Lapurdiketok artu du, au baita landuena, literaturarik urgariena izan duena. Leenari zor zaio berea. Baiña ez gelegi. Orregatik, dana Lapurdiera izan ez dedin, napar-euskeraren kutsu apur bat sartuko zaio, eta Zuberokotik ere bai zerbaixu.

Ori da Lafittek bere Gramatikan erakusten duen euskara, napar-lapurdiera. Jakiña, batasuna au Bidasoaz andiko alderako da. Bidasoaz onakoentzat ez du Lafittek legerik eman nai. Ala ere, ez uste, euskaldun guztien batasuna gogoan ez daukanik. Ori ere piskaka piskaka lortu daitekena da, eta opagarri. Noiz edo bein etorriko al da! Bien bitartean, egin dezagun bakoitzak gauere aldeko batasuna. Beste ori, urrenez urren, gogorregi jo gabe, emeki emeki, idazleek ekarriko digute. Ori da maixu onek nai lukena.

Auen ondoren, bear bada, beste batasun-saio batek merezi luke aipatzea. Beronen bultzatzailea: J. Basterretxea jauna. *Oskillaso* ezizenak egin du ospetsu. Egia esan, berandu samar azaldu da euskal-alorrera. Baiña bai bizi zekarrela batasunaren kezka. Eta artarako bide bat asmarazi dio kezka orrek Izena ere berria asmatu du bere ume orrentzat: *Euskera osotua*, ez ain zuzen *Gipuzkera osotua*.

Entzun dezaiozun berari, *Kurloiak* izeneko liburuaren sarreran bere asmakizuna azaltzen: “Orai direla hoge ta amar bat urthe hasi giñean euskaldunok batasunaren bilha, eta egin dugun aurrerapenaz konturatzen geranean, arras laburra iduritzen zaigu denbora hori.

“Lapiko batzuekin azalduko dizuet dana irakurle.

“Hasieran zazpi lapiko geneuzkan: Bizkaiera, Gipuzkera, Napar Garraikoa, Napar Beherekoa, Lapurdiera, Zuberoko euskera ta Errokarikoa.



"Lapiko bakhar bat behar genuela ta bat hautatu ta beste lapikoetatik tanta batzuk bota genizkion. Hunela sortu zan lenenbiziko batasun-euskalgia.

"Gero, Peruk, Pernandok eta Manexek dastatu behar zuten eltze huntan gordeten zana, Huna zer erran zuten:

"Peruk: "Etxat gustetan lapiko hau", erran zuen, "neurea gustetan jat askozaz gehiago; baiña tira, beharrezkoa dogu batasuna eta iruntzi egin beharko dogu".

"Pernandok: "Gusto bikaiña du. Ba-aldago eltze oberik?, erran zuen.

"Manexek, berriz: "Eztut iresten ahal, erran zuen. Etzait laket".

"Anhitz liburu egin ziran lapiko bakarrarekin. Ikus dezagun orain nola egin ziran, zelako abegia egin zioten irakurleek, eta zer gertatu zan gero.

"Buru-hauste asko eman zioten Peruri liburu hauek, eta bizkaiera hutsezko liburuak bethi bezala idatzi eta irakurri arren, saiatu egin zan Gipuzkera Osotuan idazten eta irakurtzen. Manexek etzituen ulertzen liburu haiek. Baiña Pernandorentzat errezak eta pozgarriak ziran. Etzan gelditu Manex lanik gabe eta opor egiten. Huna zer egin zuan gero batasunaren alde: lapiko handi bat hartu, Lapurdiko eta Benaparroako eltzeak osorik hustu lapiko handi huntan, eta Zuberoko lapikoaren erdia bere barnera bota zion. Eragin ondo, eta bigarren batasun-euskalkia jaio zan hunela: Napar-Lapurdiera".

Ona guk leen aipatu degun Lafitte jaunaren lana gatz eta piperrez azalduta. Orain zer berri dak Oskillasok? "Manexek egin zuana arras egoki iruditu zitzaion eta hartu lapiko handi handi bat, Manexena baiño bi bider handiagoa, eta han sartu du lapiko hauien barruko gutzia liburutto hunen egileak. Eragin ondo eta hemen dizu dasta dezazun".

Orra Oskillasoren euskera osotua, euskera guztien puskaz egiña. Nolabait, Mogel-en "*Peru Abarka*"ko bizkaitar, gipuz eta frantzesena gogoratzten digu. Basterretxearen eltzean, lapikoan, euskalki guztiek sartzen dute bakoitzak bere koipea.

Etorri gaitezen orain azken-aldiko saioetara. Orain dala sei-zazpi urte agertu zan beste bultzada bat batasunaren alde. Mugaz andian abiatu zan, baiña emengoak zirala uste det bultz-eragille.

Or degu Baionako batzarra (biltzarra). Geroxeago Ermuko batzarra dator, eta azkenez, Arantzazukoa. *Bultzada* esan diot oraingo joerari. Eta alakoa da. Baionako batzarra ezkerreko, bultza eta bultza ari dira asko, egundaiño egin egonak jota bezela. Albait ariñen egin nai dute zerbait. Euskaltzaindia astiroegi eta epelegi omen zebillen. Eta Euskaltzaindiarekin naiz Euskaltzaindiaren gainetik, aurrera jo bearra omen dago. Eupada bat ere jaurtiki zitzaion Euskaltzaindiari "edo batasuna egin eta goitik bera ezarri, edo euskeraren etsai zarete, eta eren etsaien adiskide". (Enbata, n. 28, IX-1963).

Baionako batzarrak eman zuena or dago argitaratuta, orri batzuetan

jasota. Ango erabakiak, batzuk ortografiari buruzkoak dira. Emen agertzen da leenbiziko aldiz H-ren auzia. Euskera osoaren batasuna badirudi ez daukatela oraindik gogoan, bai euskalkien barrukoa. Baiña H ori euskalki guztietan sartzea nai dute bokal bi berdiñen artean, eta itz baten beraren bi adiera edo zentzu bereizteko (nahastu, aur-ahur). Ortik aurrera zillegi uzten dute; nai duenak erabilli dezala, eta nai ez duenak ez. Gero, zeri-kusi gutxiko oker batzuk zuzentzeko arau batzuk eman ondoren, deklinabiderako legeak ematen dituzte, eta aditza nola erabilli edo aditzaren zein forma on artu erabakitzen. Forma batzuk bi eratara erabiltzeko aukera edo baimena dago. Ez zan gauza andirik, baiña ez oso utsa ere. Eta gogoangarriena: Euskaltzaindiari dei egiten zioten, erabaki aiek aztertu eta onar zitzan.

Beste dei bat artuko zuen Euskaltzaindiak andik geroxeago: Euskaltzaindia sortu zaneko urre-etzaiak zirala-ta, gauza egokiena iruditu zitzaion norbaiti (Aresti jaunari), batasun-auzia berriz aztertu eta konpontzeko bidean jartzen saio berri bat egitea. Ala egitea erabaki zuen Euskaltzaindiak. Oñatiko batzar batek sortua da Euskaltzaindia, eta aren oroigarri, zer gauza egokiagorik, Oñatin beste batzar bat antolatu eta batasunaren oñarriak antxe bertan ipintzea baiño?

Bien bitartean, Durangoko Gerediaga Elkartea ere sartzen da tartean. Eta euskaltzale guztiei dei egiten die, Baionako batzarrari jarraituz, Er-muan batzar bat egiteko, ea aurrerago joteko biderik arkitzen zuten.

Emengo erabakiak ere argitaratuak daude. Zer da beren muiña? Ain-beste elkarriketa eta eztabaida izan ondoren, auxe baiño asko geiago ez: H-ari buruz Baionakoak erabakitakoa ontzat artu, eta Euskaltzaindiak Oñatin artuko zituen erabakiak aintzat artuko zituelakoa.

Beraz, berririo daude guztiak Euskaltzaindiak zer esango zai. Eta Euskaltzaindiak zer egin zuen? Oñatiko batzarra egin baiño leenago, euskal-idazle guztiei Arantzazura dei egin, an guztien iritziak jaso eta an guztiekin baten batasun-bideak urratzeko. Eta or bukatu zan dana.

Esan nai det, azken-erabakiak artzeko batzarra, Oñatikoa, ez zala gertatu eta Arantzazuko batzar ortan emandako bide-erdiko pausu artan, erabakitzekoan aurrerapen artan, gelditu zala guztia.

Beraz, Arantzazuko batzar ori degu aurreko lan guztien gallur bezela. Eta ara begiratu bearko degu. An egin zan lana, eta artu ziran erabakiak edo ziranak ziralakoak ere argitara emanak daude.

Artarako izendatu zan batzordeak lau edo bost illabetez ekin zion lanari, eta batzordearen lan ori Arantzazun iru egunez irakurri, azaldu ez eta aldeka edo aurkaka aztertu besterik ez zan egin.

Ondorena ba-dakigu. Erabaki edo erdi-erabaki edo erabaki-aurrerapen batzuk artu ziran; bat, H-ari buruzkoa, badaezpadakoa, eta bide-erdikoa. Ango gorian badirudi ezin izan zala geiago egin.

Euskaltzaindiak, bere batzordearen bidez, artuak zeuzkan aurretik bide batzuk, arau batzuk, eta auetatik ez zuen, noski, alde egin nai izan. Ona



zer irakurtzen degun, urte artan bertan, 1968-garrenean, epaillean artuta-tako erabaki batean: "Beti izango da kontuan batasunerako normak es-tuegiak ez izatea; bein baiño geiagotan bi edo iru era emango dira, den-boraren jardunean zuzenketak egiteko; eta, baita ere denboraren buruan premiak bearturik, punturen batzuk aldatu bearra izango dala".

Arantzarurako gertatu ziran gaietan puntu asko jotzen zan: ortogra-fia, itzen formak, morfologia, aditza eta abar. Guztietatik H-ari buruzko erabakia besterik ez zan artu, erdizkako erabakia bera, ez batasunerako ego-kiena. (Ongi ikusiko du... ez du gaizki ikusiko... aurrerago jo nai dute-nak...). Beste gai batzuei buruz puntu batzuk oiñarriztat artuko zirala, zein puntu izango ziran argirik eman gabe. Aditzaren batasuna beste aldi bate-rako utzi zan.

Gaiñera, guztia zan bein-beiñeko erabakia, "geroago ta astiroago ar-gitarako ziran erabakien aurrerapena", besterik ez, "gaiak geroago obeki lantzeko asmoz". Eta agiriaren buruan, asiera- asieran, aitorpen auxe: "Ba-tasuna, noski, ez da Euskaltzaindiak egin dezakean gauza; eta are gutxiago bat-batean egin dezakeana".

Gero sortu dan giroaren berri, gutxi gora beera, edozeiñek jakin de-zake. Batasunetik iñozko urrutien jarri ez ote geran nago. Iñoiz baiño eus-ker a berri geiago azaltzoben zaigu. Eta dana, euskera batuaren izenean. Ba-koitzat dauka bere euskera euskera batutzat, edo talde bakoitzak alakotzat dauka berak nai duena. Sariketarik baldin bada, lanak euskera batuan edo Arantzazuko arauen araberan egiñak izan bear dutela aginduko dizute. Or konpon noren euskera batuan egiñak izan duten ez badakizu. Ala edo ola-ko aldizkari batek, leengo euskalkien batean idazten jarraitu arren, nor-baitzuen atsegifñezko legeren batzuk bete ezker a, euskera batua darabilhela esango dizute. Bestela dabilhizan euskeraren etsai dira eta birao guztiak etorriko zaizkie gaiñera. Danerako ematen du bidea Arantzazuko Batzarrak. Beste batzuk, berriz, an egin zanari gutxi iritzirik, Euskaltzaindiaren azpi-tik edo gaiñetik, berek sortu nai dute euskera batu ori eta guztiei ezarri. Euskera batua ez ote da euskeraren izen gaizto gertatu? Ez da giro atsegi-ñik, ez. Leen baiño banatuago gelditzeko arriskuan ez ote gauden esan genezake.

Giro ito eta lorrin ontan, beldurturik edo, Euskaltzaindia ixilik dago eta, guk dakigula beintzat, ez du agindutako lanik aurrera eramán. Orre-la, orainarteko ekiñaldiei ez zaie azken onik ikusten.

Euskera biziarentzat (ala esan du oraintsu atzerriko izkuntzalari batek) arriskurik andienetakoa izango litzake euskera batu baten alde zomorro jo-katzea edo burukatzea. Leenago, oker bat ikusten zuten askok euskera batua dalako ortan, alegia, beste dialekto bat sortzeko arriskua. Orain da-ramagun bidetik, bat ez, dialekto mordoa sortzeko arriskuan ez ote gaude? Batu bearrean, zatituago eta puskatuago ez ote degu egingo euskera erru-karria? Eta azken batean, euskera batu orren aitzakiaz edo aren aldeko jo-

katzeko ustean, inguruko erderen alde ez ote degu jokatu, eta ez euskalki ez euskera batu gabe gelditu?

Zomorrokeriak utzita, arkituko al degu bide oberik, zentzuzkoa go-korik. Astiroegi, patxara geiegiz dabilhela egozten diote norbaitzuk Eus-kaltzaindiari. Ez dute ongi ikusten astiro jokatz e ori. Baiña gogoan izan ditzagun artarako izan leizken arrazoiak ere.

Entzun eta ulertu dezagun, esaterako, Mitxelena Arantzazun bertan esana: "Ezin bestekoa, hil edo bizikoa dela uste degu euskera batasun-bi-dean jartzea". Ez dio gaur bertan euskerak bat egin bearra duenik. Bata-sun baten bidean jarri bearra daukala dio. Ori egin bear omen du Euskal-tzaindiak. Eta ortarako, aipa ditzagun berriz Mitxelena jaunaren itzak, "gi-dari eta biderakusle agertu nai luke gauden egoeran, egin ditekeanaren neurrian".

Ora beste zentzuzko gizon baten eta izkuntzalari jakintsu baten itzak. "Gauden egoeran" zer da guk egin dezakeguna? Ori ez degu aurkituko, ez zoromoro jokatuaz, batasun bat goitik bera nola nai aginduaz. Gure iz-kuntza gaixo samar degu; ez dezagun zakarregi erabilli; ez dezaiozun geie-gizko sarraskirik egin, il ez dakigun.

Batasuna ez da ameslari batzuk uste duten aiñako erraztasunez egiten. Nekerik eta eperik bearko da ortarako. Oztopa-ari bat baiño geiago kendu bearko da bidetik. Mitxelena Arantzazun esana da urrengo au ere: "Ez da nor Euskaltzaindia, oraingoz behintzat, oiñarriztat zein euskalki hautatuko den erabakitzeko. Badira, hala ere, besteak beste, (eta Bilbao euskaldun ez dalarik), euskera idatziaren beharretarako egokiagoak dirala erdi-aldeko dia-lektoak bazterretakoak baiño". Baiña orain, batek baiño geiagok bazterre-takoetara jo nai dute, eta euskaldi zaar eta illetara gaiñera.

Are geiago zion Mitxelena: "Zenbaitetan, ez dago oraingoz deus egiterik, horretarako behar genituzken estudioak ez bait ditu iñork egin. Beste zenbaitetan, berriz, euskalkien arteko batasuna egitea gaitz bada ere, batasuna behar genduke euskalki bakoitzaren barrenean behinik behin, eta ori gure esku dago".

Izan ere, euskalki-barruko batasuna egiteko gai ez bagera, nola egin nai degu euskera osoaren batasunik?

Olako arrazoi eta besteren batzuk gogoan izanik edo dabil, nonbait, Euskaltzaindia ain astiro, ain kontuz, pausu ariñegi eta lasterregirik ema-teko beldurrez.

Oraingo askoren egon eziñak, dana arrapata egin bearrak ere bere arra-zoiak ditu, bear bada, benetakoak naiz itxurazkoak. Aspalditik entzuna degu bi bide ba-zirala batasunerako, bata *eboluzioz*, gerorik gerora, egitekoa, eta bestea *erreboluzioz* egitekoa, bat-batekoa. Azkenengo au naiago lukete batzuek orain. Baiña Ermuako batzarrean norbaitek esan zuenez, errebolu-zio batean aurreneko lana leengo jauregiak erretzea izaten omen da, gero ederragoak egiteko. Guk oraingo euskeraren jauregia erretzen badegu, ez dezagun uste gero berriz biurtu eta eraikiko degunik.



Orregatik zion Ermuan bertan beste gazte batek: "gai ontan zazpi begiekin ibilli bear degula".

Ez dezagun ames zororik egin. Euskera bat egiña bagenu, ura zoriona gurea! Bai, noski. Euskaldun guztiok elkar adituko genuke; euskal-liburuek irakurle geiago izango lukete, merkeago atera eta salduko litezke. Ura zoriona! Baiña oraindik amesetako. Urrutikoa oraindik. Ames ori egi biurtu bearrez, zorion ori urbildu bearrez, ez dezagun urrunago bialdu. Lafitte jaunak Ermun esan zuen bezela, ez dakigu batasuna egin ustez, ez ote degun euskera naastuko eta ilgo, eta euskalki bat geiago asmatuz, irakurlerik gutxiago ez ote dugun aurkituko.

Jaun au (Lafitte) beldur zan, erriaren euskeratik urrunduz, euskera batu orrek iraupenik izango ez ote duen; euskera ikastea ez ote diogun erriari neketsuago biurtuko. Ori gure izkuntzaren eriotzea izango litzake. Gurearen eriotzea eta erderari indar ematea.

Or dago gure zorigaitza. Beste izkuntza batzueri batasunaren auzia sortu zitzaizenean, ez zitzaizen gertatu etxeko izkuntzaren kalte garbitan: etxeko izkuntza bera sendoago, aberatsago eta geiagorentzat idekiago egiten zitzaizen. Guri etxekoaren ilgarri eta kanpokoaren indargarri gerta lekikegu. Kanpoko izkuntzaren bizigarri eta etxekoaren ilgarri gertatzen zaio euskereari banatasuna, egia; baiña berdin bertai lekiok batasuna ere.

Ongi ikusi zuen Azkue zanak gure zorigaitza au. Eta bizi bizi adierazi zuen bein, Hazparneko errikoetxean, eman zuen itzaldian, Frantzian irakurria zuen ipui onekin: "Frantzian nintzalarik bein, ez dakit zein paperetan irakurri nuen, gezurra esan bearrean *canard* (atea) esatea nondik datorren. Zelai idor elkor batean aate-taldea omen zegoen gosez, krak bat eta krok besteak, zer jan etzutela. Egazti aietako batek urdail ustua betetzeko grauskada bat eman zion urren zuenari eta ezur ta mami iretsi zuen. Aiek ala ikusita, beste guztiok elkar jaten asi ziran. Lumaz inaurria (estalia) gelditu zan laster zelaia; egaztirik bi baizik ez, gizen gizen biak. Aiek ere mokokaldi gogorra eginta gero, batak bestea barrenean sartuz, taldeko lagun guzian aragiak urdail bakar batean kokatu ziran". Eta Azkuek, bere aldetik: "Nik irakurri nuen paperak etzuen aipatu aatetalde aren inguruan otso ta azeri goseak amorraturik (amikatuturik) zelatan ote zegoen. Izan baltz, etzan aaterikan bat ere bizirik geldituko; egazti-mordo osoa, puskatua ta iretsia, urren zan oianera joango zan, otso-azerien sabelera. Talde ura bezelakoa gure euskalki-taldea degu, eta ai! beronen inguruan otsoa eta azeria bizi dira. Indian eta Grezian, eta Italian eta Espainian eta Ingalterran eta Frantzian eta Alemanian eta izkelgi-taldea bizi dan erri guztietan bezela, gure artean ere, alkar irestea bear bada, bildur naiz, sarrakioa erraieta-raño sartua daukat, alkar jan eta bat gelditu baiño lenago, ez ote dituzten otsoak eta azeriak, Frantziako eta Espainiako izkerak gure euskalkitxo guzi auek iretsiko".

Ori esan zuen Gipuzkera osotuaren alde ain gogo beroz eta zintzo ekin zuen gizon ark. Orregatik, noski, egoera ain negargarrian ikusten zue-

lako euskera, orregatik nai zuen euskalki sendo eta erdi-aldeko bat euskera batuaren oiñarritako. Orrexegatik, Bizkaiko semea izan arren, eta Euzkaiko euskera ain maite zuelarik ere, itzaldi aren bukaeran onela zion: "Entzun au ongi, euskaldun maiteak. Bizkaitarrak, guztiak ez, noski, baiñan askok, gure euskalkia utzi ta beste bat, erdi-inguruko bat, euskaldun guztientzat ulerterrazago bat, aitzen aisago bat, autatuko genuke. Edozein euskaldunek zati bat baiño osoa maiteago izan bear du. Au gora bera, guztiok "nik nere-a, nik nere-a, nik nere-a" "ka astekoak bagera, otsoak eta azeriak guztiok ezereztu orduko, sendoen bizi dan euskalkia ar bezate etorkizuneko euskaldun orok berentzat".

Gipuzkoako euskeraren alde zion ori. Sendo ikusten zuen au, eta, orregatik, kanpoko izkuntzen zintzur iresleei iges egiteko egokiena. Baiña Azkueren itzak gaurko egunetako ere balio ez ote dute? Gure arrixkurik andienetakoa, "nik nereaka" ibiltze ori ez degu oraindik uxatu. Eta ez, ain zuzen, bakoitzak bere euskalkiari nagusitza opa diolako. Beren euskera batua asmatzen eta zoromoro indarrez ezartzen saiatzen diranak ere, pekatu berean eta astunagoan erori ditezke.

Euskerak, bere gaixoan eta egoera bildurgarrian, kontu andiagoko jakabidea eskatzen digu. Bizirik irauten lagundu nai diotenak, egiteko ontan sartua danak, seta gogorrik eta arrokeriarik gabe jokatu bear du, apalrik eta konturik andienaz. Ez nor-geiagoka, ez eta nor jakintsuagoka. Ain gutxi, nor gazteagoka edo zarragoka.

Iritzi oker batzuk buruetatik kendu bearra daukagula uste det nik. Ez dezagun uste euskera euskerago edo jatorrago egingo degunik, batua egiñaz. Ez gizarte-legeetan oiñarrituago ere; gauza ageria da. Euskera batu ori, berriz, indarrez eta edozein modutan sartu nai izan ezker, gerta diteke euskera biziaren ilgarri. Eta erderaren bizigarri. Ikastoletan ikasi dutena bera ere, neguteko landare biurtuko daiteke umeen buruetan, ingurukon girorik gabez, illik geldituko dana. Etxeko euskeratik aldenduegia baldin bada ikastolakoa, etxekoa aaztu eta baztertzea eta ikastolan ezer gutxi ikastea edo bizirik irautekorik ez ikastea gerta daitekena da. Ontan saiorik ederrrenak eta asmorik onenak zoroenak gerta daitezke. Lafitte jaunak Ermun esan zuenez, asmorik onenak, xederik onenak ez dute bide okerrik zuzentzen. Bidasoaz andik datorkigun oar au emengoek ere on artzekoa dalakoan nago. Gezurra dirudi baiña, euskera batua dalako ori andikoen aldera etorkor izateko asmoz, aiekikoa egiteko eran eramana dirudian arren, andiko aldean dauka oiartzunik gutxien, angoen artean aurkitzen du jarraitzaillerik gutxien. Angoentzat egiña ez dala dirudi. Zergatik ote da? Ez ote da angoek beti euskeragaietan emengoek baiño zentzu ohea erakutsi dutelako?

Orregatik ongi etorria bedi Euskaltzaindiaren epetasun eta astiro jokatzea. Euskeraren biziarentzat osasungarriago izango da ori batzuen itsumustuen ari bearra baiño. Euskaltzaindiak ez dio bere egitekoari ongi eta zuzen erantzungo, berea bear luken gidaritza galduaz, inongo indarkeriri,



iñoren oldar eta bultzadari, zinka eta biraoka jardun bearrari amor emateagatik, jaramon egiteagatik. "Denboraren buruan, premiak bearturik, zerbait aldatu bearra gertatuko balitz ere"... Urrezko arau au edo oar-arazpen au ez du Euskaltzaindiak aaztu bearko. Itsua izango litzake atzera egin bearra, eta are itsusiago bein oker emandako pausu bat zuzentzeko atzera egin nai-eza, urrats txar eta oker batean gogortu eta setatzea. Euskeraren eta euskaldunen kaltetan izango litzake orrelako jokabidea.

Bukatu dezadan onenbestekin nere itzaldi au, luzearen luzez zuen aspergarri egin ez nadin. Bide luze samarra eragin dizuedana, gizaldiz gizaldi, mendez mende, gure klasiko zaarretan asi eta gure egunotararte. Idazle zaar aietan pake-giroan azaleratu zan auzia, idazle bakoitzak al zuen bezala erabakitzen saiatu zana, gaur burruka-bide gori eta gorri biurtu zaigu. Ez dedilla Azkue eta Menendez Pidal'en beldurra, gure erruz edo obenez, egi biurtu. Ez al da gure euskera inguruko otso-azerien zintzurretan ilgo. Orain artean beintzat bizirik iraun duen izkuntza, euskera batua dala ta ez dala, ez al degu ilzorian ipiñiko. Lagundu dezaiozun, badaezpadako norgeiagokeririk gabe lan egiñez, osorik eta bizirik irauten.

*Akesolo'tar Lino A.*

## 4.

### Umandiren bi lan



## OLABIDE, EREDU YAUKAIA

Euskeraren aldeko lanetan, mende onen urte luzeetan, amaika iritzi, jokera ta aburu, idazle, izkuntzalari ta euzkaltzaleen artean, maiz alkafen aurka agertzen diranak. Afitzekorik ez ortan; alde batetik ofen jasan-erazitako dugun gure izkuntza au, egitan, bere edatzearen asieran bide dago oindiño; bidezkoa ofengatik aurrean agei ditezken ibiltzeko bideak mota askotakoak izatea; eta bestetik, indaf bizi azferazi dizkiguten beste izkuntzak eta erdal-gogo-lantzeak beren eragipena ofen aundi ta gogo ofin eta egiten digutelako, oartu gabe bada ere, eragipen ofen pean gabiltz, eta ofek gugan idekitako ildo sakonetan gure gogai ta oldozpenak darabilzkigu, ala beafik.

Gurbil-zufian, geron ustez, inork eluke onartu beaf-izango bere iritzia bein-betikoa bezela, ofek egiña izan litekelakoan eta beaf-izan ezker aldatzeko gerturik egotean. Eta ondoriaz besteen aburuak inoiz ez ufuñatzen, inolaz ere norberarena besteai indaf azferazteko xedeaz.

Ofela, emen amor-egitean eta an isitasunez ekitean, euzkera aurrea le-kiguke, indarturik izan gabe ta berarenak diran bideetan barna. Auxe, apika, guziak onartu beaf-izango genuken jokera, onena bezela: ots, euzkeraren biziari egokiro eutsi al-izateko, ezta inoiz bere bideetatik atera beaf; bide oiek berarentzat zabalena ta erosoena bai ta beafezkoenak diralako.

Bide oietan barna joan ezker, bertan of eta ibil diteke indartsu bere sena, eta bertan ere ekin dezakete bere almenak. Oietatik at euzkera ero bezela ibiliko zaigu, norabiderik gabe, itxu bezela; ta bere almenak kamustuta lez geratuko dira.

Auxe dugu ezinbestekoa gogoratzeko, euzkerari buruz ari-izango geran guzietan: Aspaldi-aspalditik, gure izkuntzak, latera, espanera ta parantz-razko gogo-lantzeen eragipen gogofak jasan dituela ta gaur ere jasaten ari dala. Of eztago ukatzerik. Baña offerazi beaf da, bereziki, iru gogo-lantze oiek, beren eragipena, beren mintzairaen bidez burutzen dutela; orixe dute bide egokiena, ta eztago beste oberik, nai dutenez, berenganaturik izan gaitzeken.

Bai, erdera dugu beti euzkeraren aurka erabiltzeko bide egokiena; erdera sartzen dan tokian, edonorengan ere, euzkerak alde egin beaf du; ta ofelaxe joan zaigu gure izkuntza gure abefiko toki geyenetatik eta gizaki geyenengandik ere; afitzekoa izanik alan olan oraindik bizirik irauntzen duela ikustea.



Asi lenengo ikastolan, irakaskintza guzian barna gero, ta gurean biziari dagozkion arlo guzietan erdera indahez sartuta, besterik gabe ta naikoa dalarik, euzkera atzerakada beti bazteretan. Ofa begien afean dugun egi- pen argi ta negargafi.

Beraz, erdera euzkeraren arerio aundiena dugu; ta etsai ori indahez jafi digute aspaldidanik, nai ta nai ez gure aldetik onartzeko.

Eztugu uste ori ifior ukatuko digula, ain egi aundi ta argia dugularik. Ta ezinbestekoa izango zaigu arerio ofen aurka bipil eta gogorki yardu- tea, gure izkuntza gaizkatu ta gure Efi'aren biziari beaf dan bezela eutsi nai baldin badiogu.

Esandako guziaren laburpenaz auxe esan dezakegu zifnez: Euzkadi'ren- zat erdera eriotza da ta euzkera, aitzitik, bizia.

Geron iduriko, gure auzia izari ortan ikusi ta begiratu beaf dugu egin dezakegun guzirako. Ta egokera ori ofela dala onartzean, ortik asi beaf geron aldetik, bizira joateko bidean barna abiatu ta ibiltzeko. Euzkaltzale guziak eta batez ere beren burua abertzaletzat daukatenak, beaf dan ondorioaz jokatzeko guztiz gerturik izan beaf.

Nola jokatu?, zalantzik ez, noski. Erdera gure izkuntza ta gure Efi'aren biziaren arerio aundiena baldin bada, gugandik jaurtikitzeko alegin guziak egin beaf; asieran, zearo aztandu-erazteko. Ezin guban euzkera ta erdera alkafeekin berdin bizi; erderak indaf aundiago daukalako, beti men- peratuko digu euzkera. Alakotz gure Efia Euzkal-Efi izaten bizi al-izateko, alde guzietatik euzkaldun utsa izan beaf da, erderaren edena saf eztaki- gun alegintzean. Jakiña, gaur barneraño dugu sartuta; ofengatik gaurko gure lenengo lana gerongandik atera-eraztea izan beaf, eta ori ez sartzeko baño zalagoa izango zaigu, arean.

Beraz, baitezpadakoa dugu gaur, idazleak, irakasleak, andereñoak, iz- laria eta oldozlari guziak, gure ebazkizuna ofela ikusi ta onartu beaf-iza- tea, gerorako beren lan guzietarako; alkafen laguntzaz, esandako bidetik ari-izatea deritzaigu, gure bizirako, beaf-beafena.

Ba-dakigu gure artean gaur ofen zabaldua dugun giroa, ortarako ger- turik eztagoela, ta gure arloa guk bezela begiratzan etzuela ere; aitzitik eunka sartzan ari dira bere bitartez erderakadak gure izkuntzan, okefa deritzaigun iritzia jafaitzen. Len aipatutakoa esan ondoren, eztugu uler- tzen nola uste dezaken ifior bide ori egokia danik. Menperaturik gagoz aspaldidanik; efiketa aldetik bai, baña batik bat, ondorioz, gogo-lantze ta gogo utsaren aldetik ere; eta menperatze aundiena dan ori erderaren bi- tartez egokienik egiña dala izaten. Ofengatik erderakadaen bidea, ez men- peratze ori ontzat artzeko bakafik, baña, geyago dana, menperatze ori egi- tan laguntzeko jokera onena bezela agertzen zaigu. Nola ezta auzia ofela ikusten, ain argi ta garbi dagoelarik? Eta erderakadaen zaleak, euzkeraren arerioen antzera ari dira, itxukeri aundienean murgilduta, naiz eta berei aldetik orixe dala ez oartu.

Gutziz aurkakoa dugu, alegia, euzkerari ta euzkal-biziai eutsi al-iza- teko, eraman beaf dugun bidea. Ba-dakigu bide ori garbizalea dala ta etzai- gu aitzutzen, ulertu ere ez, okefa bezela askoren aldetik artzen ditela; ta jokera ortan erabiltzen diran itz befiak "garbikeriak" dirala diñote lasai- lasai. Nola garbikeri deitu garbitasuna bakafik danari? Ludi ontan eta arazo guzietarako garbitasuna goraltzen da nun-nai, ta orixe bera, euzkerari buruz izatean, garbikeria dala esan? Ofa zentzunik eztuen iritzia. Ludi ontako Efi guzietan, bakoitzak berea, beren izkuntza zaindu ta garbitzeko zudu aundiena agertzen dalarik, nola jokatu beaf dugu gurean aitzitik euz- kerari buruz? Ez jaunak, euzkera benetan gaizkatu nai baldin badugu, ezin- bestekoa zaigu garbitasun aundia erabiltzea. Itzekiko garbitasuna, joske- rarekiko garbitasuna, egitura dala-ta garbitasuna; ta bide batez gure iz- kuntzak dituen almen guziak erabiltzen eta edatzen, bat ere baztertu gabe.

Ofela jokatzan bakafik, euzkerari eustea ta bere biziari indaf aun- diena ematea lortuko dugu, ta bide batez, gure euzkal-bizierekiko beste ainbeste egin ere.

Ori, geron iduriko, ezinbestekoa dugun egikera, ta ez gera gu izan- go bide ortatik ibiliko geran lenengoak. Gu baño askoz lenago Olabide'- taf Efaimunda ofela ibili zan, euzkeraren onurako lan edef eta egokiak uztean. Eta bere lana ain egoki burutu zuelarik, zalantzik ez guban oro- rentzako eredu yaukala bezela ikusteko. Beste zioak dirala kari ere eredu dugu Olabide, gizon, apaiz, euzkerazale ta abertzale-zufian begiratzeko. Alaz ere ezta toki guzietan ofelaxe onartzen, ortaz be beste okef aundiñan ego- teko.

Olabide'ren lan guzien artean, geron ustez, "Idazteuna" dugu gafantzi aundienekoa, efaz irakurtzen dana ta ikaskizun aunitz aurkezten dizkiguna. Bertan, joskera jatofa erabiltzean, itzetan eta itz garbietan aberastasun aun- dia ikus diteke, ta lanaren barna euzkeraren almenak agertzen dira ongie- nik ustiatuta, batez ere aditzetan.

Eztitu Olabide'k erderakadak onartzen, berak darabilen itz-bilduma yoria dugu, benetan, eta bere itzen iturburu nagusia Azkue'ren iztegia izan bide zan. Ez ote zuen esaten Azkue'k, bere iztegia berak baño obeto Ola- bide'k ezagutzen zuela?; alaz ere etzan izan ura berarentzat itufi bakaña; ongi zekien arek idazle zafen artean eta batik bat efian bertan ikastea.

Noski, berak darabilzkien itz batzuk, asko bearbada, gaur eztira efi- tafen artean erabiltzen; baña ori ezta izan beaf aiek erabiltzeko oztoporik. Asko da euzkeran galdu dana, erderaren eragikeragatik eta gure izkuntza beaf zan bezela ez erabiltzeagatik; egia, baña galdu dana bein-betiko gal- duta bezela onartu beaf al dugu?; ez ote da gure eginbeafa, galduta da- goena indaf befiñaz berpiztu-araztea? Zalantzik ez, eta guzion eginbidetzat, gure itz-bilduma gero ta aundiago egiteko artu beaf da. Ezin gure aldetik onartu, bizi dan edo bizi diteken euzkal-itz jatofaren orde, erderakadak erabiltzea, au euzkera suntzitzeko bide egokienetakoa dalako.



Eta gure egiazko euzkal-gogo-lantzea egin, zabaldu ta indartu al-izateko, bide jatofetan barna ibiltzea dugu ezinbestekoa, aintzakotzat artzeko zerbait egin beaf baldin bada.

Euzkeraren egiturari, betidanik, bi bide oso egokiak erabili dira itz befiak eratzeko ta mota guziko asmoak adierazteko: *Eratortzea* ta *itz-alkartzea*; biak itz eta izkien bidez jokutzen dutenak.

Guztik ontzat artzen zuen jokera ori Olabide'k, bere lanetan agertzen danez eta, geron ustez, guztiz bidezkotzat artu beaf dugun lez.

Zergatik ezta ontzat artu beaf euzkal-jokera ofen bitartez egunen bidean zortzen diran gauza edo asmo befiak izendatzeko ala adierazteko, beaf izango zaizkigun itz befiak eratzeko? Egitan, itz guziak befiak izan ziran lenengo aldiz erabiltzen asi zanean; eta beste aldetik gaur sof ditezkenak, urte batzuetan barna erabili ondoren ez dira izango befiak. Ezta ofengatik zuzenezko, gaurko egunetan sortu, eratu edo sof ditezken itz befiak, euzkal-efoz egiak diranei "garbikeriak" deitzea. Itz befiak beti dira beafak, eta auxe bakafik eskatu bear da ofi buruz: ongi egiak izatea. Ta ori egin orde, ezinbestekoak diran itz befiak eukitzeko, alboko erderatara eske edo artzeko baldin bagoaz, egitan, euzkera erderatu egingo dugu, ta erderaren bidez burutzen diguten gogo-menperatzea ontzat artu ta lagunduko da, gure izkuntza ta gure gogo-biziaren aurka jokatzeko.

Geroz, bidezko, beafezko ta zentzunezkoa izango zaigu, euzkerak berak dauzkan bideak ustiatzea, beti noraezkoak izango zaizkigun itz befiak eratzeko.

Aditzai buruz ere ba-du gure euzkerak bere jokera berezia, adizkera bilduak eratzeko. Guziok ongi dakigunez adizkera-mota oiek, len orain baño askoz geyago erabiltzen ziran eta ofelaxe agertzen dira idazle zafen idazkietan.

Iruña'ko "Fontes Linguae Vasconum" aldizkarian, 1970'gañeneko zenbakian, Goulven Pennaod jaunak, "Racine et radical dans le verbe basque" izenpuruz, 250'gañen ofialdean, onela diño: "Ce n'est, comme on le sait, qu'un petit nombre des verbes basques qui a la possibilité d'être conjugué. On en comptait une cinquantaine vers le 16e siècle, une dizaine subsiste aujourd'hui dans les meilleurs cas, le plus souvent de façon fragmentaire...".

Ortan ere gure euzkerarentzat galtzea da bere zaira, ta askoren iritziz ontzat artu beaf ditugu geron aldetik ofelako galtze guziak. Geron ustez gure galtze guziak, egitan, jasan beaf ditugun indarkeri guzien ondorioak dira; ofengatik ezinbestekoa izango zaigu beti indarkeri guzien aurka jokatzeko, gizon eta euzkaldun-zufian beti. Ta naiz efiketan, naiz izkuntzan, ekanduetan eta euzkal-biziari dagozkion beste azpegi guzietan, ez da egia ezer galdu zaigula, berez baitezpadakoa izango bailitzan, era aunitzen bidez, zuzen ala zearka, indarkeriz kendu egin digutela baño. Ta auxe dugu euzkaldunok geron baitan egi ori gogoratzekoa dana. Len gure artean ere ontzat artzen zan galtze ori gure efuz gertatu zala; ezin dezakegu geuk iritzi

ori ontzat artu, ta aitzitik sendo nabari-erazi beaf dugu, galduta ez, kenduta dagoela guzia.

Adizkerak dirala-ta, ortxe dugu Olabide eredu bezela befiz; arek galtzea onartu orde, bipilki ustiatu zuen adizkera bilduak eratzeko euzkerak duen almena. Eta bere "Idazteuna" idaztarian efuz ematen ditu almen ofen bidez eratu zituen adizkerak.

Naiz zukazko naiz ikazko aditz-jokoan, aditz iragankofak eta iragan-kaitzak darabilzki, adizkera bilduak emateko, aditzaren era guzietan gañera.

Lan zaña ta aztuna izan beaf, zanbatzuk diran Olabide'k esandako bere idaztarian adizkera bilduetan darabilzkin aditzak zeatzez; zañago noski zenbat adizkerak ere ateratzea. Geuk iraizean egindako zenbatzean, larogetamabi aditz ezberdiñak atera ditugu, ta mila ta eun baño geyago adizkeretan. Batz bestea amabi era aditz bakoitzerako, baña aditz batzuetarako adizkerak askoz geyago agertzen dira besteetarako baño. ESAN aditzeko 144 jaso ditugu; EMAN'eko 129; EGIN'eko 84; ta gutxiago besteetan. Alarik ere, esan dugunez, zenbaki auetan eztago ezer zeatzez, eta ba-dakigu, egitan, geyago dirala.

Oña, geron iduriko, goraiatzeko dugun Olabide'ren jokaera, guziok jañaitu beaf genukena; ta ori egiten ezpadugu, egiz, gure izkuntza au ufufiatuko dugu, ta bere almenak erabiltzen ezpaditugu, gure gogo-lantzea, gure izkuntza bera ta gure euzkal-bizia ere oso muñiztuta utziko ditugu.

Otian, euzkera tinkotu, indartu ta zabaldu, bai ta egiazko gure gogo-lantze eratu ta edatu nai baldin badugu, geron ustez, euzkerak dituen almen guziak ustiatzen eta erabiltzen, jokatu beaf dugu beti, izkelgi guzietan dagozen itz, aditz eta esakunak onartzean. Ortan jañi beaf dugu gure elburu aundia, izkuntzari buruz, euzkaldunak berengandik al dezaketen onura aundiena eman al-izateko. Ori izanezik, motz geratuko gera gure alegiñetan, eta egiazko euzkal-gogo-lantzea burutu gabe geratuko zaigu.

Lan aundia dugu burutzeko, orain eta gerorako, gogoz onartu beaf dugun lana; ta ori egiteko Olabide izango dugu beti eredu yaukalena. Ia ofela, gure arabaf yakintsu ura, beaf dan bezela, goraiatzen ote dugun.

URESTARAZU'TAR ANDONI.



## EUZKERAREN BATASUN ETA BIZIRAKO ASMOAK

### *Euzkerak jasan bea' dituen erderaen eragipen batzuk*

Ba-dago kexutasuna euzko-abertzale ta euzkaltzaleen artean gure izkuntzari buruz. Euzko-abertzaletasuna sortu zanetik —Arana Goiri'k sofe-razi zuena esan nai dugu— batez ere, orduan asi baitzan, beste edonungo Efi'etan beren izkuntzai buruz bezela, gure Efi'arentzat gure euzkerak duen gañantzi aundia ikusten.

Gaur, enurarik gabe, guziok onartzen dugu ori, oso argi agertzen baita Efi baten gogoari eutsi al dizaioken bide bakaña izkuntza dala; Efi batean beti, gogo ta izkuntza guztiz alkartuta egon eta ari diralako. Izkuntzan Efi-gogoa dago bete-betean, eta Efi-gogoa izkuntzak zaindu ta eutsita bide batez, eta ezin izan diteke lan ori burutzeko besterik. Alakotz, Efi batek bere izkuntza uzten eta beste bat artzen badu, ezinbestez, bere gogoa ere aldatuta ikusi bea' izango du, izkuntza beñiarena bereganatzen ain zuzen.

Orixe nun-nai ikusten dana, orixe iñora joan gabe, gurean, argi agertzen zaiguna: euzkera galdu dan alderdietan euzkal-gogoak ere alde-egin du, gureak diran ainbeste tokietan gertatu danaz.

Otian, gure Efi'ak Efi bezela bizi nai baldin badu, bere gogoa zaindu ta indartu bea' izango du baitzepadakoan, eta ori egiteko euzkera du bide bakaña. Ofela, euzkera euzkal-gogoari eusteko, ta euzkal-gogoaz bizi al-izateko. Izkuntza, gogoa, bizi; ofa le'io berean dagozen iru azpegi, alkafi oso batuta dagozenak; eta gurean, euzkera, euzkal-gogoa ta euzkal-bizi. Lenengoa edo dugu asiera ta beste bietarako bidea, bide bakaña. Ofengatik euzkera da zaindu, indartu ta gure bazte' guzietan zabaldu bea' duguna. Ofa Euzkadi'ren sedu, indartu ta gure bazte' guzietan zabaldu bea' duguna. Ofa Euzkadi'ren seme guzientzat egin eta betetzeko lana, guziok eginbidetzat onartu bea' duguna.

Gure arazo aundienetako, beraz, orixe, zalantzik ez. Noski, euzkal-tzale ta abertzale batentzat ofela da ta ofela onartuta dago guzien aldetik, eta ortan ikusteko gure ebazkizun berezi ta gañantzidunena ere.

Jakiña, ez da orain arlo or erabiltzeko arturik izan dana, ta, mende ontan batik bat, amaika agertu dira ofi buruzko asmo ta egitarauak; baña oietako bat ere ez da euzkaldun guzien aldetik onartu. Ez da atsegiña ori esatea, baña egia orixe da, mingotza bada ere.

Ori esanda, ta egia ez da iñoiz izkutatu bea', arloaren azpegi bateaz itzegin nai dugu gaur emen, guziek onartuko dutelakoan egon ez afen; alaz ere bere egokitasuna ukatuko ezala ustean.

Aspaldi-aspaldidanik gure Efi'ak, bere bizian, bere gogoan eta bere izkuntzan *eragipenak* asko ta aundiak jasan bea'-izan ditu, aldameneko beste Efi ta beste gogo-lantzeak eginda. Oartzeko gañera, eragipen ori, nai ta nai ez eta gogof buruturik dugula. Izpidean dago Ugalde'ta' Martin "Unamuno y el vascuence" (Ekin) bere liburuan, 128'gañen ofialdean, onela mintzaten: "...la lengua opresora, impuesta por la fuerza en todos los niveles de la instrucción y de la cultura".

Egia diño Ugalde'k eta egitan oso antziñatik gure Efi'ak gogoari buruzko menperatze izugaña yasan bea'-izan du ta oindiño be ofen pean dago. Efi'ketarekiko beste menperatasunaz asko mintzaten da ta beraren aurka alegiñetan ari gera, mende ontan batez ere. Baña gogo-menperatasunaren aurka ezta berdin jokatzen; eta menperatasun ori, erdera ta erdal-gogo-lantzearen bidez, eta indafez bereziki, egiten dana, efi'ketarena baño askoz kaltgañagoa dugu gure Efi'aren gogo ta bizirako.

Ikus ditzagun emen izkuntzan eta ondorioaz gogoan be euzkerak artu dituen batzuk, ain aundiak baitira geyenak. Eta guziak beste izkuntzaen bitartez eragipen oiek buruturik ikus ditzakegunak.

Zazpi azpegi auetan ikus ditzakegu esandako eragipenak: 1.—Soñuari buruz; 2.—Aditzan; 3.—Itz-jokuan; 4.—Aditz-jokuan; 5.—Itz-bilduman; 6.—Esakunetan; 7.—Joskeran.

1.—Soñuari buruz: "Z"ren orde "S", esate baterako "Euskera"ren orde "Euzkera". "Deia" egunerokoan joan dan ufi'aren 14'gañenean, naste ofi buruz lan bat eman genuen. An aipatutako arazoa onela ere aurkeztu diteke:

a) Gure izkuntzan bi soñu dagoz, "S" ta "Z" izkien bitartez adierazten ditugunak. Bi soñu oiek, soñu guzien mañadian, oso urbil ematen dira alkañegandik, lenengoa bigañenari buruz gogofagoa izanik; berdin esan dezakegu bigañena lenengoa baño bigunagoa dala. Oartu: "su" ta "zu", "asi" ta "azi", "jaso" ta "jazo"...

b) Soñu oien izateagatik ezta zaña, ta safi gertatzen da, biak nastutzea, ots, bat bestearen orde erabiltzea. Alaz ere, nastatze ori, beti edo geyen-geyenetan, zentzun batean bakañik egiten da: "z" soñu biguna, "s" soñu gogofaz aldatzea; geron ustez iñoiz ez alderantziz, "s" soñuak besteak baño indaf aundiagoa daukalako edo.

d) Esandako nastea aunditzeko, ara nun datozkigun aldameneko bi erderak, españera ta parantzerá. Lenengoaren eragiketa oso bidezkoa agertzen zaigu; izkuntza ortan "z" soñua gogofa da ta "s" soñua biguna, alkañekiko biak noski. Ofengatik euzkerazko "z" soñu biguna bere "s" bezela entzun eta ulertzen da beti ta obeto. Ondorioz "z" soñua daukaten euskal-itzak, españeraz "su"az darabilzkite; ta ofela abizen batzuk aldatuak izan dira, esate baterako, Albizu esan orde Albiu erabili da.



e) Parantzeraren eragiketa aundiagoa da oindiño, "z" izkia oso gutxi erabiltzen dalako edo; ta ez bakarik euzkerazko "z" biguna, espanyerazko "z" gogofra ere, "su" az esan eta idazten dituzte; esate baterako; Biscaye, Guipuscoa; Suarez, Peres, ..., ofela amaitzen diran abizen guziak.

f) Bi erdera oiek dagiten eragiketa, beti ere, zentzun berean ikusten da, ots, "z" "s" az bihurtzen, iñoiz ez beste zentzunean; eta ori nabaritzea oso gañantzi aundikoa dalakoan gagoz.

g) Beste aldetik, eta au ere oso oargafia dala esan beaf dugu, erdera bi oien eragiketa aspaldidanik eta mendeetan barna burutua dago, ta gaur ere ekitean ari da, lenengo ikastolan asi ta biziaren beste bide guzietan ere. Gañera eragiketa ori indafez aferazi diguten erdal-gogo-lantzearen bitartez.

i) Esandako guziaz gogoratzen, bi itz auek begira ditzakegu: "gipuzkera" ta "euzkera"; biak gauza berbera adierazten dute "euzkal-izkuntza", lenengoak Gipuzkoa'n erabiltzen dana; bigařenak Gipuzkoa'n bertan eta beste euzkal-baztef guzietan egiten dana. Beraz, bi itz oiek gauza bera esaten eta ħeren azken sei izkiak ere berberak izanik, oso bidezkoa deritzaigu izki oien soñua ere berdin izatea, izkien jatořia edozein izan. Gipuzkera ba-dakigu, enurarik gabe, Gipuzkoa'tik datořela ta onela eratu: Gipuzkoa + era. Euzkera ezta agertzen ofen argi nundik datořen, eta ofi buruzko iritziak eztaoz batera gaurko ontan ere; nire iduriko Arana-Goiri'ren asmoa, ofezaz, oso aintzakotzat artzekoa da, naiz eta berak be ziuř-ziurtzat ez euki.

j) Alakotz eta beste argibide ohea agertzen ezpada, azken ondorioaz, geuk euzkeraren irugařen izkia "z" ren soñua adieraztekoa dala uste dugu.

\* \* \*

"H". Izki onek ezta adierazten oguzitako soñua, Saussure eta Azkue'k diñoten bezela; onen iztegian esaten danez ori otsa baño besterik ezta, aizeak zintzuraeren zeař ateratzean egiten duen otsa. Geron iritzi ots ori ematea ezta euzkera jatořekoa, beste izkuntzaetatik artua baño. Oni buruz 1977'gařenean argitaratu dan "Euzkal-betekizunak" nire liburuan zeatzak ikus ditezke.

\* \* \*

ORROITU, GARRAITU, esaten da Laburdi aldean, OROITU ta GARAITU esan ordez.

Bi aditz auek eta ba-dagoz beste itzak geyago, noizpait ipařaldean "orboitu" ta "garbaitu" agertu dira idatzita, Lhande'ren iztegian bezela. of agertzen dan "H" ori, auřeko "r" ren bigařen soñua, gogofra dana, adierazteko erabiři da, ta ortik bide datof, gero, bi "r" oiek agertzea.

Ofen antzekoa "LHANDE" itzaz gertatzen da, "LLANDE" esateko. "Gure Herria" aldizkaria ikus ditezke; 1976'ko boskařena, 258'gařen

ofialdean. Bertan Jean Louis Davant'ek lan bat ematen du "Aita Lhande zenaren biziaz" idazpuruz, onela mintzatzen: "Zer nahi gisaz, izen ederra da Lhande izena, apez eũskalzale famatiaren denboran orok Ziberoan "Lhande" erraiten ziena".

Beste izkuntzetan be "h" ori, beste izki batzuen atzetik erabiři da, izki ofen bigařen soñua adierazteko; beraz ustekoa da beste izkuntza oieta-tik igaro dala jokera ori gure euzkerara.

\* \* \*

Guziok dakigunez, Zuberoa'n ere pařa-pařa "ũ" erabiltzen da "u" ren ordez: "Dũt, dũzũ, ...". Ta argi agertzen da of, erderaren eragipena; ta gaur Zuberoa'n guztiz sartuta dagoen oguzpen ori, ia jatořizkotzat artzen da.

\* \* \*

2.—Aditzan: Ona emen iru aditz alde geyenetan erabiltzen diranak:

"Otz-egiten du", "Euri egiten du", "Bero daukat"; eta jatortasunez onela esan beaf ditugunak: "Otz dago", "Euria da", "Bero naiz". Ba-dagoz onelako besteak ere. Ofezaz Azkue'ren iztegian zerbařt ikus ditezke. Ta guztiz argi agertzen da, erderatik artutako esakunak dirala.

\* \* \*

Laburdi aldean "ZATO" (etoř zaitez) diñote, "ZATOZ" esan ordez. Eta ori ere ustekoa da erderaren eragipenagatik gertatzen dala.

\* \* \*

Ipařaldean ere "GELDITU" aditza "GERATU" bezela erabiltzen da, bai ta alderantziz ere. Egitan, emen eztago erderaren eragiketa, zentzunen nastea baño; ta ona izango litzake zentzun oiek tinkotzea, aditz bakoitzari berena ematen esan-nařari buruz.

\* \* \*

3.—Itz-jokuan: Amaikatxo itz-jokuan agertzen diran erderakadak. Ikus ditzagun batzuk:

"Otoi-egin guretzař", "Eskeřik aunitz bezuza edeř onentzat". — Otoi-egin gure alde" ta "Eskeřik aunitz bezuza edeř onengatik" esan beařean.

Ugari onelakoak ipařaldean erabiltzen diranak; eta parantzeraren eragipena argi nabaritzen da; parantzeraz "pour" en bidez "-ntzt" eta "-gatik" atzizkien zentzunik adierazten dituztelarik; bai ta: "onen, ofen, ..., nire, zure... alde" esateko ere.



\* \* \*

"Yainkoa'gan sifñisten dut". Gure ustez ori erderazko "Creo en Dios" en itzulpena da itzez-itzez; eta "Yainkoa sifñisten dut" iruditzen zaigu jatofagoa, Liturjia befian jañita dagoenez.

\* \* \*

"Ze edef, zein edef". Nabari agertzen da emen erderazko "Qué hermoso, cuán hermoso", aufekoa bezela, itzulita dagoela. Ofen orde z onela edo esan ditek euzkeraz: "Au (ori, ura) bai edef", obeto.

\* \* \*

"Zentako, zendako?". Bi era oietan ikusten da maiz galdera ori "zergatik" en zentzunaz. Lhande'ren iztegian be onela irakufi ditek: "Zertako C. (H.) pourquoi, pour quel motif, pour quel usage"; bai ta "Zertako C. (H.) à quoi bon" ere.

Ba-dirudi "Zertako", "Zertarako" itzaren laburpena dala, ta egiazko bere zentzuna ez da "zergatik" (pourquoi) ena bezela, "norentzat" antzeko "zertarako" ena baizik.

\* \* \*

"Huntan" erabiltzen da batzuetan "Hunengan" en tokian. Ipañaldean ematen diran Mezaetan otoi au dagite: "Hunen bitartez, hunekin eta hunetan", azken itz ori ofela esaten.

Salaberry idazle ospetsuak ere, "Gure Herria" aldizkarian, 1976'ko 5'kañean, 298'gn. ofialdean, onela idazten du: "Gizona dago Jaungoikoan, Jaungoikoa gizonan"; noski, "Jaungoikoa'gan eta gizonagan" esan orde z. Eta ez da bera bakafik itz-joko ori ofela darabilena.

Guziok dakigunez euzkeraren itz-jokoan, zentzun batzuetarako, atzizki batzuk izaki zentzundunentzat erabiltzen dira ta zentzungabekoentzat beste batzuk, ororen zentzuna berdín izanik; onela, esate baterako: "Emakumeagan" eta "etxean". Eta aipatu ditugun itzetan ez da ezberdintasuna ori ikusten.

\* \* \*

Galdetzeko ditugun itzak (naiz izenordeak naiz aditzondoak), galderak eztiran esakunetan ere darabilzkite ipañaldeko idazleak (erderaz "anafóricos" deitzen diran antzo). Esate baterako: "So-egilea" idazle onak onela idazten du 1977'ko irailaren 15'ko "Herria" asterokoan "Soberakina soberakin" idazpuru pean: "...ukan zuen amets bat hain bizia nun egon baitzen durduzatu..."; eta: "...eskas zituen halako ogi andanak nun Brejnev eror baitzitateen...". Eta ongi dakigu euzkeraz eztagoela ofelako "anaforik", eta zentzuna beste era batzuen bidez ematen dala.

\* \* \*

"Zeren" C. (H.), "-lako" atzizkiaren zentzunaz erabiltzen da.

Lhande'ren iztegian onela agertzen da itz ofen zentzuna:

"2.º conj. parce que, car." "Zeren libertatea xoil eder baita", "parce que la liberté est souverainement belle".

Esakun ortan lenengo itza kenduta, zentzuna berbera agertzen da; beraz beafik ez erabiltzea.

Gero onela irakurtzen da iztegi bera ortan:

"SYN.: Zergatik; — 3.º pourquoi, pour quel usage". "Zerentzat da hau", "pour quel usage est ceci?".

Geron ustez "pourquoi" zentzuna ageferazi nai baldin bada, onela jarri beaf da esakun ori: "Zergatik da hau?"; eta "pour quel usage est ceci?" onela "Zertarako da hau?".

Onela jañitzen da esandako iztegian: "Zerendako N. (H.) pourquoi?, pour quel motif?, pour quel usage? SIN.: Zertako, Zergatik, Zerentzat".

Aufeko ofialdean esan dugunez, Zertako, zertarako'en laburpena dala dirudi, ta bere zentzuna Zerentzat'en antzekoa; baña Zergatik itza da "pourquoi" ta "pour quel motif" en zentzunak adierazten dituen.

Guzi ortan, ene ustez, naste bat dago, parantzarako "pour" itzetik datofena.

Azkuere'n iztegian onela esaten da: "ZEREN: ... Cuando cualquiera de los interrogativos pasa a ser, *por influencia extraña* (nik bean mañatuta), palabra ilativa, el verbo que le acompaña recibe el relativo -N..., así la traducción guipuzcoana del precedente ej. es incorrecta, debiera decir: "ZEREN... EZARTEN DITUZTEN", como lo es también la frase de Axular "ZEREN IDURITZEN ZAIT" "porque me parece (3.ª-XIV-19) pues lo correcto es "ZEREN IDURITZEN ZAITAN o ZAIDAN".

\* \* \*

Ona emen "asko" itza izenondo bezela nola erabiltzen dan sañitan: "Ur asko, ke asko, aize asko, bekaizkeri asko". Baña mukuluak eztiran gaikiari buruz eta giriñak adierazten dituzten itzekin, "asko" en orde z, "aundi" erabili beaf da. Onela: "Ur aundia, ke aundia, aize aundia, bekaizkeri aundia".

\* \* \*

EZEN. Lhande'ren iztegian onela:

"EZEN (H.) — 1.º car, en effet, puisque. Ezta deus galdurik, ezen oraino bizi gare ou: oraino bizi gare ezen, il n'y a rien de perdu, puisque nous vivons encore; 2.º que, entre deux verbes, l'un régissant l'autre, conj.



de subord. Dio ezen aditzen eztudala, il dit que je ne l'entends pas. Id. sans la conj. Dio estudala aditzen".

Lenengo adibidean "car" edo "puisque" itzultzen dira itzez-itz; baña euzkeraz ofela jañi beaf-izango litzake geron aburuz: "oraino bizi gare-lako" edo "oraino bizi gare-ta" edo "oraino bizi baikare".

Azkue'k ere ba-dakañ itz au bere iztegian; eta an ematen dituen adibideai buruz, onela diño: "Parecen modismos *traducidos de lenguas extrañas*" (nik mañatua).

Lhande'ren iztegian, gero, bi itz auek agertzen dira: "EZEN EZ L. (H.) que non pas. Nozbait hobeago da ezen ez nihoiz (J. Etc. M. H.) il vaut mieux tard que (non pas) jamais".

Esakun ori obeto edo onela: "Nozbait hobeago da nihoiz baño".

Eta Lhande'k berak auxe jartzen du gero: "SYN: baino, baño, bano, beno". Baña of ere "que (non pas)" itzuli nai-izan da itzez-itz.

\* \* \*

ZEIN GAIZTOA ETZANA - ZEIN GAIZTOA ZALAKO. Esakun bi auetan zentzuna berbera dago lenengo itza kendu ezkerro: GAIZTOA ETANAZ - GAITOA ZALAKO.

Oñelako esakunak efuz ikusten dira; ta oso argi agertzen da oietan, aueko ZEIN ori kendu-ta, zentzunak ezer galtzen eztala; ta erderazko "pues" edo beste antzekoren bat itzultzeko bakañik erabiltzen da ZEIN ori.

\* \* \*

Oso ezaguna dan seaska-abesti batean esakun auek agertzen dira: ZEÑEN GOXOAK DIRAN eta ZER EDERRA DAN; eta geron ustez jatorrago esan ditezke oiek onela: BAI GOXOAK DIRALA ta BAI EDE-  
RRA DALA. Ta argi dago, of ere, erderazko CUAN eta QUE itzulita izan dirala.

\* \* \*

NUN — Lentxoago "HERRIA" n "So-egilea" idazleak emandako bi esakun jañi ditugu, "nun" itz au erderaren zentzunaz erabili duela. Ta aipatutako esakunak, onela edo jañi litezke obeto: "...hain bizia izan zalarik, durduzatua egon (edo: geratu) zan"; edo: "..., amets bat oso bizia ukan zuen, durduzatua egon baitzen". Eta: "...eskas zituen halako ogi andanak, Brejnev eror baitzitateen, ...". Emen, NUN itza kenduta, esakuna ongi geratzen da; beraz beañik ez ori jartzea; eta "anaforico" bezela dago jañita.

\* \* \*

Azkue'k, bere Iztegian, 126'gn. ofialdean, onela diño: "La segunda relación de dependencia (la indirecta y alienígena) se expresa de dos maneras, según los dialectos. En B. y G. se expresa..., añadiendo una -N al verbo conjugado; en los demás dialectos se expresa con el prefijo BAIT-

aglutinado al mismo verbo conjugado. GIZONA, NORENA DAN ETXE AU; GIZONA NORENA BAITA ETXE HAUR: "el hombre, de quien es esta casa" ETXEA. NORA DIJOAN GURE ZAKURRA; ETXEA NORAT JOAITEN BAITA GURE ZAKURRA, "la casa a donde va nuestro perro". Es sumamente recomendable no hacer uso ni de uno ni de otro procedimiento, ni de ningún otro, para expresar esta relación. Desterrarla de la lengua, es lo único que se puede recomendar".

\* \* \*

-KIN. Egunero entzuten eta irakurtzen da atzizki au -Z'ren ordeaz erabiltzen dala. Zalantzik gabe, erderazko CON eta AVEC'en antzo erabili-ta; auek, erderaz, asmo guzietarako erabiltzen dira ta ofezaz kutsatuta -KIN ere berdin orotarako; egitan auxe esan diteke, CON eta AVEC'en asmoak dirala gogapenean dagozenak -KIN atzizkia erabiltzeko; beraz, oien itzulpena baño besterik izan gabe. Ortan, bada, erderaz oldozten da, erderak eraginda.

\* \* \*

BA- eta -N. Aueñzki ta atzizki auek dirala-ta, sañi ikusten da lenen-go a bigañenaren ordeaz erabilia. Esate baterako: "Eztakit etofi bada", "Eztakit etofi dan (edo: etofi ote dan)" esan ordeaz. Ontan be argi baño argiagi erderaren eragipena.

\* \* \*

ZU (Bakañ) - ZU (askañ). Azkue'k bere iztegian diñoenez eta geron iduriko, guziok onartuta dalarik, len, aspaldin, ZU'ren zentzuna askaña zan, bigañen notiañ adierazteko I izenordea bakañik erabiltzen zanean. Gero, eztakigu noiz, erderazko VOS et VOUS'en bakañen zentzunaz erabiltzen asi zan, lotsa aundiagoz bigañen notiañari mintzatzeko, ta berarekin batera berari dagozkion aditzerak ere bakañaren zentzunaz erabiltzen ziran; eta ofela berak utzitako tokiak betetzeko, beste aditzerak sortu ziran, lenen-goai -TE atzizkia erasten, bai ta ZUEK izenorde beña ere ZU'ren ordeaz.

Oña erderaren beste eragipena, iñoiz zuzenduko eztala uste ditekellarik.

\* \* \*

ARA itza. Azkue'ren iztegitik artzen dugu uñengoan ematen duguna:

"La influencia de los idiomas vecinos hace que muchos en el nuestro, cometiendo un barbarismo, se valgan del demostrativo lejano para designar los tres grados de demostración, si no en los pronombres mismos, por lo menos en los modales, en los comparativos, en los calificativos, en los cuantitativos, artículos y adverbios. ALA, ALAN, "así, de aquella manera" dicen en vez de ORRELA, OLAN, "así, de esa manera" y ONELA ONAN "así, de esta manera". AIN "tan (como aquello)" emplean por ORREN



"tan (como eso)", y ONEN "tan (como esto)". Se valen de ALAKO, ALANGO, "así, como aquel" en lugar de ORRELAKO, ORRELANGO, OLAKO, "así, como ese" y ONELAKO, ONELANGO, ONAKO, "así, como este". AINBAT y AINBESTE, "tanto (como aquello)" sustituyen a ORRENBAT y ORRENBESTE, "tanto (como eso)", ONENBAT y ONENBESTE, "tanto (como esto)". BERTAN "allí mismo", dicen también en vez de BERTON "aquí mismo"; BERTARA "allá mismo" por BERTORA "acá mismo". Se olvidan de que en nuestra lengua hay dos artículos afirmativos y uno negativo, y como si "el, la, lo" fuese siempre A, y "los, las" equivaliese siempre a AK, dicen muchos GOIZEAN "a la mañana (en general)", y GOIZEAN "(hoy) a la mañana", en vez de GOIZEON; BIAK, "los dos" cuando son lejanos, y BIAK, "los dos" cuando son cercanos, en vez de BIAK. Finalmente en las expresiones adverbiales "helo, helos, habedlo, habedlos", emplean siempre la de tercer grado, la lejana, a pesar de que aun en los idiomas vecinos existen marcados los grados de la distancia: "he aquí, he ahí, he allí", y dicen ARA por ORRA y ONA; y, lo que es peor, las frases pleonásticas ARA AN, ORRA OR, ONA EMEN, salen de sus labios convertidas en ARA AN, ARA OR, ARA EMEN. En este defecto han incurrido aun los autores cuyo nombre se estampa más veces en esta obra".

Esandakoaren asieran Azkue'k diñoenez, "aldameneko izkuntzaen eragipena" da aspaldiko idazleek erabili dituzten erderakadak soferazi duena, gero, beren bitartez, eritafengana igarotzeko.

Ezta ori aitzeko, alegia; lenengoz, igarotako mendeetan oraingoan ainbat euzkeraren iasketan sakondu etzalako; eta bigafenez, idazle guzti aiek zearo laterakoiak ziralako.

Guzi ofengatik ezitardi bidezkoa dala, gaur egin bea dugunerako, eredu bakaf eta obetsiak bezela artzea.

#### 4.—Aditz-jokoa.

*Oker*

*Zuzen*

"Biar datoí" "Biar etoíko da"  
Azkue'k bere iztegian, -KO atzizkiaz mintzatzen erderakada au dakaf.

"Nor izango da?" (orain) "Nor ote da?".  
Au be itzez-itx artutako erderakada.

"Ikusiko gera". "Alkar ikusiko dugu".  
Erderazko *nos veremos*'en itzulpena, egunero erabiltzen dana.

"Bero daukat" ("Bero naiz").  
("tengo calor" erderazkoa bezela)

"Otz egiten du". "Otz dago".  
(erderazko "hace frío").

"Aizea egin da".  
(Erderazko "ha hecho aire").

"Aizea egon da".

5.—Itz-bilduma. Amaika erderakada itzetan erabiltzen diranak, naiz mintzazen naiz idazten.

Azkue'k bere Iztegian (XVI'gn. orialdean) kristau-ikasbide batzuetatik artutako batzuk dakarzki, benetan pafegafiak diranak. Berak aipatzen dituenak (ez guziak) emen jartzen ditugu berak diñoena itzez-itx artuta, ori beiz ikustea egokia izango dalakoan: "El extremo opuesto (beste izkuntzuetatik itzak artzea), sobre ser censurable, es ridículo, enojoso y directamente atentatorio al prestigio de la lengua".

"Júzguese de esta definición del santo nombre de Dios, extraída literalmente, y sin cambio de ortografía, del Catecismo del P. Astete, traducción guipuzcoana perpetada por uno que lo mejor que hizo fue ocultar su nombre: JAUN BAT INFINITAMENTE PODEROSO, SABIOA, JUSTUA, PRINCIPIOA ETA FIÑA GAUZA GUZTIENA".

"El siguiente pasaje está también extraído del Catecismo español del P. Astete, pág. 63, traducido a tres dialectos vascos (el aezkoano, el salacenco y el roncalés) por los Sres. Elizondo, Sampere y Hualde, y publicado a expensas del príncipe L. L. Bonaparte".

"SOBERBIAREN	CONTRA,	UMILDADEA.
AVARICIAREN	CONTRA,	LARGUEZARA.
LUJURIAREN	CONTRA,	PACIENCIARA.
GULAREN	CONTRA,	TEMPLANZARA.
INVIDIAREN	CONTRA,	CARITATEA.
PREZAREN	CONTRA,	DILIGENCIARA".

"¿Para qué la traducción, si ello es traducción de sí mismo? Para este género de versiones no parece demasiado duro aquel proverbio italiano: *Traduttore, traduttore*. Es de advertir que tanto los siete pecados capitales como sus virtudes contrarias tiene cada cual su nombre castizo, no inventado por neologistas. Ignoro el fin que se propuso el benemérito príncipe al publicar estas cosas".

Geron aldetik ipaf-aldean erabiltzen diran batzuk jasota dauzkagu; besteen artean auetxek esate baterako:

Primadera	Udabefi
Konparazione	Esate baterako
Berba Dibinoa	Yainkoa'ren Itza
Bistan da	Argi dago
Pres egon	Gerturik egon
Bestitzen	Jantzitzen
.....	.....



Oñen zaġa izango al litzake auek eta beste onelakoak zuzentzen ari-izatea? Ezteritzaigu gauza zaġa izango zanik eta batasunerako uñats egokiak emango lirake.

Bańa zoritxañez, gaurko "eusker a batua" dala-ta, kendu orde, beste amaika sortzen ari dira, oso okeña deritzaigun jokeraz, ori euzkera erderatze bańo besterik ez talako.

6.—Esakunak. Beste erderakadaen artean auetxek jañi ditzakegu emen :

<i>Okei</i>	<i>Zuzen</i>
Justu-justu	Ordu-orduan
Bostetan justu-justu	Bost-bostetan
Jakiñaren gañean zagoz	Jakituna zera (edo : Ba-dakizu oñela...)
Eñan gabe doa	Eñan beañik ez
Eztago dudarik	Zalantzik ez (oñi buruz, ortaz...)
Zeren gañean itzegin du?	Zerez (zertzaz) itzegin du?
Auskalo!	Tokitan dago!
Espero dut	Uste dut, itxaroten dut, zai nago.

7.—Joskera. AITA GUREA, GURE AITA esan orde. Auxe da, apika, gure-joskeraren aurkako era zabalena. Españerazko PADRE NUESTRO, itzez-it, itzulita.

Era ori ego-aldean erabili da; ez, ordea, ipañ-aldean; bańa uste ditekenez parantzeraz NOTRE PERE esaten dalako; ots, parantzeraz ta euzkerazko joskera, oñ, berdin dalako.

Gaur, Liturjia beñian, alde guzietarako era egokia jañi da: GURE AITA. Oña erderakada bat ondo zuzenduta; bidezkoa dirudi bide ortan barna jañaitzean, beste erderakadak ere ongi zuzendu beañ-izango lirakela.

AITA MIKEL esaten da nun-nai, MIKEL AITA esan orde. Au ere oso sartuta dago bazteñetan. Gure ustez esaten dan alderantziz esan ezkerero, jatoragoa izango litzake.

Iñioiz, ala oso gutxitan, esate baterako, eztira erabiltzen JAUN ZABALA itzak onela, ZABALA JAUNA bańo; ZABALA ANDEREA bezela; ta berdin dirudi MIKEL AITA ere oñela esatea.

ANDERE MIREN, ANDRA MARI. Egunero ta alde guzietan onela erabiltzen diran itzak; bańa joskerari buruz, geron iduriko, MIREN ANDERE ta MARI ANDRA esan beañ-izango lirake. Bańa lenengoak Eñi'aren barne-muñetan ain sartuta dagozelarik, ezñia deritzaigu ori ikutzea.

YAUNGOIKOA. Berebat esateko itz onekiko; joskeraren arauz GOIKO YAUNA esango balitz obeto; bańa auñeko beste itzak bezela, au ere ororengan sartu-sartuta dagoenezkerero, guztiz ezñia ori aldatzeko leyatzea.

MARTIN MENDIOLA'KO. Onen antzeko izen abizenak ikusten dira oñela jañita. Bańa joskerak eskatzen duenez MENDIOLA'KO MARTIN esan beañ-izango ta argi agertzen da era ori erderazko MARTIN DE MENDIOLA'tik artuta dagoela; lenengoz MARTIN izena berdin, eta gero DE MENDIOLA, MENDIOLAKO, erderaren eragiketaz. Beste aldetik, gure izen abizenak jartzeko, askoz jatoragoa deritzaigu onela egitea: MENDIOLA'tař MARTIN.

Izlarrien eta idazleen lana egokia izango litzake, geron ustez, emen aipaturako erderakadak, geyenak bederen, eta bazteñetan erabiltzen diran besteak ere, pizkanaka-pizkanaka zuzentzen ari-izatea. Alde batetik euzkerak iraon iduriko, euzkeraren batasuna astiro-astiro egin beañ da, ortarako guziok alegiñetan jarduten. Eta ori esondatzea da lan onen elburu bezeria.

*Uñestarazu'tař Andoni*



## KARDABERAZ

## LIBURUXKAK

	P.V.P.		P.V.P.
1 KARDABERAZ, 1		6 AMEZKETA'KO PERNANDO	
Zenbait idazle (1971) 34 of. ... ..	50	Albizu ta Ayerdi'tar Anastasio (1975)	100
		77 of. ... ..	
2 UME TXIKIENTZAKO SOINKETA		7 KARDABERAZ, 4	
Marrezki ugariz ornitua (1973) 19 of.	50	1975. Zenbait idazle (1975) 84 of. ...	150
3 EUSKALERRI ZARREKO JAINKO TXIKIAK		8 "PAKEAREN-ERREGIÑA" - MEZA	
A. Arrinda (1973) 19 of. ... ..	50	Pildain Araolaza'tar Joakin (1974) 43 of.	600
4 KARDABERAZ, 2		9 20 IPUI ETA... antzerkitxo bat ikastola- rako	
1973. Zenbait idazle (1975) 110 of. ...	100	A. Albisu (1975) 145 of. ... ..	145
5 KARDABERAZ, 3		10 KARDABERAZ, 5	
1974. Zenbait idazle (1975) 141 of. ...	200	1976. Zenbait idazle (1977) 109 of. ...	200

## KARDABERAZ BAZKUNA

1924'an sortua, Gazteiz'ko Apatzgaitegian. Euskeraren alde.  
1936'an birrindua. 1970'an berpiztua.

Zertarako? Euskera jator batean, kristau-burubide barruan (esi zabal) lan egiteko.

**Bazkideak** (gizon ala emakume): bazkide-tza irixteko sarrera-sariz, milla peseta ordaintzen dute. Iru bazkide-mota dira gero:

- A) Urteko milla pesetako bazkide-saria ordaintzen dutenak. Kardaberaz "urterako" liburuxka, utsean-duan jasoko dute. K. B.'k irarriak dituan eta irarriko dituan idazkietatik, ala nai izanik, nai dituztenak erosteko eskubide dute, irar-sariaz ordaindurik.
- B) Urteko bi milla pesetako bazkide-saria ordaintzen dutenak. Kardaberaz "urteroko" liburuxka, utsean-duan jasoko dute. K. B.'k irarriko dituan idazkiak, irar-sariaz ordaindurik, urteko milla peseta bitarteko kopuruz ditezkenak jasotzeko eskubidea dute, ezer geiago ordaindu gabe.
- D) Urteko bi milla pesetatik gorako bazkide-saria ordaindu nai dutenak, Bazkunari guzizko ordaintzetan bereziki lagundu nairik. Idazki banaketan ongi gogoan izango ditu mota ontako bazkideak K. B.'k.

**Arpidedunak.** Irartzen jungo diran idazkiak jasoko dituzte aldiko aldian, jaso ala, arpidedun-sariaz ordaindurik.

## KARDABERAZ BAZKUNA

San Francisco, 1 - Apdo 83 - Tel. 55-11-40 - **TOLOSA**

# «UMANDI»

## Complemento de la Gramática Vasca

PRIMERA EDICION

Dos volúmenes, 586 páginas  
14 cassettes

## Euzkal - Eliztiaren Betebidea

LENENGO ARGITALPENA

Bi idaztitan, 586 orrialde  
14 galartzu txiki

### Precios en pesetas de venta al público

Un volumen y 7 cassettes ... ..	4.200	7.500	Bi idazkiak eta 14 galartzu txikiak
Ambos volúmenes más 14 cassettes ...	7.500	4.200	Idazti bakoitza ta 7 galartzu txikiak
Ambos volúmenes (sin cassettes) ... ..	1.300	1.300	Bi idazkiak (galartzuak gabe)
Cada libro (sin cassettes) ... ..	700	700	Idazti bakoitza (galartzuak gabe)
Cada cassette ... ..	500	500	Galartzu txiki bakoitza



